



MODA GEHIGARRIA / 34



EMAKUME BERTSOLARIEN SAREA INDARTUZ

'Gure aldetara. Nafarroako emakume bertsolariak' diskoan parte hartu duten eskualdeko bederatzi bertsolarirekin bildu da TTIPI-TTAPA. Horietako bakoitzak bertso munduan egindako ibilbideaz eta Nafarroako emakumeen bertsolaritzak dituzten erronkez mintzatu dira. / 11

Aimar Olaizolaren agurra

Pilota profesionala utziko duela iragarri du Goizuetako pilotari handiak. Azaroaren 13an sorterrian jokatuko du azken partida. / 60



Jose Manuel Iñarra
Draveten gaitza
ikusgarri egiteko
mendiz mendi / 8



Oaia Peruarena
Berako margola-
riaren ibilbideari
errepasoa / 15



Maite Barberena
Zigaurren eta
Urrozen abeltzaintza
ogibide / 50



22 urteren ondotik
ETB utzi du Franck
Dolosor Senpereko
kazetariak / 56

Hainbat formatutako egutegiak egiten ditugu



ESKATU AURREKONTUA konpromisorik gabe!



KULTURKARI

ttipi-ttapa | 791 zk. | 2021-09-30 Diseinu grafikoa | Publizitatea

INFORMAZIO GEHIAGO:

Koskontako bidea, 7-1 · LESAKA · Tel: 948 63 54 58

kulturkari@ttipi.eus · www.kulturkari.com



NIRE TXANDA

JOSEBIÑE AGIRRE SOTO

Eskolara buelta

Ttikia nintzanean, uda osatzen zuten hiru hilabeteek urte oso baten iraupena zuten. Hamaika gauza egiteko aukera izaten zuen batek, egun bakoitzaren ordu bakoitza biderkatzen zenez gero. Zoriontsua izaten nintzen, eta irmoki erraten nuen irailean urteberria hasiko nuela. Banekien urtarrila zela urteko lehen hilabetea, eta abendua azkena. Ber maneran, banekien irailean urte bat amaitzen zela bertze bat hasteko. Behin hazita, paradoxa hori argitu ahal izan nuen. Ez zen urte kontua, garai kontua baizik. «Eskolara buelta»-k sakon markatzen duen garai berri baten hasieran gaude, koronabirusaren garaia bera ahultzen, finitzen ari den garai horretan. Garai zaharrak ahultzen hasten direnean gertatzen den bezala, ilusio berrituarekin elkartzen gara, ehunka, milioika, bizitakoa berriz bizitzeko ondokoari kontatuz. Birsortze prozesu baten gisakoa delakoan nago. Ez dut, baina, argi ikusten nirea ere baden gazteria honen etorkizuna. Ilusioak berritzeko zailtasunetan dagoela iruditzen baitzait.

«EZ DUT ARGI NIREA ERE BADEN GAZTERIA HONEN ETORKIZUNA»



EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

23 urteko ibilbide oparoa

Urumea goialdean sortu eta ttikitatik ikasi zuen bidea ibaian beheiti, gurasoen laguntzarekin hasieran eta bakarrik gero... hango eta hemengo erreketan saltoka ibili ondotik, Bidasoak Kantauri itsasoa besarkatzen duen putzuan hartu zuen aterpe, baina, izokinak bezala, *ttirikittarraka gotti* egin eta iturburura joko du, azken punpa ematera. Zorraz zor.

NABARMENTZEKOAK



AIMAR
OLAIZOLA
PILOTARIA



MAIKA
ARIZTEGI
HERRI KIROLARIA

Aurkezpen gutti behar du Goizuetako pilotari handiak. 23 urtez palmares ederra osatu ondotik, azaroaren 13an, 42 urte beteko dituen egunean, jokatu du bere azken partida Goizuetan.

Bertze txapel bat jantzi du Iturengo herri kirolari ezagunak. Aldi honetan ingude altxatzen Nafarroako txapeldun izan da, bere hamaikagarrena. Euskadikoa ere lau aldiz irabazia du.

ATZERA BEGIRA



2011-09-29 · TTPI-TTAPA · 551 zk.

Alberto Barberena Elizondoko lasterkaria

«Dena ez da futbola, eskubaloia eta pilota, badira bertze kirolak ere». Horixe adierazi zion duela hamar urte Alberto Barberena Elizondoko lasterkariak TTPI-TTAPARI. 24 urte bitarte, futbola izan zen bere kirolik gustukoena eta Baztan eta Iruñeko Oberena futbol taldeetan ibili zen. Gero, ordea, urte pare batez atsedean hartu ondotik, 27 urterekin lasterka hasi zen: «Betitik gustatu izan zait lasterka ibiltzea. Ttikitan, Baztan Ikastolak antolatutako lasterketetan ibiltzen nintzen eta ongi moldatzen nintzen». Kontatu zuenez: «Futbolak lagun aunitz eman dizkit, kuadrillan aritzeko aukera ematen baitu. Baina futbolak lesioak izateko arrisku handiagoa du, laster egiteak ez daukana. Lasterka norbere gisa ibiltzen da gehiago».



erran.

TOKIKOM

Argitaratzailea
Ttiipi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttiipi.eus

Zuzendaria
Aitor Arotzena
Erredakzioa
Gurutze Pikabea, Nerea Bazterrika,
Ruben Oskariz, Eneritz Iraola
Publizitatea
Amaia Odriozola
Arantza Agirre
Usaia Vicente
Berriemaileak
Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,
Koro Irazoki, Nerea Alizuri,
Arantza eta Iraia, Irune Elizagaien,

Maider Petrirena, Oihana Kalparsoro, Fermin Etxekolonea, Aintzane Leiza, Pablo Irastortza, Maite, Ana eta Itziar, Juan Mari Barriola, Marga Erdosain, Maitane Maritorea, Arantxa Iturralde, Arantxa Gamio, Jaione Ariztegi, Jaione Zabalo, Nerea Mortalena, Virginia Oteiza, Pierre Bastres, Ainhoa Astiz, Ganex E., Xabier Maritorea, Maialen Iantzi, Jaione Mindegia, Olatz Mutuberria.

Fundazioaren Presidentea
Pello Apeztebrea
Kudeatzailea
Joxemanuel Irigoien
Administrazioa
Amaia Goia
Lege Gordailua
NA-1324/85
ISSN
1578-4673
Tirada
6.000 ale

Erakunde laguntzaileak
Leitza, Goizuetako, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Malerreko Zerbitzuen Mankom., Zugarramurdiko Akelarre elkarte
2021eko harpidetza sariak
Baztan, Urdazubi eta Malerreka 40€
Leitza 30€
Hego Euskal Herria 48€
Iparraldeko Euskal Herria, Europa 94€
Amerika eta Australia 140€



KOLABORAZIOAK

MIKEL SAGASTIBELTZA LASARTE

Okupazioa

Zer etorri zaizu burura izenburua irakurrita? Urteetan hutsik egondako etxebizitza batean dauden gazteak? Oporretan joandako amona baten etxera sartutakoak? Gaztetxe bat? Estatu Batuen armada lurralderen bat militarki okupatzen?

Orain arte idatzitakoetan bezala, ulermen marko hegemonikoari kritika egiten saiatuko naiz, gaurkoan okupazioari helduz. Izan ere, gaia definitu gabe, zertaz hitz egiten ari garen ere zehazki jakin gabe, komunikabide nagusiek milaka aldiz jaurti digute okupazioaren kontrako mezua. Zergatik? Zer okupazio?

Okupazio gisa definituko dugu pertsona edo talde batek espazio edo propietate jakin bat eskuratzea, jabetza juridikoa haiena ez denean. Beraz, okupazioarekin *de facto* hausten dena gaur egungo legedia da. Legea haustea gaizki dagoela dio zentzu komunak, baina hala al da? Etikoki begiratuta, ez da dudarik egonen ongi dagoena gizadiaren ongizatea bilatzea dela, eta hain zuzen legedia ez dago horretarako sortua, baizik eta propietate pribatua, azken buruan kapitalismoa, erreproduzitzeko tresna bat da. Ez dut esan nahi legea haustea ongi dagoenik, baizik eta «legeak dio» argudioak ez duela balio.

Arrotxapeako gaztetxea desalojatu zuten irailaren 8an.

«LEGEAREN APLIKAZIOA KONTRA EGITEN ZAION INDARRAREN ARABERAKOA DA»

Urtetan erabili gabeko La Caiaren propietate bat, auzoari bizitza emateko eta antolakuntza politikorako bitarteko bihurtu zutena, legedia aplikatu eta kolore guztietako poliziak arduratu ziren husteaz.

Pentsa dezakegu legea aldatzea litzatekeela soluzioa. Hor (ez) dago gakoa hain zuzen! Legedia bera, orokorrago zuzenbide estatua, diru pilaketan oinarritutako kapitalismoa mantentzeko tresna da! Legeak lege izateko ezin du propietate pribatu sakratuaren kontra egin, ezin du bere izatearen arrazoiaren kontra egin.

Gasteizko Zentro Sozialista desalojatzeko agindua emana zegoen irailaren 15erako. Kasu honetan Laboral Kutxaren propietatea, gaur egun antolakuntza politikorako gunea, elikagai eta oinarritzko produktuen biltegia, larrialdi egoeretarako etxebizitza dena. Ezin izan dute oraindik hustu, Zentro Sozialistako kideek egindako presio kanpainari esker. Ikusi beharko da zer gertatzen den halere.

Legearen aplikazio bat edo bestea ere, ikus daitekeenez, kontra egiten zaion indarraren arabera da. Hortaz ari gara ba, gizadiaren ongizatea bermatuko duen errealitate baten eraikuntzaz, edo beste modu batera esanda, langileriaren antolakuntzaz. Ez gara ari han edo hemen okupatutako etxe batez, dena dago jokoan.



LOREA FLORES COMPAINS

Mugikortasun jasangarria guztiontzako

Aurten ere irailaren 16tik 22ra Europako mugikortasunaren astea ospatu da. Administrazioek zein mugikortasunari lotutako enpresek euren aurpegia zuritzeko, aukera paregabe hau baliatu izanen dute mugikortasun jasangarria iragarritz. Baina, Nafarroako mugikortasunean gutxi dago jasangarritik. Gure eskualdean garraio publiko zerbitzuak guztiz eskasak dira. Lesakatik, adibidez, Iruñera joateko autobus bakarra dago egunean, eta Donostiara doan linea, ez da Donostiara ailegatzeko. Zerbitzu hau hobe ez izatearen arrazoietako bat erabiltzaile kopuru txikia omen da, baina zaila da erabiltzaileak igotzea, eskaintako zerbitzua ez bada erakargarria.

Bitartean etengabeak dira medioetan agertzen diren mezuak, administrazioetako kontzientziario kanpainak kotxea gutxiago erabil dezagun. Horrek kontzientzia minimoa daukan edozein eragin handia izan dezake. Hirietan gero eta gehiago dira bizikletaz edo oinez mugitzen direnak. Baina, herrietan bizi garenontzat hurbileko hiriburuetara joan behar dugunean, zaila da gure kontzientziak agintzen digunarekin bat egitea. Pertsonalki kontzientzia arazo handiak izaten ditut Iruñera kotxez joaten naizenean aldaketa klimatikoaren aurkako borrokan lan egiteko.

«MUGIKORTASUNA ERE BADA PAREKIDETASUN KONTU BAT»

Txanponaren bertze aldean Nafarroako Gobernua daukagu. Azken krisialdi honetatik suspertzeko planaren barnean, lurralde kohesiorako planak aurkeztu ditu milioika euroren inbertsioekin batera. Mugi-

kortasunari eta lurralde kohesiorako inbertsiorako lerro nagusietan, hauek topatu ditugu: errepideak zabaltzeko, AHTarentzako edota auto elektrikoak sortzeko inbertsioak. AHTaren inguruan ez du merezi luzatzea, herrietan bizi garenok aspalditik baitakigu proiektu honek ez diola ditugun mugikortasun beharrei erantzunik emanen. Errepideetako inbertsioek zein auto elektrikoari dagozkionak, auto pribatuarekiko dugun dependentzia indartu baino ez dute eginen. Ereduaren aldaketa bat behar dugu, ez erabiltzen ditugun autoek erabiltzen duten energia iturriaren aldaketa simple bat hainbat arrazoiengatik.

Mugikortasun eredu kolektiboek inpaktu gutxiago sortzen dute ingurugiroari dagokiola. Kutsadura gutxiago sortzen da, baina gainera materialen zein energiaren erabilera modu eficienteagoan egiten da. Baina gainera, ezin dugu ahanzi, gaur egun auto propioa gero eta gehiagok izan arren, pribilegio bat dela autoa izan eta mantendu ahal izatea. Pribilegio honek, bertze anitzek bezala, desberdin eragiten die pertsonen, genero, jatorri edo bizitokiaren arabera. Honen adierazle da gure eskualdeko autobusetan erabiltzaile nagusiak emakumeak direla; adin batetik gorako emakumeak edo etorkinak. Beraz mugikortasuna ere bada parekidetasun kontu bat. Aukera berdintasunen alde eta ingurumenaren alde beraz, guztiontzako mugikortasun eredu jasangarri bat behar dugu.

11 GALDERA LABUR

AMAIA MIKELARENA ARIZTEGI OIZKO GAZTEA

«Landetxe batean beti badago zerbait egiteko eta denbora behar da»

Nola aurkeztuko zenuke zeure burua?

Buruan zalantza aunitz dituen 22 urteko oiztarra.

Zein dira zure zaletasunak?

Aunitz gustatzen zait musika, aditza eta baita dantzatzea ere. Trikitixa ere jotzen dut zazpi urtetatik. Honez gain, hagitx gustukoa dut lagunekin gelditzea eta momentu dibertigarriak pasatzea.

Zer ari zara ikasten?

Geografia eta Lurralde Antolakuntza, Gasteizko Unibertsitatean.

Amarekin batera landetxeak kudeatzen dituzu, ezta?

Bai. Ttikitatik bizi izan dut amarekin turismoaren mundua eta aurten ni ere animatu naiz. Denetara lau landetxe ditugu, hiru herritik kilometro eta er-

dira eta nik eramaten dudana herrian bertan.

Nola sortu zitzaizun aukera?

Proiektua orain dela 23 urte hasi zuten nire amak eta osabak. Nik eramaten dudana etxea osabarena zen, bera orain bertze lanetan aritzen da.

Lan handia da?

Etxe batean beti badago zerbait egiteko: etxea noizean behin pintatu, lorategia moztu, etxe-ko dekorazioa eguneratu... eta horrek guztiak denbora behar du eta garrantzitsua da denbora hori eskaintzea. Nire eginbeharra etxea garbitzea da eta edozein informazio behar dutela ematea; zer ikusi, non bazkaldu...

Web orria ere baduzue...

Bai, eta ongi funtzionatzen du, baina noizean behin tar-



tetxo bat eskaini behar zaio: egutegiak eguneratu, argazki berriak igo... azken finean bezeroak etxearekiko duen lehen kontaktua da eta itxura ona ematea garrantzitsua da.

Turismo handia izaten da?

Bai, batez ere Aste Santuan eta udan, eta bere alde onak eta txarrak ditu. Ekonomiaren hazkundea da turismoaren alderdi onetako bat, baina egia da herri ttikietan, kanpotarrez betetzean, guk sortzen dugun giro hori pixka bat galtzen dela.

Turista kopurua erregulatzea beharrezkoa da?

Bai, batez ere ingurugiroa zaintzeko. Orain gainera, Covidarekin, jende-pilaketak ekiditeko balio digu.

Zure asmoak epe motzera?

Ikasten ari naizen gradua akitzea eta gero master bat egitea.

Eta epe luzera?

Bidaiatzea aunitz gustatzen zait eta dirua aurreztu ahala hainbat herrialdetara joatea izanen litzateke nire helburu nagusietako bat.

Bilduma berria

70. urteurrena

urteurrena dela eta, erosketa bakoitzeko opariak banatuko ditugu

1951tik

Casa Cambra

lentzeria-etxea

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

Albornozak

Mantelak

Kuxinak

Edredoi nordikoak

Ohe estalkiak

Maindireak

Toailak

Edredoi-azal nordikoak



IRAKURLEAK MINTZO

Pertsonak

JOSEBA ALEMAN IRIGOIEN

Ezagutzen nauenak badaki besta gustuko dudala. Badaude besta absurdoak eta pobreak, baina badira besta aberatsak ere, jende eta elkarrizketa aberasgarritz beteak. Besta batetik eta honen ondoko hausnarketatik atera da artikulu hau.

Lehen Hezkuntzako irakaslea banaiz ere, Bigarren Hezkuntzakoei zuzenduago doa, zenbait irakasleri 'erasoa' edo irakaspena, beraiek erabaki behar nondik hartu nahi duten edo hartarako prest dauden. Ikasleei balorazioa, beti. Pentsatzen dut, irakaskuntza-ikaskuntza mundutik kanpo dagoen edonork ere baduela zer edan eta emanen diola zer pentsatu.

Badira 17 urte selektibitatea pasatu nuela. Ongi oroitzen dut Batxilergo hasiera, etengabeko presioa, «beldurra- ren politika» ikasleak... motibatzeke? Selektibitateak munduaren bukaera zirudien. Jakin dudanez berdin jarraitzen dute 17 urte beranduago, irailaren 18an, saiatua eta langilea den ikasle bat erabat itota, bere buruarekiko konfiantza zalantzan eta balantzan. Gauza bat da oinak lurrean jarri behar izatea Yupiren Munduetan dabilenari, bertze bat eta arras desberdina dena, lurrean dagoena zapaltzea eta zanpatzea. Uste dut irakasle on batek pertsona ona izan behar duela. Itsu-itsuan fidatzea ez da ona segur aski, baina kurtsoa ikasleekiko mesfidantzatik abiatzen badugu, gaizki hasi gara. Irakaslea izan behar da bere ikasleetan eta dituzten gaitasunetan sinetsi behar duen lehena, berak sinetsen ez badu nola sinetsiko dute bada beraien buruan ikasleek? Dauden adin konplikatu horretan gainera, zeinean

beldurak eta zalantzak beraien eguneroko ogia diren. Eskola porrota ikasleei egozte da errazena, irakasle bezala norbere porrota onartzea baino dezente errazago. Irakasle zenbaitzuen egoak jaitsi behar ikasleei hegoak emateko, hegan egin dezaten. Egon trankil Izaro, zuk balio duzu.

Ez naiz inondik ere biolentzia zalea baina Maiteri duela zenbait urte «Ez zara bizitzan deus izatera ailegatuko» erranzion «irakasleari» gustura ostikoa muturrean... Bi kurtsoan zuregan deus ere aurkitu ez zuen «pertsona» hori ez dakit nora begira egon zen, nik urrea aurkitu nuen ordubete eskasean, eta noski izatera iritsi zarela, pertsona handia eta langile fina ziur! A... Pertsonekin lan egiten duzula zuk ere, eta pertsonekin lan egiteko pertsona izan behar.

Deitzen ez nauten lekuan sartzen naiz batzuetan, intentzio txarrik gabe baina trakets 'txintxatzeko' helburu soilarekin, eta esaldi soil batekin erasoa izan duela sentitzen du Maiderrek, eta oihuka erantzuten dit defentsiban jarrita. Negar eginarazten diot Rakeli... Barkamena eskatzen dizuet bertze behin. Norbere buruarekiko konfiantza landuago balego arras bertzelakoa izanen litzake erantzuna eta mutu utziko nindukete erraz, nire baldarkeriaren ebidentzian.

Etengabeko *output*ean dabilenak ez du *input*erako astirik hartzen eta *input*a aberastasuna da. Entzun dezagun, beha dezagun, dasta dezagun... hausnartu jasotako horren guztiaren inguruan, eta segur aski gure *output*aren kalitatea dezente hobetuko da.

Eskerrak badatozen belaunaldi berriak, eta hor dabilta Garazi, Aina-ra... ikasleekiko konfiantzatik abiatzen, beraiekin konektatzen, eta oinarri

sendo bat eraiki ondotik curriculumeko edukiak irakasten saiatzen. Orduan bai, orduan ikasi ahalko dute garapen prozesuan dauden burutxo horiek.

Irakasle izan aitzinetik, izan gaitezen pertsona beraz. Osasungintza mundua ez dut sobera ezagutzen baina nahiko hierarkikoa dela entzun izan dut. Medikuek erizainek baino formazio gehiago izanen dute, baina erietxea bezalako leku hotz, astun... batean, Olaiaren irribarrea eta epeltasuna aurkitzea arras lagungarria da. Ni ez naiz ama izanen, baina bizitzako prozesu eta momentu garrantzitsu horretan, haurdunaldian zehar eta erditzean, Ixabelen akonpaimendua arras garrantzitsua ziur. Eta garagardoa aunitzez goxoago zerbitzariaren irribarreak lagundua denean! (eta musukoak irribarreak ikusteko aukera kendu digula, begietan ere irakurtzen dira irribarreak). Pertsonak pertsonekin lanean.

Eta luze doa artikulua, baina paragrafo bat gehitu behar izan diot, sorpresa polita aurkitu baitut ustekabean, kontzienteki bilatu gabe. Gehienak ohartuko zineten dagoeneko. Hainbat pertsona aipatu ditut idatzian zehar, denak hezur-haragizkoak dira, ez dago fantasiarik. Eta halaxe da bai, denak Emakumeak. Zenbat gelditzen zaigun ikasteko, zenbat baloratzeko. Bide batez, milesker ama nire alde emozionala hain goxoki lantzeagatik.

IRAKURLEAK MINTZO

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA

info@ttipi.eus



948 63 54 58

HEMEROTEKA



«Etxalarko alkate hautatu ninduten, eta, denbora hartan, 300 milioi pezeta sartu ziren Etxalarren (...) Ni independente nintzen, hori erraten ahal dut. Baina antieuskalduntzat tratatu ninduten, *antivasca* erraten zuten. Zertaz, ordea? Zerengatik ez nintzen eurek nahi zuten bezalako euskalduna! Nahi zuten aunitz gauza, baina niri ez zitzaidan posible iruditzen. Erraten nien: 'Ni *antivasca*? Horregatik dituzten nire seme-alabek halako izenak! Lorea, Aitor eta Amagoia! Ezetz jakin zuek nondik heldu diren izen horiek!', haiek ez baitzekiten Navarro Villosladaren *Amaya o los vascos en el siglo VIII* liburutik hartuak nituela. 'Zuek ez zarete euskaldunak ez deus!', erraten nien nik ere».

TERESA SAROBE | LEHEN
ALKATE ANDREA NAFARROAN
ARGIA | 2021.09.19



«Ni beti ari naiz zerbait sortzen, inprobisatzen, eta gustuko ditudan ideiak, *riffak*, melodiak grabatzen. Beraz, banuen karpeta bat ideia batzuekin eta hori berrikusten hasi nintzen. Hala, konfinamenduko lehen hilabeteen kantuei forma ematen hasi nintzen eta aspaldiko partez maketatzen; aldi berean, taldekideak abisatu nituen lanean ari nintzela jakin zezaten. Gero, iazko udan, uztail aldera lokalean gelditzen hasi ginen, hilean behin elkartzeko ginen eta nire maketa haiek talde formatuan landu genituen. Inoiz ez bezala landu genituen abestiak lokalean (...) Taldearekin elkartzean kide bakoitzak bere pertsonalitatea ematen dio eta kantuak aunitz hazten dira».

JOSEBA IRAZOKI
BERAKO MUSIKARIA
BADOK.EUS | 2021.09.21

BOTA BERTSOA

LIDE IGOA FONTAN

LESAKAKO BERTSOLARIA
BAZTAN-BIDASOKO BERTSOPAPER
LEHIAKETAN C MAILAN 1. SARIA

Ligatzea Covid-19 garaian

Doinua: Beroiarena



*Txinako xaguxarra
ez al da mitoa?
azkar bilakatu zen
pandemikoa
musukoa eta gel
hidroalkoholikoa
gazte ligoteoan
garai tragikoa
gustuko tipoa
gainera herrikoa
une magikoa
aukera nahikoa?
lehen murrizta ta orain
atomikoa.*

*Etiketikan ligatzen
nolako mobida
mezu romantikotan
bortzehun giga
egoerak eman du
hamazazpi bira
eskerrak aldatu den
orain perspektiba
urrundik dizdira
begira, begira,
batzeko desira
ausartu, aski da!
hurbildu gara baina
metro terdira.*

*Eskaera ohikoa
emaidazu sua
zure erantzunean
paradisua
baitzaren plazera
ezaren izua
sentituko ote du
berak berdintsua
romantze kutsua
ze giro urtsua
asmo indartsua
aurrera pausua
musukoa kenduta
eman musua.*

*Muxu hotza izan da
ez al nau atsegin?
alferrik izan dira
hainbat ahalegin
nahiz nuen erregutu
hau pasa ez zedin
hara zer pasa zaidan
lige aukerekin
gabonetan ekin
inauterietan min
astesantun ezin
kintoetan berdin
etor zaitez mesedez
aurten sanfermin!*

GOITI ETA BEHEITI



LEITZAKO UDALA

Kalteak Leitzan



Zabu bat falta, seinalea errekan, zikinkeria nonahi...
Leitzako Udalak egindako
«kalteak» salatu zituen.



ANA GALAR ARIZTEGI



Jose Manuel Iñarrea Rekarte abuztuaren 23an Alpeetan, Monte Rosa mendia gibelean duela, hango aterpera bidean.

«Badago arriskua baina egiten ari naizenak asebetetzen nau»

JOSE MANUEL IÑARREA REKARTE ERRATZUKO MENDIZALEA

Mendizaletasuna erronka solidario bihurtuta, Draveten gaixotasuna ikusgai egiteko munduko tontorrik adierazgarrienak igotzen ari da erratzuarra. Bertzeak bertze, Europako Mendietan, Pirinioetan, Alpeetan eta Andeetan ibili da, eta Kilimanjaro eta Everest ditu begiz joak

G. PIKABEA | ERRATZU

Maite du mendia, «betitik» gustatu izan zaio, bertzeak bertze, «libertatea eta zoriontasuna» sentitzen dituelako. Azken bi urteotan, ordea, Laukizen (Bizkaia) bizi den Jose Manuel Iñarrea Rekarte (Erratzu, 1970) haratago eramán du bere zaletasuna, eta mendia erronka solidario bat egiteko aitzakia baino ez du bihurtu. Bere afizioa muturreraino eramanez, Draveten sindromea ikusgai egiteko munduko mendirik adierazgarrienak igotzeko erronkari heldu dio.

Noiztik duzu mendirako afizioa? Afizioa betitik izan dut, baina orain dela zazpi-zortzi urte,

Llanesen (Asturias) etxe bat erosi genuenean, mendi altuetara joaten hasi nintzen. Umeek gero eta denbora libre gehiago uzten zidaten eta Europako Mendietan hasi nintzen. Hango tontorrik zailena den Peña Santa de Castilla (Kantabria, 2.596 m) igo nuen eta geroztik mendi altuetan nabil.

Draveten sindromea ikusgarritasuna emateko mendiz mendi zabilta...

Europako Mendietara eta Pirinioetara joaten nintzenean, jendeak banderekin tontorretan argazkiak ateratzen zituela ikusten nuen. Aldi berean, kuadrillako bikote baten alabak Draveten gaitza du, eta bazka-

ri batean eritasun horri ikusgarritasuna emateko zerbait egin behar genuela aipatu nien. Hala hasi nintzen Apoyo Dravet elkartearen bandera mendi tontorretara eramaten. Hasi hartan, Euskal Herriko eta Espainiako mendietan ibili nintzen, Europako Mendietan, Pirinioetan, Sierra Nevadan, Teiden (3.718 m)... 2019an erronka handiagoak egitea erabaki nuen, elkarteari argitasun gehiago emateko. **Zer kontatuko zeniguke Draveten sindromeaz?**

Jende aunitzek du epilepsia, eta epilepsia kasuetan larriena da Draveten sindromea, gaixotasun arrarotzat hartua.

Umeak arazorik gabe sortzen dira, baina hilabete batzuen buruan epilepsia atakeekin hasten dira, eta atake horietako bakoitzean buruko neuronak galtzen dituzte. Horrek garapen kognitiboa gibelatzen du, eta handitu ahal, ume gehienak hil egiten dira. Ez dute bizitza normala egiten ahal, eta ez da erraza. Hain zuzen, horretan laguntzeko sortu zuten Apoyo Dravet elkarte, Draveten sindromea, epilepsia, alzheimerra, ELA eta bertze esklerosiak... ikertzeko; gaitz neurologikoak sendatzeko edo gutienez bizi-modu hobea izan dezaten laguntzeko. Horri ikusgarritasuna emateko mendirik altuenetara igo eta elkartearen banderarekin argazkiak ateratzen hasi nintzen, gero ahal den moduan zabaldu eta proiektuari bulkada emateko. Jendeak zein gaixotasun arraro dauden ezagutzea nahi dugu, eta ikerketarako dirua biltzea.

Halako gaixotasunen alde oraindik aunitz egin behar da?

Bai, ia dena. Gure lagunen alabaren kasuan, aita medikua eta ama erizaina da, eta umea ikerketarako akurria da. Industria farmazeutiko handiek ez dute zango bat ere mugitzen, gaixotasun arraroak dira eta kasu aunitzik ez badago ez da errentagarria, eta ez dira ikerketan aitzinatzen saiatzen. Bakoitza bere aldetik ari da, umeekin probak eginez. Lan guztia egin gabe dago.

Hurbileko mendietan hasi zinen, eta 2019tik mendi altuenetan...

2019an erabaki nuen mendi altuak egitea, horrek ematen duelako ikusgarritasuna. 2019ko uztailean Mont Blanc (Frantzia-Italia, Alpeak, 4.808 m) igo nuen eta arras esperientzia polita izan zen. 2020ko otsailean, Aconcaguara (Argentina, Andeak, 6.961 m) joan nintzen. Mendi altua da eta sufritu nuen baina polita izan zen eta gustura gelditu nintzen. Hirugarrena Kilimanjarora (Tanzania, 5.885 m) egitekoa nuen, Afrikako mendirik altuenetara, baina ezin izan nuen. Aconcagua-



Iñarrea abuztu hondarrean Alpeetan ibili zen; abuztuaren 26an Cervino mendira igo zen.

tik konfinamendua hasi baino egun batzuk lehenago bueltatu nintzen, eta Covid-19agatik Kilimanjarora joan ezinik gelditu nintzen. Horren partez, Pirinioetan bertze erronka handi bat egitea erabaki nuen, Frantzia aldetik, Vignemalera (Frantzia-Espainia, 3.298 m) igo nintzen eta bertze aldetik jautsi. 20 ordu pasatu nituen mendian, eta biharamunean Anetora (Espainia, Pirinioak, 3.404 m) eta Maladetara (Espainia, Pirinioak, 3.312 m) joan nintzen. Biak segidan igo nituen, nire banderarekin.

Eta aurten Alpeetan ibili zara...

Azken momentura arte, Kilimanjarora joateko bidaia antolatzen saiatu naiz, baina bi arrazoiengatik ezin izan dut. Batetik, Afrikan ez dagoelako Covid-19a kontrolatua, eta bertzetik, mendealdeko jendearendako arrisku toki delako, David Beriain kazetariari gertatu zitzaiona hor dago... Kasu eman behar da, baina heldu den urtean joanen naiz.

Aurten Alpeetara joan naiz, eta Monte Rosa (Suitza, Alpeak, 4.634 m) eta Cervino (Italia-Suitza, Alpeak, 4.778 m) igo ditut. Monte Rosaren azpian Europako glaziarrik handiena dago, eta azken txanpa arras bertikala eta zaila da, baina aldi berean arras mendi polita da, bista xarmantekin. Egun hartan ia 18 orduz segidan mendian ibili nintzen. Biharamunean, Cervinoko aterpera joan eta hurrengo egunean Cervinora igo nintzen, Alpeetako mendirik ikusgarrienetako eta ezagunetako batera. Bertzeak bertze. Toblerone txokolatearen edo Paramount zinema konpainiaren irudia delako da ezaguna. Gailurra egiteko ehun bat metro falta

zirela, nire aitzinean bide-erakuslearekin zihoan mendizale bat erortzen ikusi nuen. Arras mendi bertikala eta teknikoa da, harat segur joan behar da, eta mendizale hura sokarekin lotuta zegoen arren, pausoa galdu eta hantxe joan zen, soka akitu zenean, paretaren kontra. Azken ehun metroak zangoa eta pioleta non paratzen nuen kasu eginez ibili nintzen. Azkenean igo nintzen eta banderatoa atera nuenean arras kontent gelditu nintzen.

Helburua gaitza ikusgarri egitea duzu. Lortzen ari zara?

Bai, sare sozialetan, egunkarietan, aldizkarietan eta irratietan harrera ona izan dugu eta horrek segitzeko indarra ematen dit. Orain dela bi urte,

Apoyo Dravet elkartearen interes publikoko entitate izendatu zuten eta beraz, donazioak egin daitezke, bai entitate publikoek, bai enpresa pribatuek baita partikularrek ere, eta gero eta gehiago ari dira gainera. Iaz estatu mailan ikerketara bideratutako elkarerik onenaren saria eman zioten. Auditoria argia egiten du, biltzen den euro bakoitza ikerketarako bideratzen duela erakusteko. Ikusgarri eginez diru gehiago biltzen da eta horri esker, mantso-mantso, baina aitzinatzen ari dira. Botika bat ere ateratu dute, eta Alzheimerraren gaitzarendako emaitza onak ematen ari da. Garbi dago ikerketan segitu behar dela.

Arriskua aipatu duzu, baina kontent zaude egiten ari zarenarekin?

Bai, mendi hauetan bada arriskua, baina egiten ari naizenak asebetetzen nau, eta horretan segitu nahi dut. Gaixotasun hau sendatzen laguntzeko nire ekarpena egin ahal izatea, niretako handia da. Eta gai →

**«GURE AFIZIOEKIN
GAIXOTASUNEI
IKUSGARRITASUNA
EMATEN DIEGU»**

**«EROSO BIZI NAHI
DUGU BAINA IGUAL
LAGUNTZA BEHAR
DU BARRIDEAK»**

nera, mendi tontorretara igo-tzean libertatea, poztasuna... sentitzen ditut, neure burua-ekin gustura sentitzen naiz.

Gogorra da bakarrik ibiltzea?

Ez, ez da gogorra. Arras ateraldi luzeak dira eta 15-16 orduz mendian ibiltzeko prest dagoen jendea harrapatzea ez da erraza, horregatik ibiltzen naiz bakarrik. Hala ere, Alpeetan, aitzinago edo gibelago, beti izaten da norbait. Europako Mendietan, neguan ibiltzen naizenean, aunitzetan bakarrik izaten naiz, baina non nagoen markatzen dut.

Ordu aunitz dira bakarrik... Zer pasatzen zaizu burutik?

Gauza aunitz. Lanari, bizimoduari... errepasso handia ematen diot. Pentsatzeko denbora aunitz izaten da, eta munduko arazo guztiak hamar aldiz moldatzen dituzu... [Irriz].

Halako mendiek prestaketa handia eskatuko dute...

Mendi altu bat igo behar dudanean, neguan, Pirinioetara eta Europako Mendietara joaten naiz, horma gainean krampoekin ohitzeko, eta nire gorputza tenperatura hotzetara jartzeko. Posible ez dudanean, etxean beti izaten dut zer egin, baratzea dela, belarra dela... Ez naiz geldirik egoten, eta oraingo, sofán telebistari begira egoteko asmorikez daukat. Mendiko bizikletarekin ere aunitz ibiltzen naiz.

Nola prestatzen dituzu ateraldiak?

Liburuetan eta Interneten leitu, edo bertara deituz. Aconcagua igo nuenean, adibidez, Mendozara aunitz aldiz deitu nuen zer eraman behar nuen jakiteko. Batzuetan baimenak eskatzen dituzte eta... Gisa honetara gibelatu nuen Alpeetako bidaia, aitzinetik eguraldi txarra zela jakin nuelako. Normalean uztaila hilabete ona izaten da, egunak luzeagoak direlako, baina aurten arras denbora txarra eragin duenez, abuztu hondarrera gibelatu nuen, eta zortea izan nuen. Bide-erakusle bat hartuz gero, hark bidaia guztia antolatzen du, baina mendia arras indus-



Joan den abuztuaren 24an Suitzako mendirik altuena igo zuen Iñarreak, Monte Rosa.

triala jarria da eta erakusle batek 1.500-2.000 euro eta bere gastuak aparte kobratzen ditu, eta Cervinon ikusi nuen ez, erakuslea izateak ez du bermatzen bizirik aterako zarenik. Nahiago dut nire gisara ibili.

Zure sakelatik ordaintzen dituzu gastuak?

Bai, bai, nire afizioa da. Gastu hauek Apoyo Dravetek ordaintzeak ez luke zentzurik izanen. Donazioak biltzea ere zaila izaten da... Bide-erakusleak ere ez ditut hartzen, eta alde batetik eta bertzetik, pixka bat aurrezten saiatzen naiz.

Hurrengo erronka heldu den urtean Andeetara joatea duzu, Huascarán Peruko mendirik altuena igotzera...

Bai, otsailean Huascarán (6.768 m) igo nahi dut. Perura joateko gonbidapena egin didate eta mendira joateko eta banderra ateratzeko probestuko dut.

Eta Kilimanjarora noiz?

Heldu den urteko udan, egokiena ekainean edo uztailean izanen litzateke. Teknika aldetik errazagoa da, baina luzea.

Ameriketako altuena igo dut, Aconcagua, eta Afrikako mendirik altuena igotzea bertze pauso bat izanen litzateke Draveten gaitzarendako.

Everest ere begiz joa duzu...

Badut asmoa, bai. Baina horretarako talderen batekin elkartu beharko nuke. Aconcagua igo nuenean, Ipar Ameriketako enpresa bateko komertzial arduraduna ezagutu nuen Txileko aireportuan. Nire erronka gustatu zitzaion eta Everestera (Himalaia, 8.849 m) beraien marka igotzen banuen lagunduko zidala erran zidan. Everestera igotzea garestia da eta dirua biltzeaz gain, teknika aldetik hobetu behar dut. Mantso-mantso antolatzen ari naiz eta bi urteko epea emana diot neure buruari, 2023an igo nahi nuke. Elkartaren bandera Everestera, munduko mendirik altuenera, eramatea sekulako bulkada izanen litzateke.

Gero eta ohikoago bihurtzen ari dira kirol erronkak solidarioak. Beharrezkoak iruditzen zaizkizu?

Gero eta gehiago dira eta bide ona dela uste dut, gure afizioekin gaixotasunei ikusgarritasuna ematen diegulako. Gisa honetara jendeak dena ez dela Covid-19a edo minbizia ikusten du, badirela bertze gaitz arraro aunitz, ikerketarako laguntzarik gabe daudenak. Halako erronkek merezi dute. Mont Blancera igo nintzenean bi gauza erran zizkidaten. Batetik, ez zutela ideiarik ere mendi altuetan ibiltzen nintzenik, eta bertzetik, ez zutela gaixotasun arraro hori ezagutzen. Horrek erakusten segitzeko indarra ematen du. Denok bizitza eroso nahi dugu, konplikaziorik gabea, lasaia, eta kontent bizi nahi dugu, lan onarekin, ongi hezitako umeekin, ikasle onak diren seme-alabekin... Baina barrideak gaixotasun bat izan dezake eta gertaliteke laguntza behar izatea. Sobera bakarrik bizi gara, bakoitzak berea egiten du eta kito. Elkartasun gehiago behar dugu, elkarri gehiago lagundu.

Emakume bertsolarien bidea bilduz eta zabalduz

Nafarroako lehengo eta oraingo emakume bertsolarien bertso idatzia bilduz diskoa argitaratu du Nafarroako Bertsozale Elkartek. Hori aitzakiatzat hartuta, disko horretan parte hartu duten eskualdeko hainbat bertsolarirekin bildu da TTIPI-TTAPA

G. PIKABEA

Gure aldetara. Nafarroako emakume bertsolariak. Halaxe du izena Nafarroako emakume bertsolarien ahotsak eta bertso sortak bilduz Nafarroako Bertsozale Elkartek argitaratu duen diskoak. Bi helburu nagusirekin egin dute: batetik, Nafarroako kulturaren ondare diren bertso-sorta idatziei bulkada emateko, horiek biltzeko eta ikusgarri egiteko, eta bertzetik, Nafarroako emakume bertsolariei ahotsa emateko, eta bide batez, elkarren arteko sarea sendotzeko.

Ez da hutsetik sortutako proiektua izan. 2019an, Lesakan, Nafarroako bertso munduko emakumeen lehenbiziko topaketa egin zutenean erein zuten hazia. Diskoaren ideia, hala ere, «konfinamenduaren

fruitua» izan omen da: «Covid 19arekin, topaketari ezin genion segidarik eman, eta disko bat grabatzeko ideia gogoratu zitzaigun. Bertsolariek harrera bikaina egin zioten proposamenari». Hala azaldu digu Irati Majuelo eta Joana Zigan-darekin batera koordinazioaz eta grabaketaz arduratu den Alazne Untxalo (Ituren, 1989).

Aniztasunaren eta historia

14 kanta ditu diskoak, banaka zein taldean kantatuak, ahots hutsez edota musikaz lagunduta, «ikuspegi feministatik» landutako gaiekin eta doinuen «aniztasunarekin». Baina denek bertsoa dute oinarri. «Nafarroako lehengo eta oraingo emakume bertsolarien bertso idatzien bilduma da», gaineratu du iturendarrak.

Gisa honetara hutsune bat estali nahi izan dute: «gure aitzineko belaunaldietako emakume bertsolarien sorta gutti ailegatu zaizkigu. Gure bertso idatzia grabatu eta biltzea beharrezkoa zela iruditu zitzaigun, ikusgarritasuna emateaz gain, gure lanari garrantzia emateko». Aldi berean, «auzolanean egindako diskoa izan da, eta gure arteko harremanak sendotzeko balio izan du».

Ekainean argitaratu zuten eta geroztik hainbat aurkezpen egin dituzte, «giro goxoa eta hurbila lehenetsiz». Horretarako «gai-jartzaileen ezinbertzeko laguntza» ere eskertu nahi izan du: «Alaitz, Rekondo (Lesaka, 1980), Maialen Belarra (Doneztebe, 1992), Haizea Beruete (Iruñea) eta Ainhoa Larretxearena (Bera, 1996)».

Luzia Goñi eta Estitxu Arozena

Historiari keinu eginez, joan den urtean hil zen Luzia Goñi (Aizarotz, 1928) bertsolaria gogoan izan dute. Bera izan zen plazetan kantari ibili zen lehendabiziko emakumeetako bat; Untxaloren hitzetan, «Nafarroako plazetan belaunaldi hartako erreferente bakarra». Diskoko azken kanta bere bertso bat da, eta ez dute edozein aukeratu ahotsa paratzeko: Estitxu Arozena. «Estitxuk badu bere lekua bertsolaritzaren historian. Gutako aunitzen bertso eskolako irakaslea izan da, eta lehenbiziko emakume bertsolari txapelduna. Luziaren bertsoa berak kantatzea sinbolikoki ederra da».

Baliabide pedagogikoa

Diskoa Nafarroako Bertsozale Elkartean, Lesakako Arranon, Erratzuko Altxuko dendan eta Iruñeko Karrikirin eros daiteke. Baina hortik harago, «Nafarroako emakume bertsolariak eza gutzeko» ez ezik, Hezkuntza Arautuko bertsolaritza programan eta bertso eskoletan erabili nahi dute material pedagogikotzat: «Hartara, gaur egungo umeek eta gazteek erreferente berriak izanen dituzte, emakumezkoak eta nafarrak».

«Ni bertsotan hasi nintzenean ez zegoen orain dagoen ahizpatasuna»

«Nafarroako bertso eskolen mugimendua sortu zenean» eman zituen bertso munduko «lehenbiziko pausoak» Estitxu Fernandezek (Lesaka, 1975). 19 urterekin Nafarroako Bertsolari Txapelketan eman zuen izena eta «zortzi bat txapelketetan parte hartu nuen, lauzpaborts finaleran izan nintzen, Euskal Herriko txapelketa batera sailkatu nintzen eta bolada batez saio dezente egin nituen». Baina «25-26 urterekin» plazan kantatzeari utzi zion, «ez nengoelako eroso». Geroztik «seguru sentitu naizen espazioetan» kantatu du. Begi onez

ikusten du Nafarroako emakume bertsolariak bildu izana, «Nafarroan ere bertsogintza existitzen dela eta emakumeak bertso munduan existitzen garela ikusarazteko». Bera bertsotan hasi zenetik egoera aldatu dela onartu du, «bertso eskoletan inoiz baino neska gehiago daude». Baina ez da dena aldatu: «Gure presentzia ez da horren nabarmena saioetan». Hainbat galdera interesgarri ere jarri ditu mahai gainean: «adin batean emakumeak zergatik uzten duen plaza, zergatik ez garen ausartzen ohol-tzan kantatzera nahiz eta bertso



Estitxu Fernandez Maritxalar «dena iraultzeko» beharraz aritu da.

eskoletan bertsotan ari, zergatik ez den plaza oraindik espazio segurua... Orain dela 20 urteko galderak dira». Hala, egoerari «buelta emateaz» mintzo da eta bertsogintzan jarria du itxarope-

na: «aldaketa pozgarriak bertso mundutik heldu zaizkit». Nafarroako emakume bertsolariak ere «indartsu» ikusten ditu: «Gu hasi ginenean sentitu ez nuen ahizpatasuna ikusten da orain».



Estitxu Arotzena Albitzu txapela jantzi duen lehen emakume bertsolaria da.

«Azken Nafarroako finalek ez dute bertsolaritzaren errealitatea islatzen»

«Bertso eskoletako ikasle kopuruan emakumeak gehiago diren arren, bat-bateko bertsogintzan plazera lortzen dutenak ez dira aunitz». Badaki zertaz ari den Estitxu Arotzenak (Mutriku, 1975), «20 urtez txapelketetan eta saioz saio» ibili delako eta «23-24 urte nituenetik bertsolaritzaren irakasle». Bera da bertsotan txapela jantzi duen lehen emakumea. Azken Nafarroako finaletan, ordea, gizonetakoak bakarrik aritu dira eta bere ustez, «horrek ez du islatzen errealitatea»: «Nafarroako emakume bertsolarien kopurua eta maila inoiz baino handiagoa da». Baina «dena ez da hain polita»: «Plazaratzeko zailtasunak ditugu». Hortaz, «oztopoak identifikatzen eta horiek gainditzeko tresnak bilatzen segitzearen beharra» aipatu du. «Orain plazaz plaza dabilen taldearen urteetako energiak ondorengoei bidea erraztuko die».



Erika Lagoma Pombar urriaren 9an Nafarroako txapelketan ariko da.

«Ezinbertzekoa da bidea elkarrekin egitea eta elkar zaintzea»

«Arrazoi aunitz» tarteko utzi zion plazetan kantatzeari Erika Lagomak (Lesaka, 1981), tartean «sufritzen» zuelako. «Baina plazatik kanpo ere ez nintzen gustura, falta nuen, eta horregatik egin nion neure buruari 40 urterekin bueltatzeko promesa». Erran eta egin, plazaz plazako bidea berrartu du. Ez hori bakarrik, ate joka den Nafarroako Bertsolari Txapelketan ere parte hartuko du. «Lanerako gogoz» ikusi dugu, baina baita «txapelketak sortzen duen ikararekin» ere. Hortik harago, «hagitz garrantzitsua» iruditzen zaio Nafarroako emakume bertsolariak biltzeko eman duten pausoa. «Plazan emakumeak % 20 gara, eta Nafarroako txapelketan 24 bertsolarietatik sei. Ezinbertzekoa da bidea elkarrekin egitea, elkar zaintzea. Gazteagoa nintzenean, nik ez nuen emakume talde hori izan».



Ekhiñe Zapiain Arlegik bere lehen Nafarroako txapelketa jokatu du.

«Nafarroako emakume bertsolarien sarean parte hartzea babesa izan da»

«Ttikitan attak kantatzen zizkidan bertsoak adituz» bertsozale egin zen Ekhiñe Zapiainentzat (Bera, 2002) urte berezia izanen da aurtengoa, lehenbizikoz Nafarroako Bertsolari Txapelketan ariko baita. Beretzat «plaza berria» izanen denez, «gustuko dudana edo ez» ikusi nahi du, «inongo presiorik gabe», «probatzea» duelako helburu, eta «saiatzea gauza ederra» delako. Bertsoari lotuta «azken bi urteetan aldaketa handia» izan duela ere aitortu du: «Eskolartekoan kantatzeari utzi eta bertze plazaz ezagutzeko aukera izan dut. Trantsizio horretan nago». Bide horretan Nafarroako emakume bertsolariak biltzea «arloan aunitzetan lagungarri» egin zaio: «Norbaiten babesa sentitzea beti da mesede, eta kasu honetan Nafarroako emakume bertsolarien sarearen parte izatea babesa izan da».



Iratxe Muxika Karrionek bera «bertso eskolan geldituko dela» dio.

«Nafarroako emakume bertsolariek oraindik aunitz dute kantatzeko»

«Plazetan kantatzeko pausoa ez dut inoiz eman. Ni bertso eskolan geldituko naiz». Irri artean, hala aitortu du Iratxe Muxikak (Lesaka, 2002). Bederatzi urterekin hasi zen bertso eskolan, baina plazarako pausoa ez du eman. Halere, Nafarroako eskolartekoan parte hartutakoa da eta lagunartean bertsotan ere behin baino gehiagotan ibilitakoa. Diskoan ere parte hartu du, eta «aberatsa, freskoa, berezia eta hagitz polita» gelditu dela dio. Nafarroako emakume bertsolariak bildu izana «beharrezkoa bezain baliotsua» iruditzen zaio; «Hagitz mugimendu polita da». Kopurua aldetik «gutti» direlakoan dago, baina daudenak «bai onak!». Gainera, «gero eta indar handiagoa» dutela uste du: «Nafarroako emakume bertsolariek aunitz eman eta erakutsi digute eta oraindik aunitz dute kantatzeko».



Alazne Untxalo Erregerena diskoaren koordinazioaz arduratu da.

«Bakoitza bere modura baina guztiak gara bertsolariak»

Iturengo bertso eskolan murgildu zen bertso munduan Alazne Untxalo (Ituren, 1989), eta geroztik haria eten gabe segitu du, plazaz plaza eta txapelketaz txapelketa. «17 urte nituenetik, behin izan ezik, Nafarroako Bertsolari Txapelketan parte hartu dut, baita Baroak taldekako bertso ekimenean ere». Aurten-go txapelketan ere ariko da eta «ilusioz» dago. Baikor mintzo da Nafarroako emakume bertsolarien egoeraz: «Gero eta gehiago gara. Badira plaza utzi dutenak, bueltan etorritakoak, plazara salto egin ez dutenak... Guztiak gara bertsolariak». Bide beretik ikusten du etorkizuna: «Nafarroako bertsolaritzak badu etorkizuna, bertsolariak badaude eta badatoz» eta bide horren parte izaten segitu nahi du, «kantatzeko plaza erosoak sortuz eta bertsolaritza hainbat modutan bizi daitekeela sinetsiz».



Maddi Ane Txoperena Iribarren berriz itzuli da plazetara. BOB EDMÉ

«Emakume bertsolariak biltzea ezinbertzekoa da biziraupenerako»

Kristine ahizparen pausoei segika hasi zen Maddi Ane Txoperena (Lesaka, 1994) bertso eskolan, zortzi bat urterekin. 2011n eskolarteko txapelketa irabazteak «gazte sariketa aunitzetan» kantatzeko aukera eman zion, baina 19-20 urterekin, plazakoa uztea erabaki zuen: «ez nengoen eroso». 2018an itzuli zen, eta orain, «inoiz baino gusturago» ari da. Diskoan parte hartzea «opari ederra» izan dela dio eta «ahizparekin kantatzeak ilusio berezia» egin dio. Emakume bertsolariak biltzea «ezinbertzeko-tzat» jo du: «biziraupenerako zein osasunerako. Espazio publikoa ez da emakumeona izan historikoki, eta oraindik lan handia egin behar dugu. Horri nafar izatearena gehitu behar zaio. Nik ez dut nahi emakumea, gaztea eta nafarra (edo Iparraldekoa) naizelako deitzea. Nik Maddi Ane naizelako deitzea nahi dut».



Lide Igoa Fontanek noizbait plazaren batean kantatu nahi luke.

«Horrelako proiektuek bide aunitz irekiko dituzte»

Bederatzi-hamar urte zituenetik dabil bertso munduan Lide Igoa (Lesaka, 2003). «Urteotan aunitz ikasi» duela dio baina «ez naiz gai izan inoiz plazetan kantatzeko. Noizbait plazaren batean kantatzea gustatuko litzaidake, baina lotsa ematen dit». Gure aldetara diskoan parte hartu du eta «gogo handiz egini-ko lan polita» dela azaldu du. Bere hitzetan, Nafarroako emakume bertsolariek «ez dute plazetan leku aunitzik» eta «lan gogorra eta luzea» egin beharko dela uste du, baina «pixkanaka leku gehiago hartzen ari dira». Horretarako, «beharrezkoa» iruditzen zaio elkartzea, «bai gure artean gehiago ezagutzeko, baita Nafarroako emakume bertsolariak gehiago ezagutarazteko ere. Diskoa bezalako proiektuek eta diskoaren inguruan sortutako bertso saioek bide aunitz irekiko dituzte».



Ninbe Urtxegi Urrari lagungarria egin zaio emakume bertsolariak biltzea.

«Bertsolaritza bizitzeko hainbat modu daude»

«Emakumeen artean bertsotan ongi ibiltzen direnek bakarrik bukatzen dute plazetan». Hori uste du Ninbe Urtxegik (Igantzi, 2003). Lehen Hezkuntzako laugarren mailan hasi zen bertso eskolan, «lehenbizi Igantzian eta gero Lesakan», eta plazetan ez bada ere, bertsolaritzari lotuta segitu du. Nafarroako emakume bertsolarien lantaldean ere sartua da, eta lagungarri egin zaio: «Ez dut inoiz plazan kantatu, orain ez naiz ausartzen, baina bertze hainbat emakume egoera horretan daudela ikusteak motibatu ninduen». Aldi berean, lantaldea «bertsolaritzaren inguruan segitzeko bulkada» izan dela iruditzen zaio, «emakume bertsolarien egoera hobetzeko aurrerapausoa», eta garbi utzi nahi izan du «bertsolaritza bizitzeko hainbat modu daudela eta bakoitzak gustura dagoen tokia aurkitu behar duela».

Zaindu maite duzun hori...

Zein
da
zuzena?

Kalko ustelak

* Izartxoak dutenak eta arrosez daudenak gaizki daude.

'Burutu' ez da 'egin'

Adiera bat baino gehiago du *burutu* aditzak, baina ez da ohikoa gertatu edo eginen sinonimo izatea (es: 'llevar a cabo', 'realizar' edo fr: 'mener à bien', 'réaliser' moldeetara kalkatua); *amaitu* edo *azkeneraino egin* aditzen sinonimoa da.

- Garaiz burutu du lana > Garaiz bukatu du lana.
- Ekainean hasia eta urrian burutua > Ekainean hasia eta urrian bukatua.
- *Hiruhileko honetan sei bilera burutuko ditugu > Hiruhileko honetan sei bilera eginen ditugu.
- *Oraintxe bertan burutzen ari diren ekintzak... > Oraintxe bertan gertatzen/egiten ari diren ekintzak.

*Soberan? ala Sobera?

Sobera, *gehiegi*, *sobra* eta *sobran* sinonimoak dira, baina azken biek *Euskaltzaindiaren* Hiztegiaren Hegoaldeko herri markak daramatzatenez, erabilera mugatuagoa dute estandarrean. *Soberan, ordea, ez da ageri.

Beraz, tradizioko esamoldea *sobran egon da*, eta ez *soberan egon.

Hieroglifikoa

Zein da eskualdeko mendirik altuena?



Zein da Malerrekako mendi hau?



+



Eta zuk zer diozu?

Bidali zure zalantzak, proposamenak, azalpenak... Animatu eta parte hartu!



info@ttipi.eus



744 48 43 61

«San Telmo Museoak nire lan bat erostea ustekabeko oparia da»

OAIA PERUARENA TELLETXEA BERA KO MARGOLARIA

1972an jaio zen Irunen Oaia Peruarena, baina bortsu urte zituenetik Beran bizi da. Artearekin lotutako bizimodua izan du eta orain kontent dago, San Telmo Museoak bere margolanetako bat erosi duelako. Bere ibilbideaz mintzatu zaigu

AITOR AROTZENA

«Espero ez nuen oparia izan da eta ibilbidean aurrepauso bat bezala sentitzen dut». Halaxe dio Oaia Peruarena margolariak Donostiako San Telmo Museoak bere margolan bat erosi berritan. «Orain arte artelan gehienak partikularrek erosiak dira, nahiz eta horietako batzuk arte kolezio handiak izan», dio. Irailaren 10etik 12ra lehen aldiz Irekiak Galery Weekend erakusketa antolatu zuen Donostiako Arte Garai-kideko Galerien Elkarteak (DAGGE) eta bertan ziren Peruarenaren lanak ere. Hain zuzen, San Telmok bere artelana erostea erakusketa honen sarietako bat izan da. Sariak sari, ez dago geldirik eta hurrengo erakusketak prestatzen ari da buru-belarri Berako tailerrean.

Noiz hasi zinen margolari lanean? Betiko gauza da, tikitatik gus-tukoa dudana. 17 urtetan ikas-ketak utzi eta altzariak mar-gotu eta zaharberritzen ikasi nuen eta horretan ibili nintzen hamar urtez, bortsu Donostian ikastaroak ematen eta bortsu Beran, klaseak emanez eta enkarguz altzariak margotu eta zaharberritzen. Baina ho-rrekin batera beti nuen mar-gotzeko beharra eta ikastaroak egiten nituen hainbat margo-larirekin, horien artean gar-rantzizkoenak Jose Mari Ape-zetxea eta Tomas Sobrino. Orain dela 18-20 urte kontu-ratu nintzen aldaketa behar



Oaia Peruarena (eskuinean) bere margolanetako baten aitzinean.

nuela eta margoaren deia gero eta handiagoa zela eta bertze guztia utzi eta horretan sartu nintzen buru-belarri.

Zein izan duzu irakasle ibilbide horretan?

Donostian lanean nintzen bi-tartean Iñaki Alvarezekin egon nintzen hiru urtez, gero Ape-zetxea eta Sobrinorekin sei urtez aritu nintzen udako ikas-taroetan eta Maite Unzurrun-zagarekin ere ibili nintzen. Hortaz gain, aurkitzen nituen

arte liburu guztiak erosten ni-tuen eta aukera nuen bakoitzean museoak bisitatzen nituen, beti ikasi dut aunitz begiratu.

Hasiera batean paisaiak margo-tzetik eta inpresionismotik abs-trakzioarako bidea egin duzula erran daiteke?

Bai, nire bidea paisaiatik, hau da, figuraziotik abstrakzio-arako bidea izan da. Naturak gar-rantz handia du niretzat eta lehe-nago hori nuen inspirazio iturri. Baina momentu batean

«ABSTRAKZIOAK BERTZE MUNDU BAT IREKI ZUEN NIRETZAT»

«BITXIA DA, BAINA LAN ALDETIK URTE POSITIBOA IZAN DA HAU»

zerbait aldatzen hasi zen eta lehenago deitzen nindutenek ez ninduten asetzen, bertze zerbaiten beharra sentitzen nuen, nahiz eta ez jakin non-dik bota. Reina Sofia museora egindako bisita batean, lauga-rren solairuan ziren artelan abstraktuak ezagutu nituen eta aspaldiko partez barruan zerbait txaloka hasi zitzaidan. Honek bertze mundu bat ire-ki zidan. Nire lana espresio-nismo abstraktuaren barrenean dela erranen nuke eta sorme-na ahalik eta guttien zentsu-ratuz saiatzeko naiz lan egiten. **COVID-19ak zer eragin izan du zure lanean?**

Covida denentzat prozesu gogorra izan da baina ni pro-zesu hagitz gogor batetik ate-ratzen ari nintzen pandemia ailegatu zenean, ordurako nire bizia geldirik zen. Urte bat lehenago ohatzean pasa nituen zenbait hilabete, lesio bat izan nuelako. Denbora horretan gauza aunitz paratzen dira mahai gainean eta garrantziz-koak diren gauzen neurria aldatu egiten da. Hagitz pro-zesu gogorra izan zen baina hagitz eskertua naiz bizia arront desberdin ikusten baitut orain eta aunitzez ere libreagoa sentitzen naiz.

Halere ez zara geldirik egon den-bora honetan...

Bitxia da, baina niretzat urte positiboa izan da lan aldetik, iaz *Kultur Pilulak* egitarauan parte hartu nuen Beran eta horren ondorekin, Miarritzen erakusketa izan nuen. Gero-ztik Pau ondoan den Nayherrian izan zen erakusketa, gero An-doaingo Bastero kultur gunean, udan Donostian Juan Txilli-darekin Ekain galerian eta orain, Arteztu galerian Donos-tian berriz.

Pinturaz gain, bertze arte-dizi-plinaren bat probatu duzu?

Margotzen ibili naiz batez ere, grabatua eta serigrafia ere ukitu ditut eta hagitz ederrak iruditu zaizkit biak, baina lan on bat egiteko bertze gauzak utzi beharko nituzke eta orain-goiz ez dut momentua aurkitu.

EH Bilduren udal taldeak aldaketak izan ditu

Arantxa Zubietak zinegotzi izateari utzi dio eta Josu Iratzoki talderik gabeko zinegotzia izanen da hemendik aitzinera

TTIPI-TTAPA

Irailaren 15ean egin zen Berako udal batzarrak zenbait aldaketa ekarri zituen EH Bilduko udal taldean. Alde bate-tik, Arantxa Zubietak Otxotekok zinegotzi kargua utzi egin du. Horrelako kasuetan, hautagai-zerrendan ondotik dagoenak hartzen du hutsik gelditu den kargua baina, kasu hone-tan, ondotik zerrendan zeuden laurek ere kargua hartze-ari uko eginez idatzkia aurkeztu dute udalean. Gauzak horre-

la, ordezeko gehiagorik ez da-goenez, sortu den egoeraren berri eman dio Udalak Hau-teskunde Batzorde Zentralari.

Bertze aldetik, bi agintaldi-tan alkate izan zen Josu Ira-tzoki Agirrek EH Bilduko talde politikoa uztea erabaki du, baina zinegotzi karguan segi-tuko du. Hemendik aitzinera «adskripziorik gabeko» zine-gotzia izanen da, hau da, ez da udalean dauden bi taldee-tatik bakar batean ere partai-de izanen.

Elkarrizan elkartearen aurkezpen irekia egingen dute urriaren 8an

Bortzirietako Elkarrizan bo-luntario taldeak, taldearen aurkezpen irekia egin nahi du, mahai inguruko solasaldi mo-duko bat eginez. Aurkezpen honen helburua, jendea sen-tsibilizatzea eta etorkizuneko boluntario berriak bilatzea izanen da, belaunaldi erre-leboa bultzatuz. Irailaren 24an Lesakan egindakoaren ondo-

tik, urriaren 8an, ortziralean 18:00etan egingen dute aurkez-pena kultur etxean.

Elkarrizan boluntario taldean laguntzeko interesa dutenek Bortzirietako Gizarte Zerbi-tzuen Mankomunitatearekin harremanean jarri behar dute, 948 63 50 36 telefonora deituz edo info@bortziriakgz.eus helbide elektronikora idatziz.



UTZITAKO ARGAZKIA

Keu Agirretxea eta Pablo Novoa oholdzan

Altzateko plazan egitekoa baldin bazen ere, eguraldia zela eta kultur etxean eskaini zuten garai batean Etsaiak taldean aritutako Keu Agirretxeak eta Pablo Novoaak beraien kontzer-tua irailaren 19an. Haimar Arejita eta Mikel Arakistain musikariak ere izan ziren oholdzan.

Ludopatia edo joko patologikoaren prebentziorako tailerra irailaren 29an

TTIPI-TTAPA

Ludopatia edo joku patologia-ren prebentzioarako tailerra egitekoa dute irailaren 29an, asteazkenean, 17:00etan Beralandetan. Jokoaren erabile-ra desegokia gero eta gehiago zabaltzen ari den arazoa da eta hurbiletik bizi ez arren, denon ardura da gai honen inguruko kontzientzia sortzea. Horrega-tik antolatu du Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomu-nitateak tailerra, Aralar Nafarroako Ludopatia Elkartearekin batera eta Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin.



Gero eta arazo zabaldugoa da.

Plazak mugatuak izanen dira eta izena ematea ezinbertze-koa da, info@bortziriakgz.eus helbide elektronikora idatziz edo 634 22 36 59 telefono zen-bakira WhatsApp bidez.



Denda. 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jaurenabera@gmail.com

Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformak, etxe berriak
Lantegietako mantenu lanak

Etxetresnen salmenta, instalazioa
eta etxez etxeko konponketa
Antenak, satellite bidezko instalazioak

Alberto RETEGI

abokatua

© 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

Berako Gacla ongizate zentrorako bidelagun baten bila nabil.

Estetizista, terapeuta,
masajista... bazara,
deitu zenbaki
honetara 666 42 61 96
eta solastatuko dugu.



GAELA



Altzateetik Legiara sarbidea mugatuko dute urriaren 4tik aitzinera.

Altzateetik Legiara sarbide mugatua izanen da

Oztopo-zutoin mekanikoa paratuko dute eta baimendutako ibilgailuak bakarrik sartu ahal izanen dira urriaren 4tik aitzinera

TTIPI-TTAPA

Legia karrika, Altzateko sarre-ratik, sarbide kontrolatuko eremu gisa ezartzeko beharra sumatu du udalak, segurtasuna bermatzeko eta oinezkoen mugikortasuna hobetzeko arrazoiak direla medio. Hala, oztopo-zutoin mekaniko bat paratuko du eta baimendutako ibilgailuak urrutiko kontrolaren bidea sartu ahal izanen dira. Irailaren 15eko batzarrean aho batez hartu zuen udalak sarbide mugatuko eremu gisa ezartzeko erabakia. Sarrera kontrolaren hasiera data urriaren 4a izanen da.

Berako mugikortasun eta trafikoari buruzko udal ordenantza behin betikoz onartu zen joan den urteko uztailean. Ordenantza horren arabera, udalak, segurtasuna bermatzeko, oinezkoen mugikortasuna hobetzeko edo bertze xede baterako, sarbide mugatuko eremuak ezartzen ahal ditu, ibilgailuekin zirkulatzea eta aparkatzea partzialki edo osotara murrizteko aukera ematen dutenak; horretarako, eremu horretan zirkulatzeko baldintza zehatzak ezarri beharko ditu eta horixe izan da orain eginen duena.

Urriaren 16ko Azoka Egunerako izena eman behar da urriaren 4a baino lehen

Berako Kultur Batzordeak eta udalak Azoka Eguna antolatu dute urriaren 16rako. Ekitaldi honetan Bortziriak, Malerreka, Bertizarana, Xareta eta Baztango eskulangileak eta janari ekoizleak izanen dira Altzateko plazan eta Merkatu plazan 10:00etatik 14:00etara.

Arratsaldean Olaia Iantziren kontzertua eta mutxikoak izanen dira. Egun horretan postua paratu nahi dutenek urriaren 4a izanen dute izena emateko hondar eguna. Argibide gehiago kultura@bera.eus helbide elektronikoan edo 948 63 12 22 telefonoan.

Txalo produkzioak taldearen 'Losers' larunbatean

Txalo Produkzioak antzerki taldeak *Losers (Galtzaileak)* antzezlan eskainiko du urriaren 2an, larunbatean, 18:30ean kultur etxean. Sarrera 7 euro gostako da eta aitzinetik salgai daude Agara prentsan. Berako Kultur Batzordeak eta udalak antolatu dute emanaldia, Nafarroako Antzoki Sarearen babesarekin. Marta Buchaca da antzezlanaren egilea eta Begoña Bilbaoren zuzendari-tzapean Jon Plazaola eta Aitziber Garmendia aktore ezagunak izanen dira ohol-tza gainean.

'Jantzari' dokumentala ortziralean ikusgai

Gure Txokoa elkarteak, Kultur Batzordearen eta udalaren laguntzarekin antolatua, *Jantzari: tradizioa eta parekidetasuna* (Bideografik, 2020) dokumentala ikusgai izanen da urriaren 1ean, ortziralean, 19:00etan kultur etxean. Berdintasun Ministeriotik jasotako kredituen kontura finantzatutako ekitaldia da, Berdintasunaren Estatu Idazkaritzako Genero Indarkeriaren kontrako Itunaren baitan. Dokumentalaren ondotik, Iurretako dantzariak solasaldia eskainiko dute.

Kirol Merituari emandako zilarrezko domina jaso du Alberto Retegik

TTIPI-TTAPA

2020ko Kirol Merezimendua-ren zilarrezko dominak eta ohorezko aipamenak banatu ditu Nafarroako Gobernuak. Iazko ekitaldiari dagokion ospakizuna gibelatu behar izan zuten COVID-19a medio eta azkenean irailaren 21ean egin zuten, Kultura eta Kirol Departamentuaren egoitzan. Alberto Retegi Albistur beratarrak Nafarroako Gobernuaren kirol merezimenduaren zilarrezko domina jaso zuen, Gure Txokoa elkartearen txirrindularitzako kide eta eskualdeko



2020ari dagokion saria jasota.

txirrindularitza eskolen sustatzaile bezala 40 urte baino gehiago lanean aritu eta gero.

LABE ZAR
Astelehenetik ortziralerara:
07:15etik aitzinera
Larunbata eta igandea:
08:00etatik aitzinera
948 631 076 • BERA

ERRANDONEA, s.l.
BILTEGIA: 948 630 102
SAKELAKOA: 633 480 563
Bidasoa, 76 - atea 21-22 • BERA

MARITX
• INGENIARITZA ELEKTRIKOA
• PROIEKTU ELEKTRIKOAK
• BOLETIN INDUSTRIA
• INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
T. (0034) 636 617 450
Legia, 23 - BERA

243 etxebizitzetako energia gastua murrizteko lanean

Lankidetzaz hitzarmena sinatu du udalak Nasuvinsarekin eta pisu-blokeetako 26 atariri eraginen die

AITOR AROTZENA

Irailaren 16an egindako bilkuran aho batez onartu zuen udalak Nasuvinsarekin lankidetzaz hitzarmena onartzea. Hitzarmen honen helburua, herriko pisu edo etxebizitzetako blokeen energia gastua murriztea da; denetara 26 atari eta 243 etxebizitzetan, hain zuzen ere.

Proiektu honekin hautatutako bizitegi parkearen energia berroneratzeko proiektuen dinamizazio eta laguntza lanak egin nahi dituzte. Horrela, alde batetik, jarduera koordinatuak abiaraziko dituzte, helburu hauetarako: Bizitegi eraikinen birgaitze energetikoa, instalazio termikoak hobetzea, eraginkortasun handiko instalazio alternatiboak sustatzea, eraikinetan energia berriztagarriak gehitzea eta erabilera publikoko espazioa hobetzea eta egokitzea. Aipatu helburuak lortzeko Nasuvinsaren eta udalaren betebeharrak ere finkatu dituzte. Hitzarmen hau 2024ko apirilaren 30a arte egon da indarrean.

Nasuvinsak teknikaria bideratuko du Lesakara

Modu honetan Nasuvinsak epe honen barrenean teknikari bat bideratuko du Lesakara zerbitzu hauetarako: Energia berroneratzeko proposamenak zehazten laguntzeko hautatutako eremuetan; prozesuak abian paratzeko hasierako dokumentazio teknikoa egiteko, talde tekniko esleipendunei jarraipena egiteko eta laguntza emateko, jabeen erkidegoei eta udalari laguntza emateko esku-hartze orokorreko proiektuak garatzen eta onartzen laguntzeko, aurreproiektuak zehaztu ondoren jabeen erkidegoendako laguntza lanak egiteko birgaitze-laneko akordioak lortzeko, proiektuak idazteko prozesuan laguntzeko, eta energia berriztagarriak gehitzen laguntzeko...

Jendearentzako arreta gune bat jarriko du udalak Nasuvinsaren esku bilerak egiteko eta 2.420 euro bideratuko ditu Nasuvinsako teknikariaren kostua finantzatzen laguntzeko.

Harriondoa kultur etxerako sarrerak on-line eros daitezke dagoeneko

Harriondoa kultur etxeko ikus-kizunetarako sarrerak Lesakako Udalaren webgunean online erosteko zerbitzua eskainiko du udalak, gisa horretara, «edozein unetan, edozein lekutatik eta azkar eta erraz eskuratu ahal izanen dituzu». Horretaz gain, kultur etxeko

bulegoan ere erosteko aukera izanen da, 09:30etik 14:00etara, baita ikuskizunaren egunean bertan ere, lehenagotik bukatu ez badira. Hurrengo emanaldia urriaren 16an izanen da. *Kirola* dantza ikuskizuna eskainiko dute 19:00etan. Prezioa: sei euro.



AITOR AROTZENA

117 kirolari mendi bizikleta itzulian

117 txirrindularik parte hartu zuten irailaren 19an Beti Gaztek antolatutako mendi bizikleta ibilaldian, horietatik 82 luzean eta eta 35 laburrean. Bukaeran, Katea-Bikek emandako bizikleta zozketatu zuten eta Ermuko (Bizkaia) Carlos Fabian Saldarriaga Quinterori egokitu zitzaion.



BETI GAZTE

Herriko dantza taldeen topaketa

Herriko dantza taldeen topaketa arrakastatsua egin zuten irailaren 11n, Beti Gaztek antolatua. Beti Gazte lerro dantza taldeak, Tantirumairu mutxiko taldeak, dantza latinoen taldeak, Beti Jauzi mutxiko taldeak eta Tantirumairu Euskal Folklore taldeak parte hartu zuten.




LOREAK ETA LANDAREAK
Frain Auzoa · LESAKA
T. 948 637 826

TTIPI-TTAPA SARE SOZIALETAN



facebook
www.facebook.com/ttipi.ttapa



F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzaila jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 620 172 679



Miranda, Ciriza eta Ladis Satrustegi alkatea, hitzarmena sinatzerakoan.

Tomasenekobordatik Bereaura bidegorria egingen dute

Hitzarmena sinatu du udalak Nafarroako Gobernuarekin eta martxorako lanak bukatuak izatea espero dute

AITOR AROTZENA

Tomasenekobordatik Bereaura egingen den kilometro bateko bizikletentzako bideak Lesaka Europako Eurovelo sarearekin lotuko du. Nafarroako Gobernuak Lurralde Kohesiorako Departamentuak, Garraio eta Mugikortasun Jasangarriaren Zuzendaritza Nagusiaren bitartez, eta udalak 464.952,74 euroko inbertsioa jasotzen duen elkarlanean hitzarmena zinpetu zuten irailaren 20an; 340.000 euro Nafarroako Gobernuak inbertituko ditu. Topaketan izan ziren Bernardo Ciriza kontseilaria, Berta Miranda, Garraio eta Mugikortasun Jasangarriaren zuzendari nagusia, eta Ladis Satrustegi alkatea.

Proiektatutako ibilbideak 1,07 kilometroko luzera eta 2,5 metroko zabalera izanen du, eta bi bizikleta aldi berean igarotzeko aukera emanen du. Bide osoa NA-4000 errepidearen eskuinaldetik joanen da, Lesakatik Bereaura begiratuta eta Tomasenekobordako biribilgunean hasiko da. Bide berri hori proiektuaren

eremuan integratzeko, lehenetik dagoen bidea aprobetxatuko dute, Onin ibaiarekiko paraleloan, zeinak baso-eremu bat zeharkatzen baitu lehenetik dagoen Eurovelo ibilbidearekin bat egin arte, eta lehen zatia galtzada partekatuko duen errepidera egokituko da.

Lanak 2022ko martxoa baino lehen bukatzea aurreikusi dute eta, hormigoi armatuzko eta harri-lubetazko hormak egingen dituzte, eta lursaila tratatu eta saneatuko dute. Horretarako, lehen esleipena hutsean gelditu zen eta orain karrikatu du bigarrena udalak. Hasierako prezioa 464.300,06 eurokoa da (gehi BEZa) eta proposamenak urriaren 3ra bitarte aurkeztu daitezke.

Eurovelo

Eurovelo Bizikleta Bideen Europako Sarea Europa osoa lotuko duten bizikleta-ibilbideen sarea egiteko proiektua da. Guztira, 70.000 kilometroko 15 bide dira, eta Europar Batasuneko herrialde guztietatik igarotzen dira.

Eltxo tigrearen ugalketa prebenitzeko saioa egingen dute Beran hilaren 29an

TTIPI-TTAPA

Intsektu hau munduko 100 espezie inbaditzaile kaltegarrien zerrendan sartua dago eta gai honekin interesa duten guztiei zuzenduta, heldu den asteazkenean, hilak 29, eltxo tigreaki buruzko jardunaldi bat antolatuko du Berako Udalak kultur etxean, 19:00etatik 20:00etara.

Jardunaldi honetan eltxo tigreaki buruzko oinarritzko informazioa emanen dute eta, bidenabar, Moskito honen ugaltzearekin sortzen diren arriskuak eta arazoak azalduko dituzte.

Azkeneko urteotan tranpak jarrita Beran egin duten segimenduari buruzko datuak ere azalduko dituzte, urteen joan-ean erregistratu den bilakaera eta aurkikuntzen berri emanez.



Eltxo tigrea.

Jardunaldiaren aurkezpena Aitor Elempuru alkateak egingen du eta alderdi teknikoari dagokion azalpenak Teresa Ferrer Gimeno eta Beatriz Agudo Garciak emanen dituzte (Nafarroako Gobernuaren Ingurumen Osasuneko arduradunak). Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoko teknikaria den Joseba Goikolea doktoreak ere lagunduko du jardunaldia.

Berdintasuneko teknikari izateko lanpostu bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko eta lan-poltsa osatzeko deialdia egin du Igantziko Udalak

TTIPI-TTAPA

Bortzirietako udaletan ariko den berdintasuneko teknikari bat oposizio-lehiaketa bidez kontratatzea eta lan-poltsa osatzeko da deialdi honen helburua. Aipatu teknikaria aldi baterako lan-kontratuarekin ariko da lanean, B mailakoa izanen da eta euskarazko C1 maila eskatuko zaio ahozkoan eta idatzian.

Eskaria Igantzin

Deialdian parte hartzeko eskabidea Igantziko Udaleko Erregistroan, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedurak aurreikusiriko edozein baliabideren bidez aurkeztu beharko da, 10 egun baliaduneko epean, deialdi



hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita. Iragarkia iraileko hondarreko astean argitaratuko dela aurreikusia dutenez, epea urri erdi aldera bukatuko da.

Deialdiaren xehetasunak ikusteko egin klik goitian ageri den QR kode horretan.

60.100 euro hartuko ditu udalak uso postuen enkantetik

35.390 euro jasotzea aurreikusia zuten, baina behin betiko esleipenen ondotik kopurua aunitz hobetu da

IRUNE ELIZAGOIEN

Irailaren 14an eman zitzaion bukaera 2021eko ehiza denboraldiko Usategietako ehiza postuen enkanteari. Bigarren enkantea animatua joan zen eta 14.345 euro ordaindu zuten 11. postuarengatik eta 11.665 euro 21. postuarenga-

tik. Aurten bakarrik bi postu gelditu dira saldu gabe.

Azkenean, 21 ehiza-postuetatik 19 esleitu zituzten eta horiengatik 60.100 euro bilduko ditu udalak, joan den bildutakoaren ia bikoitza, zehazki 28.592 euro gehiago. Xehetasunak ERRAN.EUS atarian.

Kultur egunen barne ipuin-kontalaria larunbatean

Bortzirietako Euskara Mankomunitateak, Altxata elkar-teen laguntzarekin, urriko kultur egunak antolatu ditu. Horien barrenean, larunbat honetan, urriaren 2an, haurrei zuzendutako Ameli eta Xirrikitzen jostunek ipuin-kontalaria ariko da kultur etxean. 18:00etan egina dute hitzordua. Bigarren ekitaldia, berriz, helduei zuzendutakoa izanen da eta, urriaren 23rako aurreikusi dute. Ekitaldi horren inguruko xehetasun gehiago hurrengo aldizkarian emanen dugu.

Eskolaz kanpoko ekintzak haur zein helduei zuzenduak

Musika, kirola, dantza, hizkuntzak... Eskolaz kanpoko jardueren aukera zabala izanen da aurten ere. Trikitixa ortzirale-tan, pandereta astelehene-tan, futbola ortzegunetan, Guraso Elkartearen eskutik zeinu hizkuntza ikastaroa larunbatetan, Altxataren eskutik pilota eta dantzak asteazkenetan, kantu entseguak ortzegunetan eta larunbatetan, Larraburuaren eskutik mutxikoak astelehene-tan eta gimnasia ikastaroa ere antolatu nahi dute erakusteko norbait bilatuz gero. Urrian ikastaro gehiago izan daitezke.

Afizionatuen arteko pilota partida

Altxataren XXX. urteurreneko ospakizunen barnean, afizionatuen mailako pilota partida izan zen irailaren 11n. Hainbat sari ere zozketatu ziren: pilotarien kamisetak, otordua eta Herriko Ostatuaren eskutik ardo kaxa.



IRUNE ELIZAGOIEN

78 ikasle eta 13 irakasle hasi dute ikasturtea Landagain eskolan

I. ELIZAGOIEN

Ikasturtea zuzendaritza berriarekin hasi dute Landagain eskolan. Zuzendaria Aintzane Ollokiegi izanen da, eta idazkari lanetan Idoia Bereau ariko da. Gainerakoan, 78 ikasle (zazpi geletan banatuta) eta 13 irakasle dira eta lau galtxagorri

(hiru urtekoak) hasi dira. Iazko ikasturtea nahasia eta ezjakintasunez beteta hasi zuten, baina aurtengoa ez dator lasaia. Irailean jardunaldi jarraituarekin hasi dira eta urritik aitzinera eskolaz kanpoko jarduerak antolatu beharko dituzte, lau egunez arratsaldez.



ANA INDABURU

Mikel Elizegirekin lehiaketan

Biba zuek! programako Mikel Elizegiren sekziarako bi grabaketa egin zituzten Etxalarren irailaren 17an. Juan Bautista Mitxeltorena eta bere biloba Aiarekin batetik eta Xanti eta Benantxio Elizagoienekin bertetik. Iraileko azken astean botako dituzte ETB1eko *Biba zuek!* saioan.

KAGU
LIBURUDENDA
Tel. / Fax 948 638 232
Koskontako bidea, 7
(osasun-zentroaren parean)
31770 LESAKA

- PAKETEAK JASOTZEKO GUNEA
- LIBURUDENDA
- KOLORETAKO FOTOKOPIAK
- USBK EGINAKO INPRIMAKETAK
- ESKANERRAK
- ESKOLA MATERIALA
- INFORMATIKAKO MATERIALA
- BULEGOKO MATERIALA
- EGUNKARIAK, ALDIZKARIAK

Eramateko janaria
astelehene-tik ortziralerara

zalain
JATETXEA RESTAURANTE

Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info

LorHazi emakume taldea sortu dute herrian

Hainbat jarduera egin nahi ditu urte osoan, tartean zinema saioa, afrikar dantzak eta bertze zenbait tailer

MAITE, ANA ETA ITZIAR

Gaur egun gure herrian badi-ra hainbat talde denbora luzez, kirol eta kultur ekintzak antolatzen dituztenak. Azken hila-beteetan bertze talde berri bat martxan jarri da LorHazi ize-narekin. Talde honek Igantzi-ko emakumeak bildu nahi ditu eta urtean zehar hainbat ekin-tza antolatzeko asmoa dute, emakumeen arteko harremanak, sareak eta lankidetzak sustatzeko.

Orain arte, honako jarduera hauek aurrera eramane dituzte, betiere udalak kudeatzen

duen Genero-indarkeriaren aurkako estatu-itunaren diru laguntzarekin: zinema saioa, afrikar dantzak, azaroaren 25eko enkartelada, *Emakumea eta gorputza* tailerra eta grafiti tailerra.

Ateak zabalik

Gaur egun, LorHazi-ko jarduerak antolatzeaz arduratzen den taldea herriko bortz emakumek osatzen dute, baina lerro hauetatik taldea bertako kide izan nahi duen edonorentzat irekita dagoela jakinaz nahi dute.



NEREA MORTALENA

Grafiti berria herrian

Buruilaren 18an grafiti tailerra egin zuten Txarlirekin eta gimnasioko pareta apaintzeko lana hartu zuten. Goizez bildu eta margotu behar zuten irudiaren bozetoak prestatu zituzten. Arratsaldean lana bukatu zuten. Esperientzia polita eta aberasgarria izan omen zen eta emaitza bikaina.

Ikasturte berriko martxan ortziralean eginen dute txirrindulariaren eguna

Ikasturte berria hasi da eta poliki-poliki normaltasunera itzultzeko pauso txikiak ematen hasi gara. Aurtengoan, iaz ez bezala, urriaroan txirrindulariaren eguna berreskuratu da. Horrela, eguraldiak laguntzen badu, urriaren 1ean eskolatik hasita trenbidetik Endarlatsarainoko

ibilbidea eginen dute. Haur Hezkuntzakoek berriz, herrian bertan osatuko dute beraientzat egokia den ibilbidea.

Bertalde, ikasleek ohiko irakasgaietaz gain yoga, antzerkia eta margoketako saio bereziak izanen dituzte berriz ere Estitxu, Raul eta Felixen eskutik.

Biltoki Tiki berriz ere irekita dago gasteentzat

Biltoki Tiki berriz ere idekita dago. Berrir martxan jartzeko, erabiltzaileek Nafarroako Gobernuak eskatzen duen erantzukizun adierazpena sinatu behar izan dute. Gogotsu hasi dira lanean, buruilaren 24an goitibehera erakustaldia antolatu baitzuten.

Binakako pilota txapelketako finala larunbatean

Aspaldiko urtetan egin izan den bezala herriarren arteko binakako esku pilota txapelketa martxan dago aurtengoan. Urriaren 2an jokatu dituzte finala eta hirugarren eta laugarren posturako partida. Norgiagokak, larunbatean 11:00etan hasiko dira.



instalazioak

IGOGAILUAK



PROFESIONALAK

KALITATE-BERMEA

IRISGARRITASUNA

MANTENTZE LANAK

EZ ZAITEZTE KEZKATU! Gu arduratuko gara proiektu osoa landu, obra baimenak tramitatu, diru-laguntzen eskaerak egin eta gremioak koordinatzeaz.

Santiago, 71 | ELIZONDO | T. 948 580 166 | M 619 424 999

suteia@suteiazaldain.com

1 KANPOKO IGOGAILUAK

Kanpoko fatxadaren guztiz integratuak, portal barrutik sarbidea. Inpaktu eta eragozpen minimoak. Mugikortasun arazoak dituzten pertsonentzako sarbidea.

2 BARRUKO IGOGAILUAK

Eskailerako tartean integratuak. Sarbidea portal barrutik, inongo oztoporik gabe. Mugikortasun arazoak dituzten eta gurgil-aulkian daudenentzako egokituak.

3 IRISGARRITASUNA

Mugikortasun arazoak dituzten eta gurgil-aulkian daudenentzako portalerako sarbidea egokitzen dugu. Azkar egiten ditugu lanak, eragozpen minimoak sortuz.








Putzu Beltzerako pasabidea arautu du udalak

Herritarrek eta baimena dutenek izan ezik, gainerakoek oinez egin beharko dute Putzu Beltzerako bidea

NEREA ALZURI


Xarmaz beteriko xokoa da Putzu Beltz ur jauzia eta ingurua. Gero eta bisitari gehiago joaten da bertara eta hori horrela, ahalik eta hobekien zaintzeko, Putzu Beltz ur-jauzirako pasabidea arautzen duen ordenantza behin betiko onartu du udalak. Hala, ibilgailu motordunek pasabidea mugatua izanen dute.

Ekainaren 22an egindako ohiko osoko bilkuran, Putzu Beltz ur-jauzirako pasabideak arautzen dituen ordenantza onetsi zuen udalak. Erabakia behin-behinekoa izan zen. Ondotik, alegazioak aurkezteko 30 eguneko epea ireki zuen, baina tarte horretan inork ez zuenez alegaziorik aurkeztu, orain behin betiko onetsia gelditu da ordenantza.

Osiña eta Larreta karriken arteko bidegurutzetik, hau da Pablaren borda ondoko bidegurutzetik, Azkilarrea eta Aientza auzoetara doan auzo-bideari eta medikuaren kontsultategitik Azkilarra doan auzo-bideari eraginen die ordenantzak, eta salbuespen kasuak kenduta, bi eremu horietan ezin izanen da ibilgailu motordunekin pasatu.

Pasatzeko baldintzak

Baimendutako kasuetan baino ezin izanen da pasatu ibilgailu motordunetan: Arantzan



Putzu Beltz. ARANTZATURISMO.EUS

errolatua baldin badago; ohiko bizilekua Arantzan baldin badu; Azkilarrea edo Aientza auzoetako landetxeren batean baldin badago; auzo horietan lurra edo ondasunak baldin baditu; edo bidarietako bat sei urtetik beheiti edo 70 urtetik goiti baldin baditu. Bertzelako arrazoi justifikatuengatik ere pasatu ahal izanen da, berteak bertze, lan edo osasun arrazoiengatik.

Ordenantzaren ageri denez, udalak aginduko du kasu bakoitzean beharrezkoak diren trafikoko seinaleak eta bertzelakoak paratzea, kentzea eta ordezkatzeko. Eta agindutakoa betetzen ez bada 50 eta 300 euro arteko isunak izan daitezke.

Irakurketa taldea ortzegun honetan bilduko da lehenbiziko aldiz

N. ALZURI

Liburutegiko ateak irekitzea-rekin batera, ekimen berri-tzailea paratu nahi dute martxan hainbat herritarrek: irakurketa taldea.

Euren asmoa liburu bat aukeratu eta taldekideek liburu bera leitzea da, ondotik hila-betean behin elkartu eta horri buruz solastatzeko. Oraingoan, hilabeteko azken ortzegunetan hasi nahi dute biltzen, eta ortzegun honetan, irailaren 30ean, egin dute lehenbiziko hitzordua, 18:00etan liburutegian. Proposamena gustukoa

izanez gero, hurbiltzeko gonbita luzatu diete herritarrei.

Liburutegia irekia

Duela pare bat aste zabaldu zuten Baskulako liburutegia eta geroztik, astelehenetan eta asteazkenetan, 16:30etik 18:00etara, irekitzen dute, eskolako egutegiarekin bat etorritik.

Lanak egiteko mahaian gehienez sei lagun egon ahal izanen dira eta sofan lau. Neurriak betez, eskuak desinfektatzea eta maskara paratzea beharrezkoak izanen dira.



Sarek deituta maiatzaren Ekaitzara –argazkian– eta Mendaurrera ateraldiak egin zituzten.

Presoak etxeratzearen aldeko martxan arantzarrak asteazken arratsaldean

N. ALZURI

Asteazken honetan, irailaren 29an, hasi eta larunbatera, urriaren 2ra, Lesakatik Berriozarrera, gau eta egun, herrialde osoa zeharkatuko duen martxa ibiltaria antolatu du Sarek presoan etxeratzea aldarrikatzeko. 74 errelebotan banatu dute martxa, 352 kilo-

metroko bidea 72 orduz deskantsurik gabe egiteko. Eta arantzarrak ere ekimen horretan parte hartzeko deia egin diete. Martxa 17:30ean aterako da Lesakatik eta arantzarrak 19:00etan Onbordin hartuko dute lekukoa. Handik Igantziko bentak aldera doan bidea egin beharko dute.

**LARRETXEAK EGVRRAK**

Zuhaitzak erosi, bota eta ateri
Piketeak eta sutarako egurra

Pio Baroja, 3 | Obenea | Bera | T. 617 981 427



**ZUBIONDO**
JATETXEA-SAGARDOTEGIA

EGUNEKO MENUA
SAGARDOTEGI MENUA
KARTA
OGITARTEKOAK
PLATER KONBINATUAK ...

T. 948 625 472
Alasta karrika · BERA
zubiondojatetxea.com



Itxaso Aleman (Cederna), Felipe Saragueta (Denok Bat), Leire Ortuoste (Doneztebeko alkatea) eta Gorka Goikoetxea (Ikertalde).

Merkataritza babesteko plana abian eskualdean

Sektorearen diagnostikoa egiten hasiko dira hamazazpi herritan eta Nafarroako Gobernuak % 80 lagunduko du

A. AROTZENA | DONEZTEBE

Baztan, Bertizarana, Malerreka eta Bortzirietako udalek eskualde mailako Merkataritza Erakartzeko eta Antolatze-ko Plana (MEAP) egiteko helburuz hitzarmena sinatu zuten 2020ko urrian. Plan hau idazteko laguntza teknikoa kontratatu dute eta diagnostikoa egiteko lanetan hastekoak dira ondoko egunetan. Honetarako Nafarroako Gobernuak finantziazioa % 80koa izanen dute. Halaxe jakinarazi zuten irailaren 15ean Doneztebeko Herriko Etxean egin zuten agerraldian.

Leire Ortuoste Doneztebeko alkatearekin batera, Felipe Saragueta Denok Bat Federazio-ko idazkari teknikoa, ikerketa eta diagnostikoa egiten hasiko den Ikertaldeko Gorka Goikoetxea eta Cederna Garaluren Agentziako Itxaso Aleman izan zire aurkezpenean.

Doneztebeko alkateak aipatu zuenez, hamazazpi udalek (Arantza, Baztan, Beintza-Labaien, Bera, Bertizarana, Donamaria, Doneztebe, Eratsun, Etxalar, Ezkurra, Igantzi, Ituren, Lesaka, Oiz, Saldias, Urroz eta Zubieta) sinatutako hitzarmenaren bidez gauzatuko da egitasmoa.

Merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu sektorerako estrategikoa izanen da plan hau, baita udalentsat ere, sektore honen antolaketarako. Horren erakusgarri da Tokiko Merkataritza Elkarteak batzen dituen Denok bat federazioaren eta Cederna Garalurren babes eta elkarlana.

«ESKUALDE MAILAKO IKERKETA NAFARROAN LEHEN ALDIZ EGINEN DA»

Tokiko komertzioa babestu eta indartzeko helburuarekin abiatutako ikerketa

Denok Bat Federazio-ko idazkari teknikoa den Felipe Saraguetak aipatu zuenez, «lehenbiziko aldian izanen da eskualde mailako horrelako ikerketa bat egiten dela Nafarroan, esperientzia berritzailea da eta beharbada bertze lekuetan ere erabiltzeko modukoa izan daiteke».

Saraguetaren erranetan, «hitzarmena sinatu duten hamazazpi udal hauek ttikizkako merkataritzari buruzko amankomuneko erreflexio bat egin behar dela adostu dute. Herri ttikietako komertzioak arazo handiak izan dituzte batez ere herriguneetatik kanpo jarri diren merkataritza eremu handiekin eta tokiko komertzio horiek indartzea, babestea eta berritzea da gure kezka eta hori lortzeko udalekin batera lan egitea».

Lau helburu nagusi aipatu zituen Denok Bat Federazio-ko ordezkariak: «lehenik, merkataritza erabileraren ordenazioa

egin eta horretarako irizpide batzuk ezartzea, gero udalek, beraien hirigintza-planetan barneratzeko; bertetik, hau guztia herrietara eraman eta hirigintza-dotazioak hobetzeko eta erakargarriago egiteko bidea egitea; modu berean, tokiko merkataritza ttikiaren eredia babestu eta indartzea, gure eguneroko bizitzan, garapen sozio-ekonomikoan eta izaeran duen garrantzia azpimarratuz eta, azkenik, erakarpentzen proposamenak egitea, herriz herri».

Kontsumitzaileekin inkestak eta merkataritzaren karakterizazioa

Ikerketa lana eginen duen Ikertaldeko Gorka Goikoetxeak adierazi zuenez, «esperientzia eta eskarmentua daukagu bai Nafarroan baita EAEn ere gisa honetako planak egiten, baina tokian tokikoak, oraingo hau eskualde mailakoa izanen da, izaera berritzailea dauka eta guretzat erronka polita da».

Metodologikoki, eskualde mailako komertzioa berrindartzeko helburu horretan, eskualdeko kontsumitzaileen kontsumo ohiturak eta dinamika ezagutu nahi dituzte eta alde horretatik, «agudo hasiko gara herriz herriko inkestak egiten, aste honetan ez bada datorren astean, eskaria aztertzeko: non erosten duten, zer erosten duten, zer baloratzen duten... Internet bidez ere parte hartzeko aukera izanen da. Eskualde honetako merkataritza konfigurazioak ere aztertuko ditugu, ekipamenduak, beharrak...».

Eskaintza ere aztertuko dute, eta horretarako merkataritzaren karakterizazioa eginen dute... merkataritza establezimenduetan galdetegiak egin ez eta bilerak antolatuz, sektorearen egoera gaur-gaurkoz eta herriz herri zertan den ezagutzeko.

Diagnostiko komertziala egin ondotik ekintza-plana diseinatuko dute eta dinamizazioa lana eginen dute.

«KONTSUMITZAILEAK ETA SEKTOREA EZAGUTU NAHI DITUGU LEHENIK»

Kirola protagonista izan zen iraileko bigarren asteburuan

Bortz lagunek hobetu zuten Arretzeko bordako igoerako errekorra eta 215 txirrindulari atera ziren BTT itzulian

MAIDER PETRIRENA

IX. Arretzeko bordako kronoi-goera egin zuten irailaren 11n. Bertan 44 kirolarik parte hartu zuten, bizikletaz nola lasterka, helduak zein gazte eta haurrak. Eguraldia lagun eta giro ezin hobean joan zen bertze urte batez igoera gogor hau. Gaztetxoek, depositu-rainoko ibilbidea egin zuten eta Katea Bikek emandako loteak eskuratu zituzten saritzat.

Gizonezkoen bizikleta sailkapena ondorengoak izan zen: lehenbizioa Jesus Torres (8.23), bigarrena Jon Zeberio (8.33), hirugarrena Ibai Irisarri (8.54), laugarrena Aitor Apeztegia (8.56) eta borzgarrena Gaizka Otxandorena (9.03). Aipatzekoa da bortz txirrindulari hauek lortu zutela errekorra hobetzea eta Torresek marka

ederra utzi du hurrengo baterako. Emakumezkoen bizikleta sailkapena: lehenbizioa Vitxori Juanikotena (12.00) eta bigarrena Sara Sanzberro (17.38).

Gizonezkoen lasterkako proban Joseba Larralde beratarra izan zen bizkorrena (9.58), bigarrena Anizko Unai Iantzi (10.38) eta hirugarrena Elizondoko Iñaki Telletxea (11.02). Nesken artean Leire Sanzberro izan zen bizkorrena lasterka (16.35).

215 txirrindulari mendi bizileta itzulian

Eguraldi ezin hobearekin Sunbillako mendi bizikleta ibilaldiaren hirugarren edizioa egin zuten biharamunean. 215 txirrindularik paisaiaz eta bi ibilbidez gozatzeko aukera ezin hobea izan zuten.



Arretzeko bordako igoera goitian eta mendi bizikleta ibilaldia. M. PETRIRENA



AMAIA APEZETXEA

Eneit Bertiz eta Koldo Herrera txapeldun

Ordizian (Gipuzkoa) jokatu zen irailaren 18an 2021eko Euskadiko mendi bizikleta irekiko hondarreko lasterketa. Errearteria, Izkuie, Ilunberri eta Aramaioako probetako emaitzak kontuan hartuta, kadete mailan Eneit Bertiz izan da txapeldun eta junior mailan Koldo Herrera.

Bidane Madariaga lehiakide Euskal Telebistako 'Baserria' saioan

M. PETRIRENA

Irailaren 19an hasi zen ETB1eko *Baserria* saioaren denboraldi berria, eta herriko ordezkari bat izanen da: 23 urte dituen Bidane Madariaga. Gainera, lehen saioan eskualdeko bertze lehiakidea egokitu zitzaion bikotekide, Camilo Astiz lesakarra. ETBen aurkeztu dutenez, Bidanek «betitik izan du baserri munduarekin lotura», baina Erizaintzako laguntzaie ikasketak egin eta Elizondoko psikiatrikoan aritu zen. Tradizionala delako aitortu du, «baina hori bai, feminista. Emakume baserrita-



Bidane Madariaga.

rraknire familian diskriminatuak egon dira, emakumeak izateagatik bakarrik». *Baserria* saioan, «emakumezkoak baserrian beharrezkoak direla aldarrikatzea» izanen du helburu.



ARIZTIGAIN
CAMPING · KAMPINA
RESTAURANTE · JATETXEA

T. 948 450 540
M. 660 798 249
M. 636 488 300
SUNBILLA

Plater konbinatuak | Menua | Hamburgesak | Sandwichak |
Pintxoak | Kaxulak | Bokatak



info@campingariztigain.com | www.campingariztigain.com

Mugikortasunean egin diren aldaketak errespetatzeko deia

Herriko mugikortasuna hobetzeko egiten ari den aldaketen harira, erabilpen egokia egiteko eskatu du udalak

MARGA ERDOZAIN

Herriko mugikortasuna eraldatzen eta hobetzen ari da eta udalak herritarrei mezu zuzena bezain baikorra luzatu nahi izan die: aldaketa horietan erabilpen egokia egiteko konpromisoa. Amezti Zeharbi-deari dagokionez, aipatu behar

da, bigarren fasea akituta, bortz aparkaleku sortu direla. Udalak azpimarratu du marra horia errespetatu behar dela, eta bertan ez aparkatzeko. Zirkulazio handiko zeharbidea denez, araukezerrespetatzeak arazo handiak sortzen ahal direla gaineratu du.

Ipuin txokoa eta irakurketa txokoa urritik aitzinera martxan

M. ERDOZAIN

Udazkenarekin batera liburutegiko bi ekimen berriz martxan jarri dituzte: irakurle taldea eta Ipuin Txokoa.

Ipuin Txokoa, 0-3 urte bitarteko ttikiei zuzenduriko ekimena, urriaren 5ean hasiko da, 11:00etatik 12:00etara. Haizea Loira musikoterapeutas bideratutako txokoa asteartero izanen da eta maiatz bukaerara arte luzatuko da. Aitzineko urteetan bezala, partaideek musika, dantza eta ipuinez gozatzeko aukera izanen dute.



Loirak bideratuko du ipuin txokoa.

Irakurle taldekoak, berriz, hilabeteko azken astelehenean elkartuko dira aitzinetik aukeratutako liburua lantzeko. Hautatzen diren liburuak emakumezkoen lanak izaten dira.

Gaita eta atabala ikastaroan izen-ematea zabalik

Atabala eta gaita ikastaroan izena emateko epea zabalik dago. Aitzineko urteetan bezala, urrian hasi eta ekainera bitarte luzatuko dira udalak antolatutako ikastaro hauek. Larunbatetan emanen dira eta argibideak eta izena emateko deitu 616 05 22 47ra (Tomas).

Merkataritza sektoreaz inkestak herritarrei

Baztan-Bidasoko merkataritza babesteko eta indartzeko planaren barrenean, telefonoz herritarrei inkestak egiten ari dira. Udalak herritarrek galde-tegi hauetan parte hartzera animatu nahi ditu, sektorearen inguruko diagnostikoa eta hobekuntzak egin ahal izateko.

Solaslaguna programan izena emateko aukera

Martxan da Solaslaguna programan izena emateko epea. Ekimenaren helburua euskaraz aritzea da. Horretarako, talde ttikiak sortzen dira eta horietako bakoitzak astean guttienez ordu bateko tarte hartzen du elkarrekin euskaraz solas egiteko. *Bidelari* eta *Bidelagun* rolak har daitezke eta horretarako labur.es/solaslagun web orrian izena eman behar da. Euskal Herri mailan egiten den ekimena gurean ere martxan jarriko da segurtasun neurriak eta protokoloak betez.

Euskarari lotuta, bertzetik, irailaren 30ean akituko da euskaltegian izena emateko epea. A2, B2 eta EGA edo C1 taldetan eman daiteke izena, eta online edo autoikaskuntzaren bidez ikasteko aukera ere bada.



ERREKA

Zortzi talde atera ditu Errekak

Denboraldia 165 eskubaloj jokalarirekin hasi du Errekak eta horiekin zortzi talde osatu dituzte: seniorrak, jubenilak, kade-teak, infantilak (bi talde), kimuak, benjaminak eta benjaminaurrekoak. Lehenbiziko sei taldeak ligan ariko dira eta bi ttikienak entrenatzen. Interesa dutenek oraindik atea zabalik dute...

PINTURA eta DEKORAZIOA
BIDASOA

Tel.: 948 45 02 48 - 619 88 97 23

Lakadura eta bernizadurak
Armairuak, azulejuak, etab.
Etxe eta enpresen mantentze-lanak
Etxeko konponketa ttikiak

Oiz (Malerreka).
Nafarroan eta Gipuzkoan lan egiten dugu.
pinturasbidasoairun@gmail.com

BERRI S.L.
TXIMISTINDAR
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Zalain Ind., 42 | BERA | T. 948 63 14 52 | 639 60 80 34 | 639 56 59 65

Neskek pilotan trebatzeko aukera izanen dute Aurtizen

Ados pilota eskola martxan jarri dute irailaren 27an, zazpi urtetik goitiko neskei zuzendua

A. MINDEGIA

Zazpi urtetik goitiko eskualdeko neskek pilotan aritzen ikasteko aukera bikaina dute irailaren 27az geroztik. Hain zuzen ere Aurtizko Koianea txikia frontoian Ados pilota elkartearen eskutik astelehen-ero 17:30etik aitzinera neskendako pilota eskola eskaintzen hasiak dira. Kuadrilla polita elkartzen hasia da gainera.

Ea hemendik gutxira orain daudenak baino neska pilotari gehiago izaten ditugun han eta hemen.



Gero eta gehiago ari dira neskak.

Haurrentzako jokoak, bazkaria, ipuinak eta kontzertua larunbaterako

A. MINDEGIA

Ekitaldiz betetako eguna antolatua dago Iturenen urriaren 2rako, larunbat honetarako. Txikiek izanen dute protagonismoa goizetik, ttikienak haur jolasetan ibiliko baitira eta zazpi urtetik goitikoak, berriz, ginkanan.

Ostatuan izanen den bazkariarekin segituko dute. Akitzeko, berriz, Lur Korta ipuin kontalaria izanen da kontu kontari eta egitaraua borobiltzeko, ilunabar partean, Trikidantz taldeak kontzertua emanen du eta dantzatzeko aukera izanen da.



UTZITAKOA

Aurten bai egin dute Joaldunen Eguna

Aurtengoan ez da izan bertze urteetako Joaldunen Eguna. Joan den urtean ez zuten deus antolatu, baina aurten bai. Goiz-goizetik joaldun, trikitilari eta pandererojoleek Amezti auzoan hasi eta herrian akiturik ibilbidea egin zuten, herritarren belarriei eta begiei gozamen polita emanez.



UTZITAKOA

Aurtizko gazteak Hiru Erregeen Mahaian

Iraileko bigarren asteburuan Aurtizko gazte kuadrillak izugarriko asteburua pasatu zuen. Hiru Erregeen Mahaiko kaskora igo ziren, larunbat goizean goiz abiatuta. Goitira ailegatu eta indarberritu ondotik, bertso eta algara artean beraien seinalea jarri zuten. Lagun talde honek sekula ez du ahaztuko erronka.



**HARTU
TTIPI TXARTELA
eta erabili**
pegatina hau ikusten
duzun denda eta zerbitzuetan

Aprobetxatu aukera!



Eugenio Tamayo, Natalia Rekarte eta Josean Martin, Dorrealdia jaialdiaren lehen edizioaren aurkezpenean. AITOR AROTZENA

Dorrealdia elkartasun jaialdia Donamarian

Gani Mirzo kurduaren emanaldia ortziralean eta Mielotxin taldearen proiektua larunbatean, Kurdistanen alde

TTIPI-TTAPA

Dorrealdia elkartasun jaialdiaren lehen edizioa hartuko du Donamariak urriko lehen asteburuan. eta bertan musikaz, arteaz eta kultura tradizionalaz gozatzeko aukera izanen da. Natalia Rekarte Donamariako alkatea, Josean Martin musikaria eta Eugenio

Tamayo antolatzailea izan ziren Donamariako Jauregian irailaren 17an egindako aurkezpenean. Natalia Rekartek aipatu zuenez, jaialdiari dorreak dituzten eskualdeko bertze herrietan segida ematea da asmoa eta dagoeneko solas egina dute Lesaka, Iru-rita edo Elizondoko dorreen

jabeekin. Rekartek eskerrak eman nahi izan dizkie Jauregiko jabe diren Mari Carmen eta Maria Angeles Peralta ahizpei, «altxor hau hain ongi zaintzeagatik eta horrelako ekitaldietarako uzteagatik», baita Nafarroako Gobernuari ere, «horrelako proiektuek nahitaezkoa duten dirulaguntza emateagatik».

Egitarau oparao

Bi proiektu paregabe eta original ikusteko eta aditzeko aukera izanen da Donamarian.

Alde batetik *Dignity Road* (Duintasunaren bidea) proiektua, Gani Mirzo musikari kurduak zuzendua. Fran Lasuen eta Josean Martin musikariekin batera arituko da. **Urriaren**

1ean, ortziralean 20:00etan eskainiko dute Jauregian. Topaketa solidarioa izanen da, Kurdistanango musikak entzuteko aukera emanen duena eta *Armonías para después de la guerra* dokumentalaren proiektua ere egingen dute. Bertzetik, Ordago proiektua, Mielotxin taldeak sortua, Nafarroako jotari oinarritutako musika eta dantza ikuskizuna **urriaren 2an**, larunbatean, 20:00etan Donamariako frontoiak eskainiko dute. Mielotxin taldea Iñigo Agerri, Ismael Yagüe, Pablo Castanera eta Salva Tarazonak osatzen dute eta beraiekin batera Noelia Compais jota-kantaria eta Saioa Askargorta, Leire Leza, Oihane San Martin eta Alix Artola dantzariak ariko dira. Bi emanalditarako sarrerak online eros daitezke (www.papeleriatamayo.com), 10 euroren truke, eta bildutako diru guztia Kurdistanango Mirzo Music Fundaziora bideratuko da.

Egitaraua osatzeko, eskultura erakusketa ikusgai izanen da urriko lehenbiziko asteburuan ere Gazteluaren lehenengo solairuan. Urriaren 3an, igande eguerdian, Jauregira bisita gidatua ere antolatu dute.



UTZITAKO ARGAZKIA

Laxoa desafioa besten seinalerako Oizen

Oizko plazan, besten seinale bezala, kuadrillen arteko laxoa desafioa jokatu zuten irailaren 11n, afariak jokoan. G. Mindegia (Doneztebe), A. Arozena (Doneztebe), I. Zelaieta (Oiz), A. Berasategi (Doneztebe) laukoteak 9-7 irabazi zion I. Juanena (Doneztebe), L. Zelaieta (Oiz), B. Alzugarai (Gaztelu), J. Apeztegia (Doneztebe) laukoteari. Sekulako giroa sortu zen.



Neomak taldea etortzekoa da Euskararen Egunean. ARTXIBOKOA

Euskararen Eguna urriaren 9an ospatuko dute

Goizean eskulangileek beraien lanak plazaratuko dituzte eta arratsaldean Neomak musika taldeak kontzertua emanen du

F. ETXEKOLONEA

Ez da beste urtetako ospakizun handirik izanen, baina, joan den urtean ez bezala, Euskararen Eguna bere tartetxoan izanen du aurten ere urriko bigarren larunbatean. Gazteek ez zuten aurtengoa deus antolatuta gabe utzi nahi eta seinalea bederen izanen da, segurtasun neurri guztiak betez eginen den egitarau xumearekin. Honela, urriaren 9an, eguerdi aldean eskulangileek beraien lanak plazaratuko dituzte eta arratsaldean, 19:00etan Neomak taldearen kontzertua izanen da.

Ekhiñe abeslaria ostiralean Errandoneko atarian

Euskararen Egunaren aurretik ere izango dira musika kontuak. Hain zuzen, urriaren 1ean, ostiralean 22:00 aldera Ekhiñe abeslariak emanaldia eskainiko du Errandoneko atarian. Aurretik, afaria izanen da leku berean.

Aurrera begira, berriz, urriaren 17a emakumezko langileei aitortza egiteko ospakizuna antolatu du udalak. Hurrengo aldizkarian emanen dugu egitarau zehatzaren berri, baina joaldunak, musika eta beste zenbait ekitaldi izanen dira.



IZASKUN ZUBIALDE

Ipuin kontalaria eta musika plazan

Amaia Elizagoien eta Irati Celestinoren eskutik ipuin-kontaketa saioa izan zuten herriko neska-mutikoen irailaren 11n, larunbat arratsaldean plazan. Egurdia lagun, gustura aditu zituzten Celestinoren doinuak lagunduta Elizagoienek kontatutako istorio liluragarriak.



IZASKUN ZUBIALDE

Oberena dantza taldearen emanaldia

Zubietako Udalak gonbidatuta, Oberena dantza taldearen emanaldia izan zuten irailaren 19an, igande eguerdian plazan. Oberenako talde nagusia eta Oberena Gaztea taldea aritu ziren eta Nafarroako, Bizkaiko, Lapurdiko, Gipuzkoako eta Zuberoako dantzak plazaratu zituzten ordubeteko emanaldian.

Beintza-Labaien ere ipuin kontalaria izan zuten irailaren 12an

ARANTXA ITURRALDE

Malerrekako Mankomunitateak, Beintza-Labaiengo Udalak eta Genero indarkeriaren aurkako estatu-ituna ekimenak antolatuta, Ameli eta Xirrikitu Jostunek ipuin-kontalariaren ikuskizunaz gozatu zuten

irailaren 12an Beintza-Labaien.

Amaia Elizagoien ipuin kontalariak eta Irati Celestinok musikariak eskolan egin zuten hitzordua, eta haurrak eta helduak bildu ziren. Denen gustukoa izan zen emanaldia.



Ameli eta Xirrikitu Jostunek Beintza-Labaien. ARANTXA ITURRALDE

Hainbat solasaldi izanen dira udazkenean

Lehenbizikoa urriaren 4an eskainiko du Ramoni Ordoki psikologoak Donezteben

P. IRASTORTZA

Abuztu aldean lerro hauetan aipatu bezala, laister hasiko dira ikasturte berrian eman nahi diren solasaldiak, beti hilabetearen lehenengo astelehenean. Jorratuko diren ikasgaiak ugariak eta anitzak izanen dira –entzuleak bertzerik eskatu ezean– eta beti gaiari dagokion jakitun batek garatuko ditu.



Ramoni Ordoki.

Donezteben lehena

Urriaren 4an, astelehenean 16:00etan, Donezteben izanen da estreinaldia, eta Ramoni Ordoki psikologoa izanen da bertan. Partehartzaileek aukera zabala izanen dute dituzten eztabaidak eta jakinmin guztiak Ramonirekin partekatzeko.

Non-nahi

Elkartearen asmoa, aukera hau hainbat herritan eskaintzea izanik, edonork bere herrian gai interesgarri batetaz solasaldi bat antolatu nahi izanez gero, elkarteak 948450878 edo 618567837 telefonoetara deitza gonbidatzen zaio. Kopurua mugatua dagoenez, parte hartu nahi duenak nahi-taezkoa izanen du bere izena bulegoan ematea. Doneztebeko hitzaldirako hilaren 3a izanen da apuntatzeko azken eguna.

Urriko galdera

Nafarroa Garaiko iparraldean zein menditan eraiki zuen Jorge Oteizak Aita Donostiaren omenezko oroigarria?
☎ 618 56 78 37.

Arkupeak elkarteak berriak Whatsapp bidez

Aurreko TTIPI-TTAPA aldizkarian agertu bezala prest daude Arkupeak elkartearen eskutik antolatu diren ikasturte berriko hainbat eskaintza, eta gehienak, urriaren lehenengo astean hasiko dira. Elkartearen desira, bazkideeri hauen berri azkar eta arin komunikatzeko bide berriak erabiltzea da. Hemendik aurrera, bulegoko telefonoaren Whatsapp bitartez zabalduko dira herri bakoitzean eskainitako aukera guztien berriak. Denen mesederako, komeni da 618567837 zenbakiari erne egotea, eta ez badugu martxan, anima gaitezen! gure inguruko edonork sartuko digu eta aukera zabal eta mesedegarri hori gure telefonoan. Elkartearen berri izateko bertze modu arina baita.



P. IRASTORTZA

Igantzin ordezkaria behar da

Zorigaitzez, iragan den abuztuan joan zitzaigun Igantzin urte aunitzetan elkarteak ordezkari izandako Amador Txoperena (Goian Bego). Herriko delegatu berria izateko deia zabaldu diete igantziar bazkideei. Azaroaren 12a izanen dute azken eguna, 948 45 08 78 edo 618 56 78 37 telefonoetara deituz.



P. IRASTORTZA

Omenduei opari xumea

Merezi duten egun handia –pena handiz– ezin ospaturik, herri bakoitzeko delegatuaren eskutik ari dira jasotzen Elkartearen oroigarri xumea. Osasunez gainezka segi dezatela opa die Arkupeak elkarteak, baita barkamenak eskatu ere, merezitako ardurari buruz Elkartek agian egindako akatsengatik.

Lodosarako irteera bi egunez eginen dute

Bi ateraldi antolatu dira Lodosara. Perón kontserba etxea bisitatuko da eta Larriongo Bentan bazkaldu. Azaroaren 4an Malerreka eta Leitzaldekoak joanen dira, eta azaroaren 11n Baztan eta Bortzirietakoak. Izen-ematea urriaren 4, 5 eta 6an (948 45 08 78).

Herrietako mus txapelketak antolatu dituzte udazkenean

Idazken honetarako eta beharrezko osasun neurriak hartuz, herrietako mus txapelketak antolatu dira. Parte hartu nahi dutenek herriko delegatuari eman beharko diete izena eta denon artean erabaki txapelketa bakoitzeko harat-honata. Sari politak ere banatuko dira.

Nafarroako bertsolari txapelketa Izaban hasiko da

Bi saio egingen dituzte eskualdean: urriaren 16an Donezteben eta azaroaren 28an Leitza. Finala azaroaren 28an Iruñean

TTIPI-TTAPA

Uste baino beranduago dator 2021eko Nafarroako Bertsolari Txapelketa, 45.ena. Urte hasieran izan behar zuena pandemiak gibelatu zuen, eta udazkenara ekarri. Bitartean, hankaz goiti jarri zaigu bizitza, eta bizitzarekin, bertsolaritza. Izurriak erabat moteldu du bertso plaza, eta agerian utzi du kulturgintzaren hauskortasuna. Eta beraz, txapelketak bultzada ere izan nahi du, «plazak berriz indartzen joan daitezen, eta aldarri, bertso-gintzaren eta kultur sorkun-

tzaren defentsan. Kultura, erantzukizunez, segurua da».

Ekainaren 18, 19 eta 20an jokaturako hiru aurre-kanporaketan ondorengo hiru fase nagusi izanen ditu 2021eko Nafarroako Bertsolari Txapelketa: final-laurdenak, final-lurrekoak eta finala. Guztira, 29 parte-hartzailek eman dute izena txapelketan, eta 24 izanen dira Izaban hasiko den ibilbidean izanen direnak: ekaineko aurre-kanporaketetan bortz gelditu ziren kanpoan.

Saio horietan azken txapelketan -hots, 2019koan- parte

hartu gabekoak aritu ziren, hasiberriak izan ala aspaldi parte hartutakoak izan. Haiei, azken txapelketako azken lau sailkatuak gehitu zitzaizkien, saioak osatzeko. Guztira, beraz, hemezortzi bertsolarik jokatu zituzten aurre-kanporaketak, eta horietatik 13 sailkatu ziren txapelketarako. Haiekin batera ariko dira aurrez dagoeneko sailkatuta zeuden bertze 11 bertsolariak.

Lau final-laurden izanen ditu txapelketak, 24 bertsolariarekin. Hortik, 18 sailkatuko dira final-lurrekoetarako. Hiru izanen dira guztira final-lurrekoak, eta hortik zortzi bertsolari pasako dira finalera. Azaroaren 28an jokatu dute hori, Iruñeko Anaitasuna kiroldegian. Puntu gehien eskuratutako bi bertsolariek buruz burukoa jokatu dute, eta horietako batek jantziko du txapela.

Aurtengo txapelaldunaz gain, hurrengo Bertsolari Txapel-

keta Nagusian parte hartuko duten Nafarroako bortz ordezkariak hautatuko ditu txapelketak; txapelduna, eta hurrengo lau sailkatuak.

Final-laurdenak urriaren 2an Izaban hasita

Final-laurdenetako saioei dagokienez, lehenbizikoa **urriaren 2an**, larunbatean, 17:30ean, hasita jokatu dute Izabako zineman. Julen Zelaia Iriarte (Bera), Eneko Fernandez Maritxalar (Lesaka), Endika Legarra Nuin, Patxi Castillo Graziarena (Bera), Aitor Irastortza Arrizurieta eta Idoia Granizo Uribarrena ariko dira, Alaitz Rekondo Ferrero lesakarra gai-jartzaile dutela.

Urriaren 9an, larunbatean, 17:30ean, Tafallako Kultur Etxean Eneko Lazkoz Martinez, Saioa Alkaiza Guallar, Alazne Untxalo Erregerena (Ituren), Ekhiñe Zapiain Arlegi (Bera), Erika Lagoma Pombar (Lesaka) eta Urko Gartzia Aleman



www.bertsozale.eus
Sarrerak www.bertsosarrerak.eus atarian salgai

Nafarroako Bertsolari Txapelketa 2021

Urriaren 2tik azaroaren 28ra
Izaba · Tafalla · Zangoza · Doneztebe · Altsasu
Berriozar · Leitza · Iruñea




(Lekaroz) ariko dira, Ander Aranburu Arriola gai-jartzaile dutela.

Urriaren 10ean, igandean, 17:30ean, Zangozako Karmengo Auditorioan Joanes Illarregi Marzol (Leitza), Xabat Illarregi Marzol (Leitza), Sarai Robles Vitas, Xabier Silveira Etxeberria (Lesaka), Mikel Lasarte Cia eta Oier Lakuntza Irigoien ariko dira, Zigor Garzia Arregi Zian gai-jartzaile dutela.

Urriaren 16an, larunbatean, 17:30ean, Doneztebeko zine-man Julio Soto Ezkurdia gaur egungo txapelduna, Josu Sanjurjo Altzuri (Lesaka), Iker Gorosterrazu Elizagoinen (Ituren), Ekain Alegre Gil, Egoitz Gorosterrazu Elizagoinen (Ituren) eta Sahats Aleman Sada-ba ariko dira, Maialen Belarra Eneterreaga doneztebarra gai-jartzaile dutela.

Finalaurrekoak eta finala azaroan

18 bertsolari sailkatuko dira **azaroaren 1ean** Altsasun hasiko diren finalaurrekoetarako. Izabako irabazlea eta puntuazioaren arabera sailkatutako bertze bortz bertsolari ariko dira, Fernando Anbus-tegi Goñi elizondarra gai-jartzaile dutela. Bigarren finalaurrekoa Berriozarren jokatuko dute **azaroaren 6an** Tafallako irabazleak eta bertze bortz bertsolarik eta azken finalaurrekoa Leitzako Herri Aretoan izanen da **azaroaren 14an**, igandean, 17:30ean. Azken honetan Zangozako eta Doneztebeko saioretako irabazleak ariko dira, puntuazioaren arabera sailkatutako bertze lau bertsolarirekin, Ainhoa Larretxea Agirre berratarra gai-jartzaile dutela. Orduan erabakiko da **azaroaren 28an**, igandean, 17:00etan hasita, Iruñeko Anaitasuna kiroldegian jokatuko den finalean lehiatuko den zortzikotea. Alaitz Rekondo Ferrero lesakarra eta Ander Aranburu Arriola izanen dira finaleko gai-jartzaileak.



Iruñean aurkeztu zuten Nafarroako Bertsolari Txapelketa irailaren 11n.



solasean

Elkarrekin ondo pasatuz, euskara indartu!

Eman izena irailaren 15etik urriaren 3ra

8 eta 12 urte bitartekoen euskararen
ahozkotasuna lantzeko egitasmoa

Leitzan: laga@iparmank.eus · 948 510 814

Bortzirietan: euskara@bortziriak.eus · 948 634 125









«Udalean gaudenetik ez dugu herriko bestarik antolatzerik izan»

IMANOL JUANENA ALEMAN URROZKO ZINEGOTZIA

San Migel besten inguruan Urrozen antolatu behar dituzten ekitaldien berri eman digu Imanol Juanena zinegotziak. Horretaz gain, bertze hainbat kontu dituzte herrian eta herritarrek auzolanetan parte hartzeko duten borondatea azpimarratu du

AITOR AROTZENA

Irail hondarrean herriko bestetako ospakizunetan egon beharko lukete Urrozen ere. Baina joan den urtean bezala, aurten ere ez dute San Migel bestarik izanen... Horren ordez, seinale gisara ekitaldi bat edo bertze egitea erabaki du udalak... Horren berri eta agintaldiaren erditsua betetzen ari direnean, udaleko bertze zenbait konturen berri izateko Imanol Juanena Aleman zinegotziarekin izan gara.

Irailaren 16an egindako bileran Sanmigelen inguruko kontuez aritzekoak zireten... Herriko bestarik ez bada ere, zerbait egiteko asmorik bada?

Irailaren 16an izan genuen plenoan San Migel Egunean, irailaren 29an, meza nagusiaren ondotik herriko ostatuan luntxa ematea erabaki genuen. Horrez gain, haurrendako egunen bat antolatu nahiko genuke eta aizkora apustu bat ere ekarri asmo dugu. Gauza gehiagorik ez, momentuz. **Duela bi urteko udal hauteskundetan hasieran ez zen zerrendarik Urrozen, eta gero sortu zenuen taldea... Zail izaten da udaletxean lan egiteko taldea osatzeta?**

Herri ttiki hauetan zaila da udalean sartzeko jendea biltzea. Jendeak ez du konpromiso hori hartu nahi baina norbaitekin egin behar du. Lehenagotik zeudenak zortzi urte egin ondotik atera ziren eta haiei erreleboa emateko sartu



Udaletxean ez ezik, abeltzain lanetan ere aritzen da Imanol Juanena.

ginen: lehenago egona zen bat, eta bertze lau berri. Josu Zozaiak hartu zuen alkatetza, baina elkarlanean aritzen gara denak.

Agintaldi erditsura ailegatuta, zein izan dira orain arte egin ahal izan dituzten lanak? Nola moldatzen zarete?

Plenoak hiru hilabeteko egiten ditugu, eta tartean baten bat gehiago, horrela suertatzen bada. Orain arte pistak mantentzeko auzolanak egin di-

tugu, *eskollera* bat ere bai. Ostaturiko eta udaletxeko atearik aldatu ditugu, baita ura berotzeko kalderak ere eta frontoiko argi berriak paratu ditugu. Horrez gain, Leurtzan apartakalekua dezente handitu behar izan genuen leku gehiago izateko.

Pandemia tarteko, pentsatzen dut agintaldi berezia izanen dela Urrozen ere...

Bai. Orain arte, gu sartu garenetik, ez dugu bestarik anto-

«HERRI TTIKIOTAN ZAILA DA UDALEAN SARTZEKO JENDEA BILTzea»

«AZKEN ALDIAN GAZTE GEHIENAK HERRIAN GELDITZEN GARA»

latu ahal izan adibidez, eta iaz udan Leurtzan lan aunitz izan zen, dena COVID-19ak eskatzen dituen osasun baldintzetara egokitzen, ibilbidea, edukiera, garbiketak... langileek lan aunitz izan zuten!

Zenbatsuko aurrekontua izaten du Urrozko udalak? Zein izaten dira sarrera nagusiak? Eta gastuak?

Ehiza postuen enkantetik aunitz ez baina zerbait sartzen da, menditik ere bai pixka bat, kontribuzioak eta dirulaguntzak gehienbat. Gastuei dagokienez, herriko langileen ordainketak, herriko mantenimenduak, pistak, argia... iaten dira handienak.

Aitzinera begira, baduzue egitasmo edo proiektu bereziren bat begien bistan?

Momentuz ez dugu deus berezirik pentsatu. Bide bat asfaltatzeko lanetan ari gara, Leurtzako urtegiari beti izaten da zer egin, komunak, inguruko ibilbideko egurrak, eserlekuak... Eta herrian zuntz optikoa, fibra sartu asmo dugu. Egunen batean ailegatuko da hori ere eta bien bitartean bertze sistema batekin lanean ari gara Internet sarea hobea izateko.

Zein dira Urrozko dituen indarguneak eta ahulguneak?

Indargune bezala erranen nuke gauza aunitz egiten dela auzolanetan eta jendeak ez du arazorik izaten horietan lan egiteko. Ahulgune bezala, berriaz, herri ttiki gehienetakoa aipatuko nuke, gauza aunitzetarako Doneztebera edo Iruñera joan behar duzula, bertan ez dugulako horrelako zerbitzurik.

Jende gaztea herrian gelditzen da edo populazioa murrizten ari da?

Azken urteetan populazioa mantentzen ari da guti goiti-beheiti.

Nola ikusten duzu herriaren etorkizuna?

Azken aldian gazte gehienak herrian gelditzen ari gara, ea joerak berdin segitzen duen etorkizunean ere!

Aste honetan itzuliko da liburutegi ibiltaria Areso, Goizueta eta Aranora

Asteazkenean Areson eginen du geldialdia eta ostegunean Goizuetan eta Aranon



Liburutegi ibiltaria Goizuetan artxiboko irudi batean.

TTIPI-TTAPA

Irailarekin batera, Leitzako liburutegiko liburuzaina prest da berriz ere Areso, Goizueta eta Aranon barna egin ohi duen itzulia egiteko.

Asteazkenean, irailaren 29an, Areson eginen du geldialdia, eta 14:15etatik 15:00etara hantxe izanen da. Ostegunean, berriz, irailaren 30an, Goizuetara eta Aranora joanen da. Aurreneko bisita Goizuetara eginen du, 14:30etik 15:30era. Aranon bukatuko du itzulia, 16:00etatik 16:30era.

Orain arte bezala, aurretik liburuak eskatu nahi dituenak Whatsappez 617 38 58 82 telefonora edo posta elektronikoz biblilei@navarra.es helbidera idatzita izanen du horretara aukera,

Artilea biltzeko azken bilketa kanpaina

«Oraindik eskualdean artilea era egokian kudeatzeko beharra dagoela» ikusita, Mendiak Mankomunitateak irailean «azken bilketa kanpaina» egiten du. Asteartean, irailaren 28an, 09:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 17:30era biltzekoa zuten, eta ostegunean, irailaren 30ean, 15:00etatik 19:00etara. Leitzako garbigunean bilduko dute eta gero baimenduko kudeatzaile beti emanen diete «konposta egin dezan». Artilea zakuetan eramateko eskatu dute, «eta ez obretako saka handietan».

DESKONTUAK LEITZALDEA TTIPI TXARTELA

Erakutsi eta aprobetxatu aukerak!

%5 DESKONTUA 30etik goitiko erosketetan Uharte Gotzaina, 1-behe 4 LEITZA T. 948 51 36 20	%10 DESKONTUA 30etik goitiko erosketetan Landa Behekoa LEITZA T. 948 51 04 37
%10 DESKONTUA esketan eta oroigarrietan Koskontako bidea, 7-1 LESAKA T. 948 63 54 58 bagoaz@ttipi.eus	%3 DESKONTUA 30etik goitiko erosketetan Elbarren, 21 LEITZA T. 948 51 00 55
%5 DESKONTUA kosmetikan %10 DESKONTUA opari 50€-tik goiti Elbarren, 67 LEITZA T. 948 51 02 73	%10 DESKONTUA koltxoi, somier eta burkoetan. Eskaintzetan izan ezik Elbarren, 45 LEITZA T. 948 51 02 08
%5 DESKONTUA bainugelako osagarrietan Elgoien, 32 LEITZA T. 948 51 00 86	%5 DESKONTUA 30etik goitiko erosketetan Elbarren, 36 LEITZA T. 948 61 09 76
%10 DESKONTUA oparitzeko artikuluetan Elbarren, 15 - Herriko Plaza LEITZA T. 948 51 01 46	%5 DESKONTUA 25etik goitiko erosketetan Elbarren, 17 LEITZA T. 948 61 09 74
%5 DESKONTUA gozotegian 30etik goitiko erosketetan Elbarren, 20 LEITZA T. 948 51 07 20	%5 DESKONTUA erosketa guztietan Elbarren, 19 LEITZA T. 948 51 07 48
%10 DESKONTUA hamar saioko bonoetan Uharte Gotzaina, 8-3.C LEITZA T. 948 51 07 30	%5 DESKONTUA 30etik goitiko tratamendu eta kosmetikan Uharte Gotzaina, 4 behe LEITZA T. 638 30 61 10
%5 DESKONTUA 30etik goitiko erosketetan Elbarren, 66 LEITZA T. 948 51 36 11	DESKONTUA Bazkide egiteko sarrera doan urte bateko iraunkortasunarekin Amazabal Kalea, 39 LEITZA T. 948 51 07 19

Moda gehigarria 2021

Udazkena ailegatu orduko hasi gara armairua astintzen. Urtero bezala, udako arropak gorde eta sasoi berrikoei ongi etorria emanen diegu. Iazko arropa batzuk berriz ere aterako ditugu eta bertze batzuk erosi beharko! Tikiak gelditu zaizkugulako, zuloren bat dutelako edo, zergatik ez, azken tendentziak eramatea maite dugulako. Denboraldi berri honetan proposamen mordoa egin digute moda adituek haurrentzako, gazteentzako, gizonezkoentzako eta emakumeentzako, eta horietako batzuk erakutsi nahi dizkizuegu.



Estetika-zentroa

Zuri
Edertasuna eta teknologia



Santiago, 59 behea – Elizondo
Tel. 948 10 32 00 - M. 676 14 00 81

Estetika aurreratua, aurpegiko eta gorputzeko bioterapiak, HI-FU, Empitsu metodoa, BBGLOW, radiofrekuentzia, presoterapia, manikura, pedikura eta askoz ere tratamendu pertsonalizatu gehiago eskaintzen dizkizugu!





Beola Etxea

VENTA

Ibardin gaina, 30 BERA · T. 948 630 709

www.beolaetxea.com 



Udazken-neguka
MODA BERRIA
DAGOENeko ZURE ESKURA



OSAGARRI, BITXI, POLTSA
eta OINETAKOETAN
aukera zabala

LURRINDEGIAN
sekulako
eskaintzak!!

HAURREN ARROPA
5-16 urte bitarteko
neurriak

Vilanova
accessories

TIFFOSI  KIDS

TIFFOSI 

BLEND®

Olatz

Zapata-denda 

Denboraldi berria!

Tel.: 948 450 339 - Elizagibela, 5 DONEZTEBE  

Joera berriak eta deigarriak hotzari alaitasunez aurre egiteko

Sporty estiloa gaztetxoentzako

2021eko udazkeneko denboraldian, haurrentzako arropa diseinuetan, oihal leun, bero eta erosoak izanen dira protagonista, hala nola, kotoia eta artilea.

Koloreei dagokionez nabarmentzen dena grisa da, pastel-koloreekin, lur kolorearekin, neutroekin edo berdea, gorria, arrosa, laranja eta horia bezalako kolore biziekin konbinatuta. Estanpatu koadrodunek eta geometrikoek garrantzia hartuko dute oraingoan. Neguko hotzari aurre egiteko beroki metalizatuak tonu neutroko piezekin konbinatuko dira. Eta segur aski haurrentzat *sporty* estiloa izanen da gustukoena; kirol-zapatilak, kirol-jertseak, txandalak...

Athleisure edo *sporty* estiloa nerabeen artean ere nabarmenduko da. Jertseak eta gona motzak bezalako jantzi formalagoak konbinatuko dituzte. *Joggerak*, aurreko denboraldian bezala, berriz ere nagusituko dira, kirola eta janzteko arropa nahasteko joera horri esker.

Denim joera ezin alde batera utzi. Armairuak bakeroarekin beteko dituzte; galtzak, al-kandorak eta galtzamatzak, gonamotzak... Bertzalde, bonberrak ere nabarmendu behar dira. Gaur egungo gazteen moda-bilduma guztiek mota horretako jakak dituzte. Estilo klasikoagoko bonber berdeak aurki ditzakegu, *oversize* estilokoak diren beste batzuekin batera. Era guztietako alkandora, kamiseta, jaka edo galtzetan ere ikusiko dugu *oversize* moda, hau da, neurri haundietako janzkiak eramango dituzte.

Janzkera deigarriak bueltatuko dira emakumeentzako

Azken hilabeteetan, modaren arauak aldatzen doaz eta lurex blusen, jantzi distiratsuen eta dir-dir egiten duten osagarrien erabilera sustatzen ari dira adituak. Hauek guztiak denboraldi honetan jendeak behar duen alaitasunaren eta baikortasunaren islada dira. Lentejuelak, litsak eta distirak *glamouraren* seinale izanen dira.

Krisi garaian, puntuzko jantziak hor daude, nolabaiteko erosotasuna emateko. Tes-tuinguru honetan, puntu bihurrituaren joera dugu. Bolumen borobilak jertseetan aurkitzen ditugu, baina baita soineko luzeetan, mahukarik gabeko topetan edo gonetan ere.

Kirolekoa, minimalista edo kakorratzezkoa, mahukarik gabeko jertseak itxura desberdinak hartzen ditu aukeratutako estiloaren arabera. Gure aitonaren jertsea edota 90eko hamarkada nostalgiaz gogorarazten badizkigu ere, mahukarik gabeko jertseak geruza-jokoa ahalbidetzen du; kamiseta solte baten gainean, alkandora baten gainean edo lepo altuko blusa baten gainean. Top moduan ere eraman daiteke.

Diseinatzaileek 90eko hamarkadako jantziak ere ateratu dituzte. *Skaterean* inspiratutako silueta solteak, *crop top* sexyak, txandal konjuntioak eta kolore distiratsuek dira, baita fluoresenteak ere. Joera hori ere indartsu dator eta geratzeko iritsi da.

Koloreei dagoekionez, laranja, mostaza, horia, berdea, lila, urdina eta gorriaren estiloko kolore biziak argiekin nahastuko dira. Zuriak, beixak eta kanelak beltzari tokia kenduko diote.




Maite moda
arropa eta osagarriak

 maite.moda
 Maite Moda

T. 948 450 727
Kale Nagusia, 4 behea
DONEZTEBE



KAPRITXO

Opariak
Bitxiak
Nesken arropa
Mutilen arropa


T. 619 45 02 49 | LEITZA



Zig Zag

Moda
Estiloa
Joerak

T. 699 31 78 30
Doneztebe
Ametzia ibilbidea 5 behea
info@zigzagmoda.com



Zatoz Venta Peiora gure moda ezagutzera

ADIDAS - AMERICAN TOURISTER - ARMANI EXCHANGE - BENZI - BELLOSTA&MORLANS - BIRKENSTOCK - BOBOLI - BMK - CALVIN KLEIN - CAPTAIN CORSAIRE - CHAMPION - CLARKS - COLUMBIA - CONVERSE - CORONEL TAPIOCCA - DESLSEY - DESIGUAL - DOCKERS - EASTPAK - ECOALF - ELLESSE - ELEMENTERRE - EL PULPO - EMPORIO ARMANI - ESPRIT - FILA - FJÄLL RÄVEN - FLUCHOS - GEOX - G-STAR RAW - HACKETT - HAPPY SOCKS - HAVAIANAS - HILFINGER DENIM - HELLY HANSEN - I.CODE - IKKS - IPANEMA - JACK & JONES - JOMA - KANGAROOS - KAPORAL - LACOSTE - LACOSTE LIVE - LAURA AZAÑA - LE TEMPS DES CERISES - LES TROPEZIENNES - LEE - LEGO WEAR - LEVI'S - LEYLAND - LOLLIPOPS - MANGO - MERRELL - MILLET - NAPAPIJRI - NEW BALANCE - NEW ERA - ODLO - OKIOS - ONLY - ONLY & SONS - ORCHESTRA - OXBOW - PEPE JEANS - PROMISE - JACK & JONES - RALPH LAUREN REEBOK - RIP CURL - SAMSONITE - SELECTED - SKECHERS - SUPERDRY - TAMARIS - TBS - TEVA - THE NORTH FACE - TIMBERLAND - TOMMY HILFINGER - TRESPASS TRANGO WORLD - UMBRO - UNDER ARMOUR - VANS - VERO MODA - VICTORIA - VILA - VIOLETA BY MANGO - WRANGLER - YOKOMO

PEIO
mode

WWW.VENTA-PEIO.COM

Tel: +34 902 210 800 (es) | 0820 562 267 (fr)

Arnegui | Dantxarinea | Behobia | Landibar | Agus Benta | Ibardin





CELZADOS VIRGILIO OINETAKOAK

Larunbat arratsaldetan irekia
FAMILIA UGARIENDAKO %10eko deskontua

Santiago,32 · ELIZONDO · 948 580 209
www.calzadosvirgilio.com



KATTAGORRIA

Jaioberrientzako MODA

Orain online ere eskuragarri!

WWW.TOPTOPA.SHOP/EU/GURE-DENDAK/KATTAGORRIA

KATTAGORRIA · BEHEKO PLAZA 10, LESAKA · 948 627 514



ETIKETAK
kopuru eta neurri
pertsonalizatueta

kulturkari@ttipi.eus
www.kulturkari.com

Erosotasuna nagusi gizonen arropetan

Negu aldera egin ahala, beroki lasaiek, alkandora barrubigun karratuek eta praka luzeak ikusiko ditugu berriz ere karriketan. Hori bai, gerrikoa duten beroki handiak nabarmenduko dira.

Arropa erosoan eramango da denboraldi honetan, galtza lokarriidunak, kamiseta zabalak, gaineko alkandora laxoak... pijamaren erosotasuna bilatuko da, azken finean.

Oihalei dagokionez, artilea berriz ere dator, baita larrua ere.

Praka estuak jokoza kanpo gelditu dira. Denbora aunitz daramate gizonen artean eta hauen orde, 80ko eta 90eko hamarkadetakoa galtza lasaia itzuli dira, horrela erosotasunari lehentasuna emanez. Kargo galtzak ere bueltatu dira, sakel handiak dituztenak, eta orain badirudi geratzeko itzuli direla.

Jantzi handiak edo galtza zabalak izan, oihal marradunak nonahi ikusiko dira. Eta marrekin batera koadroak ere ez dira faltako. Hauek franelazko alkandoretan ikusiko ditugu gehienbat.



Oinetako berritzaileak

Oinetakoen moda berria, aldatetek eta aire berriek markatuko dute, eta hori ongi etorriko zaie oinetakoak aldatu nahi dutenei. Baina horrek ez du esan nahi dena atzean utziko denik. Ohikoa den bezala, badira indarrean dauden klasiko batzuk. Tenperaturak behera egiten duenean, litekeena da inork aurreratuko ez zituen bota eta botin berriak agertzea.

Bota klasiko altuak dira, adibidez, 2020an oso ezagunak izan zirenak eta oraindik ere modan daudenak, eta soinekoekin zein gonekin oso ondo konbinatu ditzakezu. Dena den, zurea *casual* estiloa bada, bonbatxo galtzak ere bikain konbinatzen dute hauekin.

Gainera, udazken eta negu honetarako berritasun handienetako bat zoru lodiko *casual* zapatilak dira, diseinu nahiko erakargarri eta dotoreen bidez indartsu ailegatu direnak.


Estilo abangoardista nahiz klasikoagoa erakutsi nahi dutenentzat, *cowboy* botak oraindik ere modan daude. Eta oinetakorik ezohikoenetan interesa dutenentzat, botak, zapatak, sandaliak eta plataformetako botinak ere eramaten segituko dira.

Estetika naturala modan dago

Jakina, esmalte zuri, beltz eta nudeak ezin dira falta 2021eko udazkeneko zure bilduman, baina ezagutzen ditugun oinarritzko horietaz gain, berdea, urdina, horia, gorria, lila, kafea, laranja eta holografikoak ere badaude.

Larruazal distiratsu eta naturala izanenu duzu jomuga udazken honetan; gorria, arrosa, laranja eta gorritza ezpainen kolore biziekin konbinatuta. Aurpegi argitsua eta freskoa lortzeko teknikak erabiliko dira, eta hidratazio produktuen erabilera garrantzitsua izanen da. Begiei dagokienez, kolore berdeko itzalak nagusituko dira, baita urdinak, laranja, moreak eta urrezatuak.

Aipatzekoa da betileak eta bekainak hagitik paper garrantzitsua betetzen dutela 2021eko udazkeneko makillajea. Lehenengoei dagokienez, lodiak, zarratuak eta kizkurtuak ikus daitezela bilatuko da, eta hori lortzeko, betileen *liftinga* probatzea gomendatzen dizugu. Bekainei dagokienez, berriz, luma itxurarekin eramango dira eta horretarako probatu behar duzun tratamendu laminatua edo *brown lamination* da. Tratamendu honekin bekain definituak, orraztuak eta bolumena lortuko duzu.





NEW COLLECTION

%10EKO DESKONTUA
FIDELTASUN TXARTELAREKIN

BIOK 
FASHION

ventabiok.com

Udalak bost ikastaro proposatu ditu ikasturte honetarako

Ikastaroak urritik maiatzera izanen dira eta gutxienez zortzi lagun beharko dira taldea ateratzeko

TTIPI-TTAPA

Udako oporrak bukatu eta irailean sartuta, ikastaroetako eskaintza prestatu du udalak. Guztira bost ikastaro jarri ditu aukeran: pilates (gorputza luzatu, indartu eta orekatzeko ariketak), jumpfit (ohe elastikoan musikaren erritmora) eta eskulanak eta, aurren berrikuntza diren entrenamendu funtzionala (ariketak) eta body combat (arte martziale-tan inspiratutako programa kardiobaskularra) eta 65 urtetik gorakoentzat jarduera fisikoko egokitua.

Astearte honetan, irailaren 28an, bukatzekoa zen izena emateko epea eta izandako erantzunaren arabera aterako dira aurrera. Izan ere, taldea ateratzeko gutxienez zortzi lagun behar dira eta gehienez hamabi.

Taldeak ateratzen badira pilates astearte eta ostegunetan, 17:00etatik 18:00etara, izanen da, dantzen lokalean (195 euro); jumpfit ere astearte eta ostegunetan izanen da, toki berean, baina 18:00etatik 19:00etara (236 euro). Entre-

namendu funtzionala eta body combat ere astearte eta ostegunetan eta toki berean izanen dira, 19:00etatik 20:00etara (195 euro).

65 urtetik gorakoentzako jarduera fisikoa, berriz, astelehen eta ostiral goizetan egin nahi dute, 09:30etik 10:30era, dantzen lokalean (177 euro), eta eskulanak ostiraletan izanen dira, 16:00etatik 19:00etara Iriartenean, Tifanixon (265 euro).

Urritik maiatzera

Ikastaroak urrian hasi eta maiatzera arte izanen dira, eta hala, 59 saio izanen dira, eskulanen kasuan, 30. Ordainketa, bestalde, bi zatitan ordaindu beharko da, aurreneko zatia urrian eta bigarrena ilbeltzean. Zenbat eta gehiago apuntatu orduan eta merkeagoa izanen da ikastaroa. Udalak jakinarazi duenez, arrazoi justifikaturik ez badago, ez da dirurik itzuliko, eta ikastaroan jarraitzeko ordezkoko pertsona bat bilatuz gero, bere lekua hartu ahal izanen du, ilbeltz hasieran.



Sarek deituta maiatzean egin zen mendi ateraldiko irudia. ARTXIBOKO ARGAZKIA

Presoen aldeko martxarekin bat egin du udalak

TTIPI-TTAPA

Sare plataformak deituta, asteazken honetan, irailaren 29an, Lesakatik abiatzekoa zen Nafarroa osoa zeharkatuko duen presoen aldeko martxa, *Ibilian ibilian, etxerako bidean* lelopean Berriozarren bukatuko dena. Goizuetarrei ibilbideko zazpigarren zatian parte hartzeko deia egin zieten, ostegun honetan, irailaren 30ean, Doneztebetik Saldiaserako errepidean, Urrozetik atera eta kilometro batera gutxi gorabehera, gauerdian.

Udalaren adierazpena

Horri lotuta, irailaren 17ko aparteko batzarrean, Goizuetako Udalbatzak presoen urruntzeari eta salbuespenezko espetxe politikari buruzko erakunde adierazpena onartu zuen aho batez. Uda-

lak urruntze politikarekin ez dagoela ados adierazi du, eta «ETaren indarkeriaren behin betiko etenak irekitako garai berrian, espetxe-politika berria» aldarrikatu du, hau da, «presoak zigorrak gizarte-eta, familia-erroak dituen lekutik urrun betetzea saihesten duen politika bat».

Hortaz, «Nafarroan errol-datuta dauden 29 euskal presoak Iruñeko espetxera lekualdatzeko eskatzen dugu». Horrekin batera, «legeak jasotzen duen moduan, graduen profesiorako aukera ahalbidetzea» exijitu du udalak, «euskal presoek dagokien etxerako ibilbidea garatu dezaten».

Bestalde, Lesaka eta Berriozar lotuz egitekoa den martxarekin ere bat egin du udalak, baita herritarrei parte hartzeko deia egin ere.

Mendialdeko buruz buruko pilota txapelketako partidak ostiraletan herrian

TTIPI-TTAPA

Irailaren 10ean hasi zen Umore Ona pilota eskolako Araxes, Larraun eta Aurrera pilota eskolekin elkarlanean antolatutako buruz buruko Mendialdeko III. txapelketa. Geroztik asteburuetan pilota partidak jokatzen aritu dira herri-herri,

eta tartean, ostiral arratsaldetan herriko frontoian. Joan den asteburuan ligaxkakoz azken partidak jokatzeak zituaz, asteburu honetan finalerdiak egingen dituzte eta finala urriaren 8an. Umore Onako 13 pilotari ari dira txapelketa honetan.



Gaztetxoak buruz buruko txapelketan, herriko frontoian. IGOR ELIZEGI

1936an zigortutako irakasleak babestu zituztenei eskerrak

Duela 85 urte zigortu zituzten eskolako bi irakasleei emandako babesa eskertu dute irakasle haietako baten seme-alabek

TTIPI-TTAPA

Datorren urriaren 16an 85 urte beteko dira Nafarroako Hezkuntza Sailak Aresoko maisu-maistrak zigortu zituenetik. Beraien euskaltzaleasuna izan zen 1936ko urriaren 16an Juan Erentxun Onzalo eta Martine Elisabete Maiztegi Arrizabalaga irakasleak zigortzeko arrazoi eta soldata murrizteaz gainera, herritik kanporatu zituzten.

Orain, 85 urte beranduago, nesken irakaslea zen Elisabete Maiztegiren Xabier, Iñigo eta Arantza Garaialde Maiztegi seme-alabek garai hartan aresoarrek irakasle zigortuei eman zieten babesa eskertu nahi izan dute eta Jose Otermin alkateari «egungo aresoarrei beraien aurrekoei azaldu ahal izan ez genien esker ona helarazteko» eskatu diote uda-

letxera bidali duten gutun baten bitartez.

Idatzian diotenez, zigorraren ondorioz, «gure ama Abaurregaineko eskolara aldarazi zuten eta aurrerantzean euskal zonaldean irakastea debekatu zioten. Horren eraginez, amak lana utzi behar izan zuen eta 1979. urtera arte ez zuen irakaskuntzara itzultzeko aukerarik izan. Azkenik, 1981ean, irakaskuntzatik jubilatu zen inolako pentsiorik gabe».

la herri osoaren babesa

Azken aldian Nafarroako Artxibo Historikoak gerra zibilko zigorraren espedienteak ireki ditu, eta Garaialde-Maiztegi anaia-arrebek adierazi dutenez, «orduan ezagutu dugu Aresoko herriak, ia bere osotasunean, bi irakasle zigortuei eman zien babesa». Beste agi-

ri eta txostenen artean, herri-tarrek bi irakasleen alde bildutako sinadura kopurua nabarmendu dute: «Guztira 260 sinadura ageri dira, alkatearen eta apaizen sinadurekin hasita. Esan daiteke herri osoa, bizpahiru salbuespenekin, irakasleen errugabetasunaren alde agertu zela». Eta elkartasun hori «une hartan Euskal Herrian, eta Nafarroan bereziki, zebilen indarkeria basatia kontuan izanik, harrigarria» iruditu zaie. Are gehiago, «hunkitu» direla ere aitortu dute, «hasi alkatearekin eta sinadurak jaso zituzten bi umeetaraino».

«Keinu eskuzabal hura» eskertu nahian bidali dute orain gutuna. «Nahiago genuke askoz lehenago eskertu herri osoak emandako babes hura», baina «ez da posible izan». Hala ere, «Aresoko herria eskertu nahi dugu 1936an egia- ren defentsan eta gure amaren onuran bertako herritarrek egin zuten ekintza ausarta eta ohoragarriagatik».

Udalak, berriz, bando bidez jakinarazi du bere garaian irakasleen alde sinatu zuten herritarren zerrenda eta egunkariko albistea udaletxean ikusgai daudela.



Aresoko jubilotekan. AINHOA ANSA

Jubiloteka zerbitzua probatzeko aukera datorren astean

TTIPI-TTAPA

Aurreratu bezala, martxan da Arano, Areso, Goizueta eta Leitzako jubiloteka zerbitzua. Irailaren 13an hasi ziren eta lau herrietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen hitzetan horixe da «burua eta gorputza lantzeko proposatutako errezeta, botikarik hoberena».

Astean behin, 10:00etatik 13:00etara, egiten dute hitzordua: astelehenetan Leitzako udaletxeko lehen solairuan, asteartetan Goizuetako jubilatuen elkartearen, asteazkenean Aresoko udaletxeko lehen solairuan eta ostegunetan Aranoko Maisuenean. Parte hartu ahal izateko hilabetearen bost euro ordaindu behar izaten dira eta izen-ematea 948 51 08 40 telefonora deituta eman behar da.

Oraindik jubiloteka ezagutu ez eta bertatik bertara ikusi nahi duenarentzat, datorren astean hainbat egun zehaztu dituzte probatzeko: Leitzan urriaren 4an, astelehenean, izanen dute probatzeko aukera; Goizuetan urriaren 5ean, asteartean; Areson urriaren 6an, asteazkenean, eta Aranon urriaren 7an, ostegunean. Interesa dutenek beraien herriko txokora agertu beharko dute, 11:00etan.



E. IRAOLA

29 ikaslek hasi dute ikasturtea eskolan

Irailko lehenbiziko egunekin batera hasi da mugimendua eskola inguruan. Hiru ikasle berri gehitu dira taldera, argazkian ageri diren Xabat, Maddi eta Kattalin. Denera 29 izango dira, Haur Hezkuntzan 13 eta Lehen Hezkuntzan 16. Milaka abentura dituzte elkarrekin bizitzeko.

Hainbat ikastaro eskainiko dituzte ikasturte honetan

Kirol Mankomunitateak eta udalak antolatuta, hainbat ikastaro izango dira aurten ere herrian bertan. Helduek pilates, ttikienek psikomotrizitatea eta Lehen Hezkuntzakoek kirol hastapena izango dituzte.

Bestalde, udazkena ate joka dugu honetan ehiztariak hasi dira denboraldia prestatzen. Lanak banatu dituzte Usoa elkarteak kideek eta postuak berritzen ari dira. Postuen enkanteak irailaren 18an eta 25ean egitekoak zituzten. Datorren aldizkarian jasoko dugu honen berri.



Herriko eta inguruko herrietako udal ordezkariak Uli mendian. MIKEL ZABALETA

Beotibarko gudaren 700. urteurrenean hainbat hitzordu

Inguruko udal ordezkariak Uli mendian bildu dira «denak nazio bereko herritarrek garela» aldarrikatzeko

JUAN MARI BARRIOLA

Gure inguruan ezaguna da Beotibarko gatazkaren kon-daira, eta azken urteetan, hainbat ikerketaren ondorioz, ezagutza handitu da. Aurten, 700. urte bete dira nafarren eta gipuzkoarren arteko gatazka gisa aurkeztua izan den gertakari hartatik, eta horren harira, hainbat ekimen egin dituzte. Uda honetan, esaterako, Xabier Irujok eta Larraitx Ariznabarretak Beotibarko batailaren bertsio klasikoak gezurtatzen duen liburu bat argitaratu dute: *Beotibar. Zazpi mende geroago* (1321-2021). Eta irailaren 16an, Irujo eta Ariznabarretak hitzaldia eman zuten online. Maiatzean, berriaz, Xabier bertan izanen dela aprobetxatuz, hitzaldia eman du Leitza.

Uli mendian hitzordua

Bestalde, irailaren 19an, Leitzako, Lizartzako, Berastegiko, Larraungo eta Lekunberriko ordezkariak Uli mendian bildu ziren, gertaera gogoratuz eta anaitasuna aldarrikatuz.

Gogoratu zuten, «duela zazpi mende gure arbasoak

urtero biltzen ziren Uliko leku honetan, tregoa egiteko, akordioak lortzeko eta bakeaz hitz egiteko, gaur egiten ari garen moduan». Gisa berean, «iragana etorkizunaren zati bat dela» adierazi zuten, «horregatik gaude hemen, beti izan garena izaten jarraitzen dugulako, inolako mugarik markatzen ez duen herri baten bi aldeetako anai-arrebak».

«Duela mende asko bezala, gaur egun ere denok nazio bereko herritarrek garela» aldarrikatu zuten, «anai-arrebak garela eta hau ez dela 'mugako lurraldea', ezta 'gaizkileen muga' ere, euskararen gunea baizik, milaka urtez guztion elkarbizitzarako habia, hain zuzen».

Horrekin batera, «ulermen protokoloa» sinatu zuten, «kultura eta gizarte-ongizate proiektuaren, eta oro har, bizilagunen bizi baldintzak hobetzen dituzten eta gure eskualdeko herri eta haran guztien adiskidetasuna eta bizikidetzat sustatzen lagunduko duten proiektuetan lankidetzan jarduteko borondatea» adieraziz.



Hainbat herritar bildu ziren irailaren 18an plazan egindako hitzorduan. UTZITAKOIA

'Bizi osorako zigorren kontra' bildu dira hainbat herritar

JUAN MARI BARRIOLA

Bizi osorako zigorrik ez aldarrikatuz, elkarretaratzea egin zuten irailaren 18an plazan. Giza eskubidea, elkarbizitza eta konponbidea Euskal Herriko herri guztietan zabaltzeko asmoz deitu zuen Sarek, Arrasateko martxaren partez, eta hainbat herritarrek babestuz

argazkia atera zuten. Horretaz gain, *Ibilian ibilian, etxerako bidean* lelopean egitekoa den martxan, Leitzari dagokion txanda egiteko deia egin zuten. Asteazkenean, egitekoa zen, 23:00 aldera. Bestalde, Talo Egunean, bertako produktuen saskia eta Musunzarren bi afari zozketatu zituen Sarek.



ARGAZKIAK: JULIAN ZABALETA ETA ENERITZ IRAOLA. TESTUA: JUAN MARI BARRIOLA

Jende ugari Talo Egunean

Udalak eta Plazaola Partzuergo Turistikoak antolatuta, XVI. Talo Eguna egin zuten irailaren 19an. Saralegi talogileen kutixiak dastatzeko aukera izan zen, eta 25 artisauek parte hartu zuten azokan. Talo tailerrean 200 bat ume bildu ziren, eta 11 lagunek parte hartu zuten talo lehiaketan. Maite Agirrek irabazi zuen.

Erraldoiei eta buruhandiei buruzko liburuxka egin dute

Pablo Feoren laguntzarekin jolasteko eta eskulanak egiteko materiala bildu dute eta larunbat honetan aurkeztuko dute

TTIPI-TTAPA

Aurreko aldizkarian aurrera-tu bezala, larunbat honetan, urriaren 2an, eginen dute erraldoi eta buruhandien konpartsaren aurkezpena. Konpartsako kideek 18:00etan plazan egin dute hitzordua eta orduan erakutsiko dituzte zein diren bi erraldoi berriak.

Liburuxka

Ez da aurkezpen soila izanen. Ekitaldian «irudiek eta pertsonen garrantzi berezia» hartuko dutela esana dute

antolatzaileek eta horrez gain, «sorpresak» ere izanen omen dira. Besteak beste, Pablo Feoren laguntzarekin osatu duten liburuxka ere aurkeztuko dute. Jolasteko eta eskulanak egiteko materialarekin prestatu dute liburuxka, eta gisa honetara Gafotas, Kantinflas, Ipotxa, Amonazarra, Barriola eta Frida buruhandien, Atxaurea, Joalduna, Tigrea eta Zezena erraldoi txikien eta Lizarra eta Garazi erraldoi handien inguruko informazio zehatza eskura izanen dute herritarrek.



Liburuxkako irudi batzuk. JON ARANGOAK UTZITAKOAK

Urbietara eta Iruñaga tunelak konponduko dituzte

2018an Malkorrako tunelean erortzea izan zenetik, Plazola bide berdeko hainbat tunel moldatu ditu Nafarroako Gobernua. Mikel Zabaleta alkateak gogoratu duenez, «orduan kontseilaria zen Manu Aierdiarekin bildu eta bide berdeko tunel guztiak aztertu eta behar-raren arabera moldatuko zizutela adostu genuen eta geroztik, bost tunel moldatu dituzte. Poliki-poliki inguruko tunel guztiak egokitzen ari dira eta orain beste bi eginen dituzte: Leitzako Urbietara eta Iruñaga tunelak».


Jeiki abesbatza partaide bila ari da

Kantatzea gustuko dutenei abesbatza parte hartzeko deia luzatu die Jeikik, emakume zein gizonezko, gazte nahiz heldu, «denak ongi etorriak» izanen direla adierazi du. 606 39 38 42 telefonora deitu eta proba egitera animatu nahi izan dute jendea.

Tokiko komunikabide bat sortzeko parte-hartze saioa eginen dute

TTIPI-TTAPA

«Euskararen normalizazioan pauso bat harago joateko», «kalitatezko informazioa helarazteko» eta «herri atxikimendua areagotzeko» helburuekin Leitzan euskarazko tokiko komunikabide bat sortzeko prozesua abiatu dute. Paperezko bertsioan «kazetaritza pausatua» eskainiko duen aldizkaria sortu nahi dute eta euskarri digitalean «eguneroko albisteak» eta «sare sozialetan dinamika propioak» garatu nahi dituzte. Adierazi dutenez, «dauden komunikabideen osagarri eta haiekin elkarlanean» ari nahi dute. Horretarako, herritarrekin hainbat saio antolatu dituzte. Urriaren 7an, informazio saioa eginen dute; urriaren 13an *Diagnostikoa, helburuak, izaera eta balioak* izenburupean parte-hartze saioa, urriaren 27an proiektuaren ezaugarriak azalduko dituzte eta azaroaren 17an kudeaketaz eta izaeraz ariko dira. Saio guztiak Herri Aretoan izanen dira, 18:30ean.



UDALA

Eguraldia lagun ur txirristan gozatuz

Udako kultur agenda borobiltzeko, ur txirristan gozatu ederra hartu zuten haurrek eta ez hain haurrek irailaren 11n Joandegiko aldapan. Udalak, Aurrera Kirol Elkartek, kultur taldeak eta Erleta eskolako eta Amazabal institutuko guraso elkarrekin antolatutako hitzordua izan zen.



Errugbi entrenamendua Lekarozen. BAZTAN RUGBY TALDEA

Indarrez ekin dio errugbi taldeak denboraldi berriari

Nahiz eta hasieran jokalaria faltarengatik arriskuan zegoen, nahiko jokalaria bildu ditu Baztango Rugby Taldeak

TTIPI-TTAPA

Senior eta sub-18ko (2004-2005) taldeek aurre-denboraldiari indarrez eta ilusioz ekin diote Iñaki Ezkurra entrenatzailearen gidaritzapean.

Hala ere, jokalaria berriei gonbidapena egin die taldeak.

Errugbia probatu nahi izanez gero, asteazken edo ortzirale-tan Lekarozko errugbi zelaia-ra agertu edo 638 44 55 13 telefono zenbakira deitu behar-ko dute interesatuek. «Errug-bia ikastea eta jokalarien ar-teko giro ona bermatuta dago».

Saioa Jaurena munduko errugbi txapelketako bidean

Espainiako Selekzioak 8-7 irabazi zion Irlandari eta 22-27 galdu zuen Eskoziaren kontra. Munduko Errugbi Txapelke-

tarako sailkatzeko lehen urratsa eman du elizondoarrak eta Italiaren kontra jokatzekoa zuen txartela larunbatean.



lbigailuak dagoeneko Txokotoko aparkalekua erabiltzen ari dira. ONDIKOL

Txokotoko aparkalekua publikoa egiteko hitzarmena bete ez izana salatu du NA+k

TTIPI-TTAPA

Baztango Udaleko Navarra Suma taldeak salatu duenez, Bilduk ez du Elizondoko Txokoto auzoan aparkaleku publiko bat sortzeko hirigintza hitzarmena bete. Horregatik, «Baztanen ondarea eta interesak ez defendatzea» leporatu dio.

Alderdiak azaldu duenez, «hirigintza-hitzarmena Udalaren eta merkataritza-enpresa baten artean sinatu zen, aparkaleku pribatu gisa erabiltzen den partzela baten eraikigarritasuna merkataritza-enpresa horren bertze partzela batera aldatzeko. Merkataritza-enpresa horrek bi partzela horien eraikigarritasuna batuko luke, lurzorua- ren erabilera posible guztiez gain».

Hitzarmenak jasotzen duenez, «aparkaleku publikorako

partzelaren urbanizazioa egin ondotik, eskrituta publikoa egingen da; horren bidez, Udalak aparkalekua hartuko du doan eta behin betiko, aparkaleku publiko bihurtzeko». Partzelako horretako hirigintza-lizentziak baimendu ditu Udalak «baina aparkalekua oraindik ez da Udalaren ize- nean erregistratu».

«Ondasuna defendatzeko modu ezberdinak»

«EH Bilduk eta Baztango Ezkerrak Baztango ondasunak hainbat modutan defendatzen dituztela» kritikatu du Navarra Sumak, «batzuetan 'hirigintza-pelotazo' gisako terminoak erabiltzen» eta orain, berri- z, «hirigintza-jarduerak baimen- tzen dituzten gobernu-egin- kizunak bete gabe, hau da, hitzarmen batean jasotako konpentsazioak zaindu gabe».

BRIKO
LIMPIEZA, SL

MOTA GUZTIETAKO
GARBIKETAK:
etxeak
landetxeak
lokalak
komertzioak
enpresak
...

konfidantzazko zerbitzua

T. 608 016 052
San Andres, 66 · NARBARTE
(Sarrera Legasatik)

asegi asesorías
Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

Baztanberri plaza, 6 31700 ELIZONDO T. 948 581 300 · F. 948 580 648	Eztegara pasealekua, 22-1 31780 BERA T. 948 631 108	Eliza Kalea, 22 31740 DONEZTEBE T. 948 450 395 · F. 948 451 304
---	---	---

Aroztegia gelditzeko eskaera Nafarroako Parlamentura

Aroztak ekimeneko ordezkariak EH Bildu, Podemos eta Izquierda-Ezkerra alderdiekin bildu ziren Iruñean

TTIPI-TTAPA

Irailaren 10ean Nafarroako Parlamentuan elkartu ziren Aroztak ekimenekoak Gobernuko hainbat alderdirekin. «Isunak ailegatu zaizkiela» eta «jazarpen judiziala eta ekonomikoa» jaso zutela helarazi zieten. «Arlo penalean ere prozedura bat abiatu da, oraindik ez digute deklaratzera deitu baina epaitegietan dago eta betiere mehatxu horrekin gabilta». EH Bildu, Podemos eta I-Ezkerra alderdiak bildu

ziren haiekin, baina Navarra Sumak, Geroa Baik eta PSNk ez zuten haiekin egon nahi izan. «UGEPa Gobernutik gelditu beharko litzatekeela» adierazi zuten eta aferari «merezi duen garrantzia eman diezaiotela» eskatu zuten. Alderdi guztiekin solas egiteko prest daudela adierazi dute eta garrantzitsua dela «alderdi horien postura ezagutzea, aunitzetan isiltasunaren giblean babesten direlako».

Iturria: ahotsa.info

Euskal Herriko Dantzarien Eguna urriaren 2an

Ikuskizunak ikusi nahi dutenek ordubete lehenagotik hartzen ahaliko dituzte sarrerak

TTIPI-TTAPA

2021eko Euskal Herriko Dantzari Eguna Baztanen ospatzea erabaki dute Euskal Dantzarien Biltzarrak eta Baztandarrak Dantza Eskolak. Bertako Udalen eta herrian laguntzarekin, hainbat jarduera prestatu dituzte larunbaterako.

10:00etan hasiko da jardunaldia dianekin Elizondoko karriketan, ondotik, Folklore azoka egingen dute eta 12:00etan musika izanen da plazan. Ordu berean, lau dantza taldek Baztango lau herritan kalejira eta emanaldiak egingen dituzte; Iparraldekoak Amaiurren, Arabakoak Anizen, gipuzkoa-

rrak Arizkuneren eta nafarrak Iruritan. 13:00etan Elizondoko plazan elkartuko dira Euroeskualdeko emanaldia egiteko. Arratsaldean berriz ere Folklore azoka izanen da eta 17:30ean kalejira Elizondoko karriketan barrena, Euskal Herriko dantza taldeen topaketa nagusia. 18:00etan pilotalekura joanen dira ekitaldi nagusia egiteko; Nafarroako, Iparraldeko, Arabako, Gipuzkoako, Bizkaiko eta Euskal Diasporako dantzariak (Argentina eta Uruguaykoak) agerraldia egingen dute. 20:00etan dantzaldi irekiarekin akituko dute eguna.



Elizondoko Osasun Etxeko atean bildu ziren irailaren 16an. ONDIKOL

Kalitatezko osasun arretaren alde elkarretaratzea egin dute Elizondon

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Mediku Sindikatua, Osasun Etxeko langileak eta hainbat herritar bildu ziren Elizondon «Baztango, Urdazubiko eta Zugarramurdiko osasun zerbitzuen desegitearen kontra» eta «medikuen, pediatren, erizainen eta denon eskubideak bermatzeko».

Aspalditik egoera kaxkarra baldin bazen, Urdazubin asteburuetako guardietarako medikurik ez izateak makurratzea egin zuen. Horregatik, Zugarramurdi, Urdazubi eta Baztango udal ordezkariak Indurain osasun kontseilariarekin bildu ziren irailaren 17an eta asteburuetan Urdazubiko

osasun etxean larrialdiak ardatutuko dituen norbait izatea lortu dute.

Hala ere, sindikatuaren arabera, Nafarroan bete gabeko 49 mediku plaza daude, eta aurtengo eta 2022rako aurreikusiak dauden erretiroekin bertze 45 izanen dira. Hutsune horiek ez ditu inork betetzen, «lehen zeuden zerbitzuak bete gabe uzten ari dira, erizainen gainean uzten beraiei ez dagokienez ardurak». Osasun Departamentuak medikurik gabe arreta baldintza berean eman daitekeela dio, baina «profesionalak lanez gainezka daude eta nekea muga onartezinera ailegatzeko ari da» salatu dute.

Odola emateko aukera hiru egunez izanen dute Elizondon

Irailaren 29an, asteazkena, eta 30ean, ortzeguna, arratsaldean egonen da Nafarroako Odol eta Ehun Bankuko autohemoteka Elizondon, 17:00etatik 20:30era. Urriaren 1ean berriz, 09:30etik 13:00etara izanen da. Odola emateko hitzordua hartu beharko da aldeztu aurretik, 848 420 573 telefono zenbakira deituta edo www.adona.es webgunearen bitartez.

Baztan astinduko duen lurrikara morea

EKHIÑE PETRIATI 'KARRANKA' TXANTREAKO NESKA* GAZTEEN TALDEA

Urriaren 9an eta 10ean Euskal Herriko Neska* Gazteen Baterajotzea egingen dute Elizondon, 600 lagun inguru elkartuko duen mugimendu feminista



Euskal Herriko Neska* Gazteen Baterajotzeko antolatzaileetako bat da Ekhiñe Petriati txantrearra. UTZITAKOA

R. OSKARIZ

Euskal Herriko Neska* Gazteak hainbat talde zein norbanakoren sarea da, «mugimendu bat». 2016an hasi zuen ibilbidea, GaztEraiki izeneko gazte mugimenduen topaketan. Bertan «hainbat herritako feministok elkar ezagutu genuen eta proiektu berriak marrazten hasi ginen». Izartxoak (*) heteropatriarkatuak zapaldutako subjektu oro barne hartzen ditu, «askok ez baitute euren burua emakumetzat».

«Aurrerapauso bat»

Urriaren 9an eta 10ean Euskal Herriko talde feministen topaketa egingen dute Elizondon *Mugimenduan gaude, lurrikara gara* lemapean, «bizi

dugun testuinguruari erreparatu eta krisi anizkoitz honi feminismotik eta gaztetasunetik erantzuteko, elkar eza-gutzeko espazioak irekiz eta mugimenduak eraberrituz». Hitzaldiz, tailerrez eta mahai-inguruz betetako asteburua izanen da. Parte hartzeko izen-ematea zabalik da «neska* gazte subjektuarekin identifikatzen den guztientzat» www.ehkoneskagazteak.eus webgunean. 600 bat gazte elkartzea espero dute, «hori da gure apustua behintzat». Eta noski, «beharrezko neurri guztiak hartuko ditugu».

Ez da mugimenduak horrelako zerbait antolatzen duen lehenbiziko aldia, «2017an eta 2018an Gazte Udaleku Femi-

nistak egin genituen» eta aurrekaria ere badu; «2019an Lizarran *Egin dezagun topa!* topaketan 400 bat lagun bildu ginen». Hala ere, aurtengo apustua handiagoa da, «erronka kualitatibo bat». Mugimenduak aurrerapauso bat emanen du, «era kolektiboan hausnartu eta ahots propioz erantzuteko anbizioarekin».

Ekainean hasi ziren antolatzen topaketa, «asteburu pasa bat egin genuen antolatzeko

«ANTOLATUZ ETA BORROKATUZ ARRAKALATUKO DUGU SISTEMA»

prest zeuden 30 bat neska* gazterekin. Elkarrekin hausnartu eta baterajotzearen oinarriak adostu genituen». Lantaldeak osatuta, «buru-belarri» aritu dira lanean udan azpiegitura, eduki eta komunikazio kontuekin. «Topaketa gorpuzten joan gara denon artean».

Krisi anizkoitza

Egitarau zabala izanen du asteburuak, eztabaida, hitzaldi, tailer, mahai-inguru eta manifestazioekin. Aisialdiari ere tarte egingen diote bertso saio, ipuin kontalari eta kontzertuekin. Ikastolan eta frontoietan antolatuko dituzte ekitaldi guztiak, eta otorduak ere, bi txandatan egingen dituzte bi gune bereiztuetan; «espazio bat frontoian eta bestea parean dagoen estalpean». Lo egiteko akanpalekua prestatuko dute.

Bi egun horietan neska* gazteen problematika izanen dute hizpide, «behar eta kezka anitzak ditugulako: bizi dugun prekaritatea, ezartzen zaizkigun kanonen ereduak, familiak gudan eragiten duen kontrol soziala, hezkuntza sistemak ezartzen dizkigun mugak, balore eta pentsamendu heteropatriarkala, ezartzen zaizkigun arauak... eta pandemia hasi denetik asko larritu gaitu ematen ari den indibidualizazio prozesuak eta komunitatearen galerak».

Kezka asko dituzte, baina helburu bakarra: «Euskal Herri feminista bat eraikitzea, non bizi ditugun zapalkuntzetatik askatuko garen». Helburu handia da, eta argi dute ez dutela egun batetik bestera lortuko, baina «eguneroko lanarekin, antolatuz eta borrokatuz lortuko dugu sistema arrakalatzea, iritzia sortzea, komunitatea ehuntzea, alternatiba gudan hasten dela sineste, pentsamendu kritiko aktibatzea, baloreak eraldatzea, aldarrikapen konkreituak plazaratzea, lorpen txikiak eskuratzea, beste eredu bat sortzeko gai garela transmititzea».



Euskal Herriko txoko guztietako neskak* elkartuko dira Elizondon. UTZITAKOA

Mugimendua ikus-entzuketara
2016tik gaur egunera mugimenduaren historia kontatzeko, *Mugimendutik lurrikarara* dokumentala sortu du taldeak. «Belaunaldi aldaketa bat izan da mugimenduan eta garrantzitsua da orain artekoa erregistratzea, ikasitakoa kokatuz eta aurrera begira erronkak azpimarratuz». Herriz herri proiektatzen ari dira dokumentala eta urriaren 3an publiko eginen dute sare sozialetan eta webgunean.

«Traba asko» izan dituzte dokumenatalasortzeko, «gehiak ez garelako bideo grabaketan eta edizioan adituak». Gidoi batekin hasi zen dena, hortik abiatuta «parte hartu duten pertsonekin harrema-

netan jarri eta grabaketarako prestatu genituen». Dokumentala muntatuko zuen norbait bilatu zuten gero eta «kostata» aurkitu zuten. «Prozesu luzea izan da baina azkenean lortu dugu eta harro gaude». Honez gain, abesti eta bideoklip bat ere egin dute Gora Etorri taldearekin.

Etorkizunera begira, egitasmoak ez du «asmo zehatzik», baina asteburuaren ondotik, «adostutakoa lokalera jaitea izanen da gure lana, auzo eta herrietan eragitea eta dinamika propioak aurrera eramatea». Azaroaren 25ean eta martxoaren 8an bezalako data zehatzetan «ahots propioz kalera ateratzen segituko dugu mugimendu feministarekin batera».

EGITARAUA

ELIZONDO

Urriak 9, larunbata

- 10:30-11:30** Iritsiera
- 12:00-12:30** Ongi etorria Pantxika Clownarekin
- 12:30-14:00** Eztabaida zentrala:
Testuinguruari erreparatuz: Krisi anizkoitzaren gaineko gakoak ikuspegi feministatik
- 14:15** Bazkaria
- 16:30-18:30** Hitzaldiak eta tailerrak
- 19:00-20:00** Manifestazioa
- 20:30** Afaria
- 22:00-00:00** Aisialdia
 - Bertso saioa: Idoia Granizo, Sarai Robles, Maialen Akizu eta Irati Alcantarilla
 - Ipuin Kontalaria: Mireia Delgado
 - Kontzertuak: Abian taldea, Haizeatxo & Ningra + 34 gradu
- 00:30** Lotara

Urriak 10, igandea

- 09:00** Gosaria
- 10:00-13:15** Eztabaida zentrala:
Neska gazteok zer? Mugimenduaren oinarriak eta aurrera begirako erronkak
- 13:15-15:45** Bazkaria eta desmuntatzea
- 16:15-17:00** Amaierako ekitaldia
- 18:00** Autobusen irteera



Hainbat herritako talde feministak izanen dira Elizondon. UTZITAKOA

ALTUERAKO LANAK

- Soldadura lanak
- Muntaiak
- Teilatu-hodien garbiketa
- Paretako armiarma sareen garbiketa
- Kimaketak
- Tximinien garbiketa
- Teilatu hegalen garbiketa
- Fatxaden garbiketa, harria eta egurra



MARKOS
626 26 30 11

Haurdunendako musikoterapia saioak Elizondon

Urriaren 8tik abenduaren 17ra ortziralero elkartuko dira Haizea Loira musikoterapeutarekin Arizkunenean

TTIPI-TTAPA

Amaren ongizatea hobetzeko, haurraren garapenean laguntzeko eta bien arteko lotura sendotzeko, musikoterapia saioak egingen dituzte Arizkunenean Hazi musikoterapia zentroaren eskutik, ortziralatan 10:00etatik 11:30era. Haurdunaldian ematen diren aldaketa fisiko, psikologiko, emozional, sozial eta espiritualak kontuan hartuta, musika izanen da aldaketa hauek era kontzienteago eta natu-

ralagoan bizitzeko tresna. Erditzeari begira, musika, arnasketa eta ahotsa baliabide gisa trebatzeko tartea ere izanen dute.

Haurdunaldi batzuetan ezaugarri bereziengatik tailerrean parte hartzeko zailtasunak dituztenendako, etxeko arreta ere eskainiko du Haizea Loirak. Informazio gehiago lortzeko idatzi 655 74 76 95 telefono zenbakira edo haizealaira@gmail.com helbide elektronikora.

Anizek eta Elizondok irabazi dute Organi-Kopa

MAITANE MARITORENA

Zabor organikoaren birziklapena bulkatzeko lehiaketa bat antolatu zuen Nafarroako Hondakinen Partzuergoak. Lehenbiziko edizioa bi hilabetetan garatu da, eta 92 herrik hartu dute parte. Eskualde bakoitzean hondakinak biltzeko sistemen berezitasunak kontuan hartu dira, eta Baztanen bi lehiaketa egin dira aldi berean: bat konpostarena eta bertzera edukiontzietan biltzea eta konpostajea. Konpostajeko kanpainan Aniz izan da irabazlea, Berroeta bigarren eta Ziga hirugarren. Edukiontzien kanpainan, berriz, Elizondok irabazi du, Oronoz-Mugairi izan da biagrena eta Lekaroz hirugarrena. Irailaren 16an izan zen sari banaketa ekitaldia Etxarri-Aranatzen eta Baztango ordezkariak hartu zuen saria. Zorionak denoi eta segi birziklatzen!

Baztan Iñarrosi talde feminista aurkeztu dute

TTIPI-TTAPA

Irailaren 17an arratsaldean Elizondoko Ameztu elkartean Baztango 30 bat neska gazte bildu ziren, adin guztietakoak. Baztan Iñarrosi talde feminista aurkeztu zuten eta izan zuten hizpide; noiz sortu zen, nolako ibilbidea izan duen... Ondotik, Euskal Herriko Neska* Gazteen Baterajotzeaz aritu ziren, urriaren 9an eta 10ean Elizondon egingen den egitasmoari buruzko informazioa emanez. Gero, *Mugimendutik lurrikarara* dokumentala proiektatu zuten, Euskal Herriko Neska* Gazteen nondik norakoak azaltzen dituenak. Aurkeztu borobiltzeko, afaria egin zuten denek elkarrekin. «Giro goxoa» izan zuten, «elkar ezagutzeko aukera izan genuen eta gogotsu atera gara aitzinerat egiteko eta borrokan segitzeko».



ILBELTZA.BLOGSPOT.COM

Pandemiak eta literatura hizpide

(H)ilbeltzak bere programarekin segitu du irailean, eta Anjel Lertxundi eta Elixabete Garmendiaren eskutik, *Pandemiak eta Literatura* mahai-ingurua izan zuten 18an Arizkunenean, Danele Sarriugartek gidatua. Hurrengo hitzordua izanen dute Leire Ituarterekin, zinema beltzari buruzko solasaldian.

Guraso elkarleen kultur jardueretako dirulaguntzak eskatzeko epea zabalik

TTIPI-TTAPA

2020ko azaroaren 1etik 2021eko azaroaren 1era bitarteko burututako jarduerak dirulaguntzeko deialdia egin du Baztango Udalak. Helburua Baztanen egoitza soziala duten guraso elkarteei dirulaguntza ematea da, haurrendako hezkuntza eta kultur jarduerak programatzen eta antolatzen laguntzeko.

Laguntza jasotzeko, jarduerak ezaugarri batzuk bete beharko dituzte: euskararen erabilera sustatzea, formakuntzakoak, sormenekoak

eta artistikoak izatea, herri-tar guztiendako irekiak egotea eta ikuspegi inklusiboa edukitzea.

Eskabidea, behar bezala beterik, Baztango Udalaren Erregistroan aurkeztu beharko da, astelehenetik ortziralera 09:00etatik 14:00etara edo telematikoki udalaren erregistro elektronikoan (sedeelectronica.baztan.eus). Eskara egiteko azken eguna azaroaren 5a (egun hori barne) izanen da. Informazio gehiago lortzeko, eskuragarri dago 948 581 279 telefonoa.

Oharriz Auzoa z/g · LEKAROZ
T. 948 452 143 · 948 452 449
info@harrilan.com www.harrilan.com



EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU





Baztango Batzar Nagusiak urriaren 1ean erabakiko du Baztan Park- i eratzeko babesik ematen dion

Orain dela urte bat Baztango Batzar Nagusiak batzorde bat eratu zuen proiektu honi buruz informazio gehiago izateko. Urte honetan BKZk lan handia egin du proiektuaren xehetasunak azaltzeko (Parlamentuko talde politiko guztiekin, Nafarroako Gobernuako Turismo Departamentuarekin, Garraio Departamentuarekin...) eta, denbora honetan guztian, **garbi transmititu dugu errepidea behar den bezala moldatzea eta trafikoaren kudeaketa egokia egitea zein beharrezkoa den.** Erakunde horien guztien babesa hartu dugu, proiektu serioa delako, eta euren borondate osoa lortu dugu aitzinerat egiteko.

BKZn baztandar guztiei babesa eskatzen diegu, Batzar Nagusiak proiektuari babesa eman diezaiola, horretarako informazio nahikoa dago (erran bezala errepidearen konponketa eta trafiko kudeaketa adostu bati baldintzatuta). Hau ez badugu lortzen, **guk zail ikusten dugu errepidearen moldaketarako finantziarioa lortzea.** Iduritzen zaigu lan handia egin dugula hori lortzeko eta, ez dago erran beharrik, Baztango Udalak egiten dituen gestioak babestuko ditugula.

PROIEKTU HAU BAZTANENDAKO ETA EDOZEIN BAZTANDARRENDAKO ONURAGARRIA DA?

GARAPEN TURISTIKO IRAUNKORAREN EREDUA DA, hona 14 ARRAZOI:

1. Proiektua JASANGARRIA da eta LEGEZKO BALDINTZA guztiak betetzen ditu. Ez du birkalifikatzerik eskatzen.
2. Beartzungo errepidea konpontzea eta trafikoaren kudeaketa adostu bat finkatzea (*parking lanzadera...*) ezinbertzeko baldintza izanen dira proiektuarekin aitzinera egiteko.

- Proiektu honek Nafarroako Gobernua-
ren eta Parlamentuko alderdi gehien
babes osoa du.
- Trafikoa kudeatzeko plan on bat disei-
natzea (denen artean egin), bide osoan
espalo bat egitea proposatzen da.
- Parke txikia da, 400 pertsonendakoa,
eta konponketekin KALITATE HANDI-
KOA izanen da. Gaur egun 300 pertsona
hartu izan ditu.
- Errepidearen moldaketa, instituzioen,
Beartzun-Elizondoko bizilagunen eta
BKZren artean adostuko da, baita trafi-
koaren kudeaketa ere.

3. 30 bat lanpostu zuzen sortuko dira eta bertze aunitz zeharkakoak (beartzundarrek eta baztandarrek lehentasuna izanen dute).

4. Turismoaren gremioari onurak ekarri-
ko dizkio, urte osoan irekia egonen baita
eta LEHEN MAILAKO baliabide turistikoa
bihurtuko da.

5. Baztango eskola, ikastola, institutu eta
abarrak prezio eta aukera arras onak edu-
kiko dituzte.

- Elizondoko Lanbide Heziketako Natura
Ingurune eta Aisialdi ikasleek az-
piegitura paregabea izanen dute, baita
lan aukera ere.

6. Seme-alabak dituzten gurasoendako:
LAGUNEN LAGUNA aisialdi kluba sortuko
dugu Baztango ume guztiendako. Hemen
ez dago zinerik, teatrorik... baina umeek
izugarriko parkea izanen dute naturaz go-
zatzeko.

7. Kirol klubendako eta ekitaldi berezien-
dako, Baztan Park babesle indartsua izan-
en da.

8. Elbarrituendako izanen dituen egokitza-
penei esker, parke erreferentziala bihurtu-
ko da. Eredu gehiena ezinduendako pres-
tatua egonen da.

9. Inguruko produktu-ekoizleek eta sal-
tzaileek euren produktuak bultzatzeko au-
kera izanen dute parke honetan. Toki bere-
zi bat prestatuko dugu bertako produktuak
parkean saltzeko.

10. Eraikitze- eta moldatze-lanak direla
eta, gremio aunitzendako lana izanen da
parkea egiten eta ondotik mantentze-la-
netan. Proiektuak duen 4 milioi euroko
aurrekontutik erdia baino gehiago bertako
gremioek egiten dute (eraikuntzako enpre-
sak, zerrategiak, iturginak, elektrikariak,
pintoreak, errementariak, altzari-dendak,
tailerrak, obrako produktuak eta abar).

11. Orokorrean, langile, bezero eta trafi-
koaren SEGURTASUNA eta kondizio labo-
ralak hobetuko dira proiektu honekin.

12. Eguraldi txarrarekin lan egiteko aukera
emanen du, aktibitateak bertan behera uz-
teko aukera baztertuz eta lana mantenduz.

13. Obrarengatik udalari ordainduko diz-
kiogun zergen kopuruak eragina izanen
du Baztango herri guztietan eta baztandar
guztiengan: Lizentzia zerga 160.000 € eta
urtero 30.000 -50.000 € inguruko kanona.

14. NEXT GENERATION Europako lagun-
tzetan seguru aski onartuko den proiektua
izanen da eta dirulaguntzak izanen ditu.
Eta Baztango edozeinek posible izanen
du proiektu honen inbertitzea izan, baita
udalak ere.



14 arrazoi



1. faseko
bideoa



Proiektuaren
laburpena



BAZTAN
ABENTURA PARK

BEARTZUN auzoa
31700 ELIZONDO
Tel.: (0034) 948 59 23 22
Mu.: (0034) 646 75 57 60
bkz@navarraaventura.com
www.navarraaventura.com

«Abeltzaintza ogibide bilakatzeko inbertsio handiak egin behar dira»

MAITE BARBERENA IBARRA ZIGAURREKO ABELTZAINA

Amaren eta amaginarrebaren lekukoa hartuta, joan den martxoan hartu zuen abeltzaintza ogibidetzat. Zigan eta Urrozen haragitako behiak eta ardiak ditu

G. PIKABEA | ZIGAURRE

Aizturak, ile-lehorgailuak eta orraziak lanabes izatetik, behien eta ardien gibeletik lan egitera pasatu da Maite Barberena Ibarra (Zigaurre, 1987). Pandemiak eman dio aldaketa hori egiteko bide, ile-apaintzaile lana utzi eta amaren eta amaginarrebaren lekukoa hartuta abeltzaintzan hastea erabaki baitu. Etxeko bi ttikiei lehentasuna emanez, azien den lanak «famiaren laguntzarekin» egiten dituela aitortu du, baina «lana gustukoa» duela dio eta trabak traba kontent da joan den martxoan ekin zion ibilbidearekin.

Behiekin eta ardiekin ari zara...

Bai, hala da, Zigan behiak eta Urrozen ardiak eta behiak izaten ditugu. Denetarat 20 behi eta 40 ardi izanen ditugu. Denak haragitakoak dira eta tratanteen bidez kanpora saltzen ditugu. Hala ere, bi haur ttikiren ama naiz eta beraiek dira nire egunerokoan lehentasuna dutenak. Aziendalanak egiteko, bai Urrozen baita Zigan ere, nire eta senarraren famlien aldetik laguntza handia dut eta haien laguntzarekin ateratzen ditut aitzinera. **Haurtzarotik baserri munduarekin loturarik izan duzu?**

Bai, etxean betitik behiak izan ditugu. Aitak kanpoan lan egiten zuen eta amak etxean, baina beraiek ere haragitako behiak izan dituzte beti. Ni, ordea, pandemia indarrean sartu zen arte kanpoan aritu



Maite Barberenak martxoaz geroztik abeltzaintza du ogibide.

nintzen lanean, ile-apaintzaile. Pandemia etorri zenean haurdun nengoen eta lana utzi behar izan nuen. Horren ondotik erabaki nuen abeltzaintzan hastea, aurtengo martxoan.

Aunitz pentsatutako erabakia izan zen?

Ez. Aldaketa handia izan da, baina niretako ez da gauza berria, betitik ikusi dudan lana da. Ama eta amaginarreba jubilatze kotan ziren eta bi-deari segitzeko aukera ikusi nuen. Azken batean, familia-ko martxa segitzea zen...

Zaila da abeltzaintzatik bizitzea?

Gaur egun, bai, egoerak ez du abeltzaintzatik bizitzea ahalbidetzen eta dirulaguntzarik gabe ia ezinezkoa dela uste

dut. Abeltzaintza ogibide bilakatu nahi baduzu alimaleko inbertsioak egin behar dituzu. Eta nirea bezalako enpresa ttikietan traba aunitz dira. Gastu aunitz dira, eta garai edo urte txarra baldi bada eta dirurik sartzen ez bada, horri buelta ematea zaila da, enpresa handietan baino aise zailagoa. Espero dut hemendik gutira, administrazioak gauzak erraztea.

Hala ere, gustuko tokian maldarik ez...

Nire lana gustukoa dut eta gustukoa den zerbait ez da inoiz gibelean utzi behar, nahiz eta traba aunitz izan.

Lan lotua da?

Aziendaren arabera da. Haragitako behiekin uda par-

tean denbora libre gehixeago izaten da. Urritik edo azarotik apirilera bitarte lan lotua izan daiteke, eta udan, belaian daudenean ere zaindu behar dira, baina diferentea da. Esnetakoek egunero gainean egotea eskatzen dute eta nire kasuan lana arinagoa da. Horrek haurrekin moldatzeko aukera gehiago ematen dit.

Berriki Intia Nekazaritzako Eliekagaien Teknologien eta Azpiegituren Nafarroako Institutuak antolatutako ikastaroetan ikusi zaitugu...

Bai, ikastaroa paper kontuetan ditudan dudak argitzeko ongi heldu zait. Ikastaro trinkoa da eta orain arte positiboa izaten ari da. Jakin beharreko mila istorio dira eta ikastaroan informazio pila ematen digute.

Galduta zaudela aipatu izan duzu...

Abeltzaintza ez da azienden kontua bakarrik, ikasi beharreko faktore pila daude. Gaur egun, agiriak eguneratuak eduki behar dira, eta kontu aunitz, denak ez errateagatik, ezezagunak dira guretako. Agiriarena bertze mundu bat da, eta niretako hori da zailena.

Abeltzaintzatik bizitzeko inbertsio handiak egin behar direla aipatu duzu. Baduzu egiteko asmorik?

Oraingoz ez, baina badut zerbait egiteko asmoa. Dirulaguntza hartuta zerbait konpondu nahi genuke...

Esne ekoizleak kexu dira aspaldian. Haragitakoekin egoera hobea da?

Prezioak dauden bezala daude. Azken urteotan haragiaren prezioa ez da goratzen ari, berdin mantendu da. Baina pentsua gero eta garestiagoa da.

Baloratua den lana da?

Ez. Baserriko lana aunitz aldatu da. Lehen baserrietan aunitz inplikitzen ziren eta gaur egun, bertze belaunaldi bat gara eta gazteok lan egiteko bertze manera bat dugu, jubilatuek edo lehen lan honetan aritu direnekin konparatuz diferentea. Alde horretatik ez da aski baloratzen gaur egun egiten dugun lana.

Errepublikako erbesteratuei omenaldia

1936ko kolpe militarren ondotik Nafarroa utzi behar izan zutenak oroitu zituzten irailaren 19an Elizondon

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuako presidentea, Maria Txibite, Nafarroako erbesteratze errepublikarra (1.400 pertsona inguru) omentzeko ekitaldi instituzionalaren buru izan zen irailaren 19an Elizondoko plazan.

Joseba Otondo alkateak ireki zuen ekitaldia, egia, justizia eta erreparazioa eskatzen frankismoaren biktimentzat. Elizondon paratutako oroigarria, *Babesaren muga* eskultura, «arras berandu dator, 40 urte berandu» adierazi zuen. Ihes egin zuten eta laguntza-sareetan parte hartu zuten ehunka pertsonen oroimenerako tokia izan behar duela nabarmendu zuen, frankismoaren gisako «fartsak eta tragediak saihesteko».

Txibitek bere hitzaldian «1936ko kolpe militarren ondotik Nafarroatik alde egin behar izan zutenak gogoratzeko Nafarroako Gobernuak duen konpromisoa» azpimarratu zuen; «alde egite horren arrazoiak Errepublikako gobernu legitimoarekiko kon-

promisoarekin eta leialtasunarekin lotuta egon ziren kasu gehienetan eta norberaren familiaren segurtasun-arrazoiak ere egon ziren».

Betebehar etikoa

Alkateaz eta gobernuko presidentez gain, Unai Hualde Parlamentuko presidentek ere egin zuen solas. Gertatutakoa gogoratzea «betebehar etiko, politiko, instituzional eta soziala» dela adierazi zuen, «isiltasun mantu baten» eta «urte gehiegi iraun duen ahanztura baten» ondotik, «guztiok etxean senti gaitezen». Sara Soriano Goikoetxea, Ana Araujo Uhalde eta Mari Carmen Yarnoz Huder erbesteratuen senideek memoria historikoa- ren garrantzia nabarmendu zuten, erbesteratuek «ohorearen eta justiziaren arrasto ezabaezina utzi baitzuten».

Ekitaldiari akabera emateko, Elizondoko Abesbatzek abestu zuen, lore-eskaintza egin zuten eskulturaren aitzinean eta Baztandarra Dantza Taldekoek ohorezko aureskua dantzatu zuten.



Omenaldi ekitaldiko zenbait irudi. NAFARROAKO GOBERNUA

Amaiur Sokatira Taldea berriz ere lehiarako prest


Hainbat hamarkadatan garaien handiak lortu bazituzten ere, Amaiurren ez da sokatira talderik izan azken 6-7 urteetan. Aurten, berriz ere bildu dira eta sokatira taldea abiatu dute. Bederatzi neska eta hamar mutil elkar-tu dira bi talde sortzeko. Orain asteen bi aldiz elkartzen dira

frontoian entrenatzeko, asteazken eta ortzileretan neskak eta astelehen eta ortzegunetan mutilak. Gastu ekonomikoei aurre egiteko (materiala erosi, federazioko fitxak egin...), diru bilketa bat abiatu dute taldekideek eta urrian hasiko den Nafarroako txapelketan lehiatuko dira.



647 77 31 33

Eguzki plaken instalazioak,
argiztapen-azterketak
eta elektrizitate lanak orokorrean



Lan ederra egiten segitzen du Harremana elkarteak

Astean bi egunez jubiloteka zerbitzua eskaintzen du eta ekintza bereziak ere antolatzen dituzte

MARIFA ETA KORO

Lan ederra eta baliosoa egiten ari da gure bi herrietan Harremana elkarteak, beraiei esker adin handiko hainbat lagunek etxetik atera eta bertze gisako ekintzak egiteko aukera baitute jubilotekara joanez. Jubiloteka zerbitzua bi arratsalde eskaintzen da, astelehen eta astezkenetan, eta garraio zerbitzua ere barne dauka. Hiru orenez, hainbertze gauza egiten dituzte: lehenbiziko, infusioa hartu bitartez tertulia bat egiten dute. Ondotik soinketa, gorputz osoa mugituz. Eta gero eskulanak, mahai jokoak, rutmiku, kantuak, eta abar...

Tarteka, ekintza bereziak ere antolatzen dituzte, eta horie-



Jubilotekan lanean.

tako bat urriaren 4an hasiko da: eguberrietako eskulan tailerra. 65 urtetik goitikoentzat zuzenduta dago eta 25 euro balio du. Izena emateko hemen: 659 849 570 (Amaia)

Aipatzekoa da garrantzizkoa dela bi udalen laguntza, eta baita Arkupeak elkarteak eskaintzen duena ere.

Asteburutako mediku gabezia moldatu da, zorionez

Mikel Barearen bajak eta Angel Lizarderen jubilazioak kezka handia sortu zuen gure herrietan, aste batzuetan zaintzako medikurik gabe gelditu baiginen. Gainera, gabezia horrek Baztango zerbitzuan ere eragina izan zuen, larrialdi kasuetan handik etorri behar baitzuen medikuak.

Zorionez, irailaren 18-19ko astebururako arazoa konpondu zen. Santos Indurain, Nafarroako Gobernuak Osasun Kontseilariarekin bildu ziren bezperan Urdazubi eta Zugarramurdiko alkateak, baita Baztango udal ordezkaria ere, eta arazoa moldatzea lortu zuten.

Xaretako hiztegia

- **Putruna:** Mugimendu torpeak dituen pertsona.
- **Piparia:** Erretzailea.
- **Seilarua:** Sabaia.
- **Trenpan eman:** Zerbait uretan eman.



UTZITAKO ARGAZKIA

Lehen jaunartzea egiten

Irailaren 12an egin zituzten lehen jaunartzeak Zugarramurdi eta Urdazubiko neska-mutikoek. Hantxe egon ziren Maialen, Julen, Peio, Gexane, eta Maddi. Zoritzarrez, COVID-19a tartean sartu zen, eta Jonek ezin izan zuen jaunartzea egin, bezperan konfinatu behar izan zutelako.



UTZITAKO ARGAZKIA

Pagazelaiko bidea zolaberritua

Irailaren erdi aldera zolaberritu zuten Iparreko-bordako bidegurutzetik Pagazelaira doaien pista. Arras hondatuta zegoen, eta eskertzekoa da horrelako lanak egitea. Bide horrek hiru baserritarat eramaten du, bat Urdazubikoa da eta bertze biak Zugarramurdikoak.



Bizikleten salmenta eta konponketa.

- Kanttonberri, 1 | BERA
- T. 948 631 218
- joxemi@kateabike.com
- www.kateabike.com



Kultur ondareko jardunaldia urriko lehen asteburuan


Alkerdi 2 lezean egindako aurkikuntzak aurkeztuko dituzte larunbatean eta bisita gidatuak ere egingen dituzte

ARANTXA ETA IRAIA

2021eko Europako ondarearen jardunaldiari begira hainbat ekitaldi antolatu dituzte urriaren lehen astebururako.

Urriaren 1ean, ortziralekin, monasteriora sartzea dohainik izanen da, 14:00etatik 18:00etara.

Urriaren 2an, Alkerdiko lezeak ikusteko aukera izanen da. Larunbatean, 11:00etan, udalak, Nafarroako Gobernuak eta Aranzadi elkarteak Alkerdi 2 lezean eginiko aurkikuntza berrien aurkezpenean egingen dute turismo bulegoan. Ondotik, Arturo Hermoso de Mendoza Satorrak taldeko espeleologoak eta Diego Garate arkeologoak hitzaldiak emanen dituzte leku berean. 12:30ean, bisita gidatua abiatuko da plazatik Berroberria eta Alkerdi 1 lezeetarako. Horrez



Ondarea ezagutzeko aukera izanen da.

gain, Urdazubi eta Zugarramurdiko eskolako ikasleek ere Alkerdi eta Berroberriko lezeen bisita egiteko aukera izanen dute datorren astean arkeologoen laguntzarekin.

Urriaren 3an, igandearekin, errota bisitatzeko aukera izanen da 16:00etan. Edukiera mugatua denez, tokia hartzea gomendatu dute 948 59 90 70 telefonoan edo turismo@urdax.es helbidean urriaren 2 eta 3ko ekitaldietarako.

Ikasturte berriari begira hainbat jardueretan hasteko aukera izanen da

ARANTXA ETA IRAIA

Ikasturte berriaren hasierarekin batera, hainbat jardueretara apuntatzeko aukera izanen da herrian.

Ugarana elkarteak yoga eta pilates klaseak antolatu ditu. Asteartetan izanen dira, 18:00etatik 19:30era edo 19:30etik 21:00etara. Izena emateko elkarteak norbaitekin harremanetan jarri behar da.

Trikitixa eta pandero ikastaroa ere urrian hasiko da. Trikitixa klaseak ortzirale arratsaldetan izanen dira eta pandero klaseak astearte arratsaldetan.

Harremana jubilotekak gimnasia terapeutiko klaseak antolatu ditu Oihana Elzaurdia fisioterapeutak zuzenduta. Astelehenetan izanen dira, 17:00etan, 75 urtetik goitikoendako eta 18:00etan 75 urtetik beheitikoendako.

Apuntatzeko, info@harremajubiloteka.com helbiderat idatzi edo 659 84 95 70 zenbakira deitu beharko da. Horrez gain, elkarteak proiektu berri bat antolatzen ari da, taldeko gimnasia esperientzia bat formatu berrian, online bidez egingen dena.



ARANTXA ETA IRAIA

Bengotxea gasna Nafarroako txapelkun

Abuztuaren 29an Artzain Eguna ospatu zen Uharteko Arakilen. Bertan izan ziren Etxelekua gasnategikoak, eta aurkeztutako 23 gasnen artean Bengotxea gasnarekin Nafarroako txapelketa irabazi zuten. Pozez hartu zuten saria, urte anitzez hurbildu baina lehenbiziko aldiz lortu baitute txapela.



NAFARROAKO GOBERNUA

Berriz ere larrialdietarako medikua

Abuztu bukaerarako herritarrek larrialdietako medikurik gabe gelditu ziren eta geroztik hainbat mobilizazio egin dira. Urdazubi, Zugarramurdi eta Baztango udal ordezkariak hainbat bilera egin dituzte Osasun Departamentuarekin eta, azkenean, irailaren 18tik berriz ere larrialdietarako medikua dugu.

JATETXEA • ERRETEGIA
@asadormontxo

Etxekoak berriz bueltan

- KARTA
- BRASA
- PINTXO BEREZIAK
- PLATER KONBINATUAK
- OGITARTEKOAK
- RAZIOAK

Etxera eramateko aukera

Axular, 12 • Antzanborda • URDAZUBI • Tel.: +34 848 85 00 21

Beilatoki berriaren xehetasunak onartu ditu kontseiluak

Gobernamendutik 140.000 euroko dirulaguntza bilduko dute obrak ordaintzeko

GANEX

Beilatoki berriaren lurreko betoia emana dute dagoeneko eta laster hasiko dira altxatzen. 275 metro koadroko eremua hartuko du denetara. Hargintza eta zurgintza lanak herriko enplegatuek egingen dituzte eta Sarako Kontseiluak onartu ditu enpresa bakoitzak bere lanak egiteko izanzen duen buxeta: igeltsua eta isolamendua egiteko (Cangran SAS 23.581,80 euro); elektrikako lanak (Soudre 8.379,60 euro); iturgintza (Larralde 12.381,05 euro); klimatizazioa (ERL Clim Larronde 45.704,52 euro); karralaia (Dibargintza 7.755,44 euro); tinta lanak (Lastra 41.561,87 euro). Denetara 139.364,28 euro. Gobernamendutik 140.000 euroko dirulaguntza sartuko da.

Herriko argiak itzaliko dituzte gauz

Gauerditik goizeko bortzak arte herriko argiak itzalia atxikiko dituztela deliberatu du herriko kontseiluak, salbu besta egunetan. Dirua aurrezteaz gain, ingurumenarenda-

ko egokia delakoan hartu du neurria.

Zikin berdeak zirtzikatzeko makina

Senpereko hondakindegian zikin berdeak zirtzikatzen edo xehatzen dituzte. Lan horretarako behar dute traktore-palabat. Bil ta Garbi sindikatak galde eginik, Sarak onetsi du herriko traktore-palarekin egitea. Lan hori bi aste guziz egiten da, 26 aldiz urtean, bana bertze. Oreneko 90 euro galdegina da eta Bil ta Garbik onetsia.

Euskal Herriko EPFL-ak hartu du Kurriertegia

Jorajoria jaunak badu ostaturko *licence 4* delako hori. Herriak erosiko du 10.000 eurotan eta, horrela, saratarrek izanzen dute herri barrenean elkarretartzeko leku bat. Herriak baditu bi bizitegi herribarrenean. Galde presatuak izan dira eta, beraz, alokatu dituzte. Batto (Suhariaga) Jessica Gaona andreari, uztailaren lehenetik eta bertzea (Bolanjeberrria) Alain Telletxeari, abuztuaren 24tik.

laz egin ez zen erretretatuen ateraldia Larhunerat urriaren 13an egingen dute

Joan den urtean ez zen egin baina aurtan egingen dute urriaren 13an. Asteazkenean 09:00etan San Inazioko geltokian gelditu eta 09:30ean Larhun gainerat upatuko dira trennez. Gosaria Udako Etxea bentan eta ondotik bazkaria Les Trois Fontaines Jatetxean.

Urriaren lehenerako behar da izena eman herriko etxean. Izena ematean 30 euroko parte-hartzea beharko da eman, bikotearentzat 45 euro. Aitzinetik eskerrak denei eta «etorri ahal duzuen guziak memento goxo baten pasatzera denak elgarrekin».



GANEX

Herriko bestak ederrak berriz ere

Joan den urtean ospatu gabe utzitako bestak gogoz eta umorez bizitu dira herrian. Ezagun zen eskasia, jende aintz ibili baita eta denetarik izan zen: pilota partidak, dantzak, gazteen jokoak eta auto mozzorrotuak, ahate jokoak, indar jokoak eta finitzeko, azienda primak. Ederrak!

Urriaren 10ean eta 11n iraganen da Idazleen Biltzarra

Horrez gain, urriaren 8an eta 9an haur eta gazte literaturaren azoka egingen dute

TTIPI-TTAPA

Ezohiko egunetan, baina Sara-ko Idazleen Biltzarraren 38. ekitaldiak ez du hutsik egingen. Aurten, gainera, lau egunez egingen dute: urriaren 8an eta 9an, Ikusi Mikusi Haur eta Gazte Literatura Azoka; ortziralean eskolen eguna eta larunbatean familien eguna. Urriaren 10ean eta 11n biltzarra iraganen da.

Igandean, urriaren 10ean, hainbat liburu aurkeztuko dituzte. 10:00etan *Profeten iruzurra* eta 2022 liburuak; 10:30ean *Baigorri* eta *Ortzaite* ibarretako *euskara*; 11:00etan *La politique*

culturelle au Pays Basque (Euskal Herriko kultur politika); 11:30ean *Anaia Artea*; 12:00etan Euskaltzaindiaren *Ozaze Jaurgainean* eta *Euskal Literaturaren Historiaren Historia*, eta 12:30ean *Quand nous chantions sous Franco* (Francoren baitan kantatzen dugunean).

13:00etan omenaldia egingen dute eta 15:00etan aurkezpenekin segituko dute: *Elixa Xurrian* diskoa, 15:30ean *Tresors de l'art roman en Pays Basque* (Arte Erromanikoa Euskal Herrian), 16:00etan *Buhameak*, *historiarik gabeko jendeak* eta



Aurten ere argitaletxeek hainbat liburu plazaratuko dituzte biltzarrean. SARA KO BILTZARRA

16:30ean *Nafarroako Erresumaren inbasioa 1199-1200*.

Gazteliteratura saileko irakurketa musikalak ere egingen dituzte 10:30ean, 11:30ean eta 16:00etan, eta 10:30etik 17:00etara haurrendako liburuak proposatuko dituzte karpa ttipian.

Urriaren 11n, emazteak eta euskal literaturari gogoan profesionalen eguna egingen dute. 09:30ean *Emakume ahotsak euskal literaturan* mintzaldia iraganen da; 10:30ean feminis-

moa hizpide duten argitalpenei buruz mahai-ingurua antolatu dute. 11:45ean irakurketa antzetzua izanen da eta 12:30ean bazkaria. 14:30ean *Asfaltoa zartatzeko moduak* ikusgarria antolatu dute eta 15:30ean *Euskal idazle eta emazte Ipar Euskal Herrian, zein bizipen?* mahai-ingurua Maialen Hegi-Luku, Marikita Tambourin, Maddi Ane Txoperena eta Maddi Zubeldiarekin. Nora Arbelbidek gidatuko du.

EUSKALTZAINDIA SARA KO 38. IDAZLEEN BILTZARRA



Euskaltzaindiak, urriaren 10ean, 12:00etan, honako bi argitalpen hauek aurkeztuko ditu:



OZAZE JAURGAINEN. Jean de Jaurgainen Züberoa Herriko kontaira poetiko zonbaito
Egilea: Jean-Louis Davant Iratçabal
Bilduma: Euskaltzainak 33



EUSKAL LITERATURAREN HISTORIAREN HISTORIA. Gurea nola konda?
Egilea: Jon Casenave
Bilduma: Euskaltzainak 34

«Mugak sakontzea baino hobe da zubiak eraikitzea»

FRANCK DOLOSOR LADUCHE SENPEREKO KAZETARIA

22 urtez Ipar Euskal Herriko berrien ikur izan denak ETB utziko duela iragarri du. Horren harira, kazetaritzan egin duen ibilbideari gainbegirada bat bota dio TTIPI-TTAPAREKIN orain Ipar Euskal Herriko irrati publikoan, Urdin Euskal Herria Irratian, lanean ari den senpertarrak

G. PIKABEA | SENPERE

«Telebistaren magiak, irratiaren xarmak eta prentsa idatzia sakontasunak» liluratutik hartu zuen kazetaritzaren bidea Franck Dolosor Laduchek (Senpere, 1977). 18 urte zituen orduan, eta geroztik ibilbide emankorra egin du. Ipar Euskal Herriko albisteen aurpegi eta ahots izan da urtez luzez, eta orain, 22 urteren ondotik, ETB utziko duela iragartzeak erreakzio andana sortu du, arrastoa utzi duen seinale. Orain arte egindako ibilbide luzeaz eta hemendik aitzinerako bere asmoen solastatu da TTIPI-TTAPAREKIN.

1996tik kazetari. Zergatik?

Hedabideak beti gustukoak izan ditut, telebistaren magia, irratiaren xarma eta prentsa idatzia sakontasuna. 18 urtetan kazetari izatea erabaki nuen berriak emateaz gain molde eraginkorra baita euskaraz sustatzeko.

Irratian, telebistan eta prentsan ikusi zaitugu...

Eta sarean, nola ez. Euskarak eta euskaldunok euskarri guztietan egon behar dugu beti. Herritarrak dauden toki guztietan egon behar da zubigintzan beti, harremanak sortu eta sendotzeko.

Gure Irratian, Radio Euskadin eta Urdin Euskal Herria Irratian aditu dugu zure ahotsa...

Euskaraz, frantsesez eta gaztelaniaz, denetan eta denekin pozik. Beti ikasten da.

Telebistan ETBn, albistegietan eta Iparraldearen Orenean...

Iparraldearen Orena saio maiagarria da, leiho paregabea. Amets egiten dut ETB1ek holakoak egitea Nafarroa mendialdean, eta Bizkaiko eta Gipuzkoako zonbait eskualdetan, eremu horietan gertatzen diren zonbait gauzek ez baitute aski oihartzunik. Horko herritarrak

«EUSKALDUNOK EUSKARRI GUZTIETAN EGON BEHAR DUGU»

leialak dira eta holako saioak merezi dituzte.

Prentsan ere ibili zara...

TTIPI-TTAPAN senpertarren laurden batek erroak Nafarroan dituen, harremanak berpiztea egokia iruditu zitzaigun eta Noticias Taldean ere aritu naiz, 20 bat urtez hor ere zubiak eraikitzen.

Zer eman dizu horietako bakoitzak?

«KAZETARI IZANEZ AINITZ IKASTEKO PARADA IZAN DUT»

Motzean

Zeure burua hitz guttitan.

Berriketari senpertar euskaltzalea.

Zein afizio dituzu?

Korrika eta parranda egitea.

Liburu bat?

Mikel Aiestaranen *Jerusalem, santa y cautiva* (Jerusalem, santua eta gatibua)

Kazetari bat?

Sonia Hernando.

Nor elkarriketatuko zenuke?

Ingalaterrako erregina, hogeigarren mendeko leku paregabea baita.

Irratia ala telebista?

Aita eta amaren artean nor nahiago? Aitatxi eta ama-

txiren artean? Ezin dut hautatu.

Zein albiste ematea gustatuko litzaizuke?

Euskarak egiazko lege babesa duela Euskal Herri osoan, babesa eta erabilerera.

Senpereko txokorik gustukoena?

Ortango erreka.

Bizitzeko toki bat?

Norak Herria.

Nora bidaiatuko zenuke?

Ameriketako Estatu Batuetara eta Israelerat.

Amets bat?

Denek osasuna izatea.

Jendea ezagutzeko parada izan dut eta ez dago herritarrekin mintzatzea bezalakorik. Kazetari izanez, ainitz ikasteko parada izan dut.

Baduzu bereziki gogoan gelditu zaizun berririk?

Ainitz. Emazteen hilketak edo jihadistak batek Okzitaniako Tolosan zazpi lagun, tartean haurrak, hil zituenekoa. Beraien odola lurrean zegoen oraindik haratheldu nintzelarik. 2017an Euskal Hirigune Elkargune sortu zenekoa ere gogoan dut, Ipar Euskal Herriko lehen erakunde politikoa. Lanean hasi nintzelarik ez nuen uste holarik ikusiko nuenik aldarrikapen horrek 225 urte zituelako. Urteetan ETArekin kontrako operazioak ere segitu behar izan ditut, disoluzioa ere bai. ETAK Capbretonen 20 bat urteko bi guardia zibil hil zituen atentatua ere segitu nuen eta Rodriguez Zapatero eta Perez Rubalcaba Baionako ospitale-
rat etorri ziren eta biak bi metrotara nituela zuzeneko konexioa egin nuen euskaraz, *Gaur Egunen*.

22 urteren ondotik ETB uztea erabaki duzu. Zergatik?

Gustura nengoen. ETBn lan egitea haur denborako ametsa zen eta ongi bete dut. Egin dezakedan guzia mila aldiz egin dudanez, 44 urte bete berrian erronka berria eman diot neure buruari.

Hasiera hartako nolako oroitzapenak dituzu?

Lehen bideoa Bordelen egin nuen, Nicolas Sarkozy orduko barne ministroarekin. Egun batzuen buruan Prestige hondoratu zen Galizian, eta orduan hamarnaka zuzeneko egin nituen kostaldetik, Arcachon eta Hendaia artean.

Aunitzentzat Ipar Euskal Herriko albisteen aurpegi izan zara.

Aurpegia baino gehiago ahotsaren bidez ezagutzen nau jendeak, supermerkatuetan edo Senda Vivan. Parisen, Logroñon eta Toledon ere ezagutu ninduten behin, Athleticeko zaleak zirenez, *Teleberri* ikusteko ohi-tura zuten, harrigarria!

ETB uzteko erabakia iragartzeak erreakzio andana sortu du sare sozialetan...

Milaka mezu hartu ditut egun hauetan. Harritua naiz, biziki. Kazetari batek ez du sekula berria edo protagonista izan behar, baina aldi honetan hori gertatzen ari da. Egiten dudak guzia errespetu eta maitasun handiarekin egiten dut beti eta uste dut ikus-entzuleek hori sumatu dutela.

Orain Urdin Euskal Herria Irratian hasi zara. Zehazki zertan?

Orain arte bezala, euskaraz berriak ematen ditut, eta aspaldiko partez frantsesez ere bai. Irrati publikoaren albistegietan ari naiz, eta astegunez goizero hiru albistegi ditugu euskaraz. Noizbait aurkeztea ere egokitu zait eta webgunean idatzi eta bideoak ere egiten ditugu. Heldu den urtean, irratia ren goizeko saioak telebistan hedatuko dituzte eta tokiko etengabeko albistegi katea sortuko dute, Parisen jadanik egiten dutena hemen eginen dugu. Ipar Euskal Herriko irratirik entzunena da, egunero 48.000 entzule biltzen dituelako, eta horrek erran nahi du sei herritarretik batek egunero entzuten duela. Hori hedabide gutik lortzen dute. Sail guzietan hoberenak kontratatzen dituzte, umorea egiteko, zezenketak, errugbia edo txirrindularitza aipatzeko. Futbol saioak, erraterako, Bixente Lizarazuk aurkezten ditu. Hendaiarra munduko txapelduna izan zen 1998an eta komentaria hoberenatarikoa da.

Hiru hizkuntzatzen ongi moldatzen zarela ikusi dugu urteotan. Hiru-retan eroso edo batean bertzeetan baino erosoago?

Niretzat errazena euskara da, bihotzean izateaz gain, aintz lantzen baitut. Orain frantsesa lantzen dut, ikasketak hizkuntza horretan egin nituen baina lan egitea ez da gauza bera. Biziki gustukoa da, gaztelania bezala. Gaztelaniako irakasle onak izan nituen eta lagun hoberenekin Cervantesen hizkuntzan aritzen gara, horrek



Franck Dolosorrek 22 urte egin ditu ETBn. 44 urte bete berritan bere buruari «erronka berria» egin diola dio.

aintz laguntzen nau, ez baita murgiltzea bezalakorik.

ETB uzteak aldaketa handia eragin du zure egunerokoan?

Ez. Azkenean, lan bera da eta bi enpresak ondoan daude Baionan. Nire bulego berritik EITBren egoitza ikusten dut. Lankide ohiengana kasik egunero joaten naiz.

Nolakoa da gaur egun zure egunerokoa?

Orain arte bezala, egunkariak irakurri, irratia entzun, erre-

daktore buruari gaiak proposatu, finkatu eta jo aitzinera. Gero egunean zehar batzuetan aktualitateagatik dena aldatzen da, eta beti prest egon behar da.

Hala ere, Radio Euskadin segitze-ko asmoa duzu...

Gaur egunen eta Teleberrin ez naiz gehiago agertuko, baina Iparaldearen Orenetan bai, nik egindako azken erreportajeak udazken honetan emanen dituzte. Larunbat gauetan,

21:15ean, *Iparaldeko leihoa* aurkezten segituko dut Radio Euskadin, futbolik ez delarik, hori bai. Gisa honetan, hiru mintzairetan segituko dut lanean.

Urteotan zein aldaketa ikusi dituzu telebistan eta irratan?

Tresnak aldatu eta erritmoak indartu dira. Dena gero eta lasterrago egin behar da. Lastar aritzea ez da beti egokia, hobe baita berriak sakontzea eta zerbait gehiago ekartzea.

Anekdotak ere izanen dituzu...

Carmen Sevilla elkarrizketatu nuen behin Luis Marianok Arrangoitzen duen hilobia ikustera etorri zelarik. TV Eren *Cine de Barrio* grabatu zuten, biziki atsegina izan zen gurekin bortz minutuko tartea ordu →

**«BATZUETAN
AKTUALITATEAGATIK
DENA ALDATZEN
DA»**

**«KAZETARITZAN
DENA GERO ETA
LASTERRAGO EGIN
BEHAR DA»**

erdikoa bilakatu baitzen. Madrildo lankideak sutan zeuden guregatik, baina Carmen Sevilla gustura zegoen gurekin! **Goitik presiorik hartu duzu?**

Presioa baino gehiago, komentario desatseginak jasan nituen euskaltzaleak ez ziren agintariak pairatu behar izan genituen garaian. Irainak ere aditu izan ditut bertze batzuen aldetik, baina nahiago dut beraien tokian baino nirean egon...

Zein da ematea tokatu zaizun albisterik gogorrena?

ETak Capbretonen hil zituen bi guardia zibilena. Bertzalde, behin, apez euskaldun bat kanporatu zuten emazte batekin bizi zelako. Bien arteko begiradetan maitasun handia ikusi nuen, gutitan ikusi izan dut holako amodioa baina... Tristeia iruditu zitzaidan, amodioa ez baita bekatua. Ostikoka aritzea baino ederragoa da baina...

Kazetaritza lanera mugatu gabe, bi ikerketa liburu ere egin zenituen:

Senperetik Senperera, begirada bat XX. mendeari (Elkar, 2009) **eta Matxin Irabola, Senpereko bertsularia** (Elkarlanean, 2010)... Berriemaile kuadrilla sortu genuen, adin handiko bederatzitik emazte eta bederatzitik gizon. Gehienak zendu dira jadanik. Osaba eta izeba bezala bilakatu ziren niretzat. Aintz zor diet eta betiko bihotzean ukanen ditut, haiekin egin solasek urrea baino gehiago balio dutelako.

Zer ikasi zenuen haiekin?

Duintasuna. Nahiz eta baliabide guti izan, maitasunarekin eta ongi egin lanaren bidez, beti aitzinera segitu dute. Gaur egungo arazoei biharko aterabideekin erantzun behar zaie, baina historiak perspektiba eskaintzen digu. Ikusiz zer zailtasun bizi eta gainditu duten, guk ere neurria eman behar diegu gauzei.

Ipar Euskal Herria eta bereziki Senpere ezagutzeko egin duzun ahaleginaren parte dira?

Senpertar aintzek bezala, nik ere nire harri ttikia ekarri nahi izan dut. Nik pixka bat eman



Senpereko kazetaria ETBrentzat lanean.

dut, eta aintz bildu. Argi da aberastasuna ez duela diruak ematen. Euskal Herriko herri guzietan egin dituzte holako lanak eta guk ere zerbait egin behar genuen.

Estitxu dokumentala ere hor dago.

Zein bide egin zuen?

Aitzindaria izan zen, Euskal Herriko ahots ederrenetakoa, mundu mailan ere bai. Amerikarra izan balitz, telesaila izanen zuen Netflix bezalako plataformetan, baina euskalduna zenez, kolpeak baizik ez zituen hartu. Gure betebeharra da Estitxu omentzea eta Robles Arangiz familiari esker ematea, ekarpen paregabea egin baitiote gure kulturari, kantua eta irriaren bidez.

«HEGOALDEAK GERO ETA GUTIAGO BEGIRATZEN DIO IPARRALDEARI»

Goi mailako artistak dira, eta orain lagun onak!

Halako lan gehiago etorriko dira?

Estitxu bezalako lan bat egitea zaila izanen da, bakarra baitzen zinez, ederra alde guzietatik. Hala ere, eskuin eta ezker, herriar baliosak daudenez, baliteke noizbait lan gehiago egitea, zergatik ez?

Ipar Euskal Herriatik nola ikusten duzue hegoaldea?

Niretzat dena bat da. Senpertarra naiz, %200 senpertartzat dut neure burua. Aita senpertarra da, ama azkaindarra, baina amatxi aranztarra zen eta aitatxiren aldetik ataundarrak ziren. Loturak izan ditut beti Nafarroa Garaiarekin eta Gipuzkoarekin. Udako etxea Arabako Errioxan daukagu eta

«HERRIZ HERRI ETA HERRITARREKIN KALAKAN SEGITU NAHI DUT»

badira 22 urte dudan denbora libre gehiena Bilbon igarotzen dudala. Lapurdi eta Bizkaia artean nabil astero, Araba eta Nafarroa Garaian barna ere bai... Desberdintasunak zoin diren argi dago, baina elkartzen gaituena interesatzen zait. Mugak sakontzea baino hobe da zubiak eraikitzea, denak irabazle izateko. Bertze batzuek banatzea nahi dute, baina guk batasuna nahiago dugu. Eta aldarrikatzea baino hobe da biziitzea, egun guziz naturalki eta euskaraz, ahal bada.

Hegoaldekoek hurbil edo urruti ikusten dute Ipar Euskal Herria?

Hegoaldeak gero eta gutiago begiratzen dio Iparraldeari. Alta, lurraldetasunik gabe ez da euskaltasun osorik. Nafarroa Garaia gure herriaren bizkarrezurra da eta Iparraldea teitlatua. Ba ote da etxe sanorik teitaturik gabe?

Non ikusten duzu etorkizunean zeure burua?

Orain arte bezala, herriz herri ibilki eta herritarrekin kalakan.

Buruilaren 4ko elkarteen topagunea jendetsua izan da

Elkarteen lana beharrezkoa dela erakutsi zuten, hauetan oinarritzen baita elkar-bizitza sendoa

JEAN LOUIS BESSONART

Buruilaren 4an goizarekin iragan da urtero errepikatzen den elkarteen topagunea. Jendetsua izan da aurtengo ekitaldia, anitz elkartek beren aktibitateak nabarmentzen dituzte eta holakoetan izen emateak baliagarri izaten dira. Animazio aldetik, zirku ariketagisa, artista batek ikustaldia eman zuen oihaltzuei zintzilik, sekulako akrobaziak eginez. Elkarteen lana beharrezkoa da herrietan, hauetan oinarritzen delakoan elkarbizitza sendoa, batzorde bakoitzak bere alorrean lan aipagarria darama.

Elea berriz abian

Elea, herriko kontseiluak kudeatzen duen egitura berriz idekia da buruilaren 16tik

goiti. Senperen Oihartzuna etxean kokatua da pilota plazararen gibelean, edekia izanen da ortzegunetan 09:00etatik 11:30era. Sei urtez beheitiko haurren eta hauen burasoen topagunetzat presentatua da, aktibitate aunitz eskainiak dira, giro goxo baten partekatze elgarren artean. Helburuetako bat jendea beren etxeetatik ateratzea eta bertekin harremanak sortzea da. Izenik eman gabe joaten ahal da eta bistan dena zerbitzu hori urririk da. Xehetasun guztiak 05 59 54 58 21era deituz.

Azkenetako ekitaldiak

Bereziki kultur mailan, ekitaldi parrasta iragan da eta denek arrakasta ukan dute. Oroitarazteko Anne Pomaderen mintzaldi bikaina, aipatu digu



Akrobazia ikuskizuna elkarteen foroan. J.L. BESSONART

Kreta uhartean iragan den Minos errege garaiko zibilizazioa, arkeologia lanak erama ki ditu eta ber denboran greziar arkeologiako kurtsoak ematen ditu Sorbona unibertsitatean Parisen. Kontzertuen aldetik, aipatzekoa da Alexander Big Band jazz musikan goi mailako errezitala eskaini dutela, jazz munduan diren blues,

swing, bugi-bugi eta abar. Nola ez aipa Buhaminak emazteen abesbatza, beren boza distiratsuekin xarmatu baitzuten Larreko kulturunea. Herriko etxeko gela batea margolan eta eskultura erakusketa ere aurkeztua zen, Ortzadarra elkartearen ekimenez. Kultur eskaintza badirudi berpiztu dela izurrite honen ondotik.

Maddi Ane Txoperena Iribarren nagusitu da Xilabako lehen saioan

TTIPI-TTAPA

Xilaba Bertsulari Txapelketako lehen kanporaketa jokatu zen Makean irailaren 18an. Lesakan bizi den Maddi Ane Txoperena Iribarren hendaiarra gailendu zen eta Irati Alcantarilla Urdanpilletak eta Gillen Hiribarrenek egin zuten bigarren eta hirugarren, hurrenez hurren. 90 bertsozale izan ziren Makeako Herriko Gelan.

Saioko irabazlea Maddi Ane Txoperena Iribarren izan da, 422,5 punturekin, eta zuzenean sailkatu da hurrengo fasean Maulen kantatzeko.

Bigarren kanporaketa irailaren 25ean egitekoa zuten Muskildin.

Aitzinera begira, **urriaren 2an**, larunbat honetan 17:00etan ariko dira Hiriburuko La Perlen Josu Txoperena Iribarren, Patxi Iriart, Iker Altuna, Aitor Servier Etxexuri, Pettan Prebende eta Kerman Diaz.

Urriaren 9an Gabadiko herriko gelan iraganen da laugarren eta azken kanporaketa, 17:00etan. Bertze sei bertsolari ariko dira: Johaine Sarraillet, Amets Arzallus Antia, Maddi



Makean kantatu zuten sei bertsolariak eta gai-emalea. UTZITAKOA

Sarasua Laskarai, Maindi Murrúa Berra, Odei Barroso eta Egoitz Zelaia. Ondotik, hiru finalerdi egingen dituzte (Mau-

len urriaren 16an, Bardozen urriaren 23an eta Izpuran urriaren 30ean) eta finala azaroaren 13an Donibane Lohizunen.



Olaizola II.a pilota astintzen, 23 urteko ibilbideko 1.300 partida baino gehiagotako batean.

«Goizuetarekin zorretan nintzen eta sorterrian jokatuko dut azkena»

AIMAR OLAIZOLA APEZETXEA GOIZUETAKO PILOTARIA

Goizuetan abiatutako ibilbidea sorterrian bertan bukatzea erabaki du Olaizola II.ak. 42 urte beteki dituen egunean, azaroaren 13an, jokatuko du azken pilota partida profesionalean

AITOR AROTZENA | GOIZUETA

Ikusmin handiarekin irailaren 15ean prentsurrekoa eskaini zuen Aimar Olaizola (Goizuetan, 1979) pilotari handiak Bilboko Bizkaia pilotalekuan. Eta orduan iragarri zuen pilota profesionalean utziko duela, azaroaren 13an, 42 urte beteki dituen egunean, sorterrian. «Nire pilota ibilbideari amaiera jartzeko momentua ailegatu da», adierazi zuen. Goizuetako aurrelariak 1998ko apirilaren 12an egin zuen debutu Lekunberrin eta geroztik, 23 urtez, palmarekin ederra osatu du: Buruz buru lau txapel jantzi ditu (2005, 2007, 2012, 2013); lau eta erdian zazpi aldiz txapeldun izan da,

inor baino gehiago (2002, 2004, 2005, 2008, 2011, 2012, 2013) eta binakakoan hiru aldiz jantzi du txapela (2008, 2011, 2016). Bigarren mailako buruz burukoan ere txapeldun izan zen 1999an, debutatu eta urtebetera. Hamabost txapel ofizial, 27 finaletan. Eta beste hainbat torneo, azkena Master txapelketa hilaren 19an, Zabaletarekin batera. 1.300 partida baino gehiago. Agur moduan, Goizuetan jokatu duen azken partidaren aurretik, joan den asteburuan Logroñon eta oraindik Donostian (urriak 2), Bilbon (urriak 17), Iruñean (urriak 23) eta Gasteizen (urriak 31) ere jokatu du Aimar Olaizolak.

Final baten atarian eman duzu erretiroaren berri... Oraindik pilotan segitzeko soka luzea baduzula aipatu batek baino gehiagok... Zergatik orain?

Garbi neukan joku aldetik maila polita emanez utzi nahi nuela. Nire ustez maila ona ematen ari naiz, ia 42 urterekin Mastersko finala irabazita, bikote handien kontra... Momentu egokia orain dela uste dut.

«NIRETZAT PILOTA IA BIZITZA GUZTIA IZAN DA, DENA EMAN DIOT»

Zabaleta bezalako atzelariekin beste bizpahiru urte ere jokatzen ahal duzula ere aipatu zenuen...

Telebistan erdi brometan esan nuen, egia esateko Zabaletaren jokua goraiatzeko. Maila izugarria ematen ari da, nik ikusi dudana atzelari onena da. **Azken partida Goizuetan, urtebetetze egunean...**

Garbi neukan ahal baldin bazen Goizuetan jokatu nahi nuela azken partida. Tikitatik Goizuetan ikasi nuen pilotan eta partida guztietan herriko jendea izan dut animatzen, laguntzen, dirua gastatuz... Nolabait herriarekin zor bat nuela sentitzen nuen eta horregatik azken partida sorterrian jokatu nahi nuen.

Agurraren orduan gurasoak, emaztea, familia, lagunak izan dituzu gogoan...

Noski, gurasoek txiki-txikitatik frontoiez frontoi eraman naute, kilometro pilo bat egin, gauza pilo bat erakutsi... eta azken urteetan emaztea izan dut beti ondoan... eguneroko bizimodua ez da erraza ondoakoa kirolari profesionalean, asteburutan ia beti partidua, kontzentratu egon beharra, beti pilota buruan, aurreko egunean ere, nire kasuan behintzat, beti ohitura berdintsuak bete beharra, beste jendeak egiten dituen gauza asko ezin egin... horretatik aparte lau ume, karga guztia berak eraman beharra, meritu handia dauka eta oso eskertua nago, oso pozik.

1.300 partida baino gehiago profesionalean, erraz esaten da...

Horien artean baduzu bakarren bat bereziki kuttuna dena?

Partida pilo bat da eta ez da erraza horien artean bat nabarmentzea. Nik beti esaten dut debuteko partidua oso berezia izan zela eta buruz buruko lehen txapela Irujoren kontra Atanon irabazi nuenean ere handia izan zen, ez bainuen uste nik inoiz buruz buruko irabazterik izanen nuenik. Seme-alabak jaio zirenean eta aita hil zenean jokaturakoak ere gogoan ditut.

Profesionaletan 27 finaletan izan zara eta horietatik 15 irabazi, baina hamabi galdu... Galdutakoen artean baduzu bakarren bat amorratio berezia ematen dizuna?

Final piloa jokatu dut eta alde horretatik oso pozik nago. Galdutakoan beti pena hartzen da, baina alde horretatik beti positiboa izan naiz. Bat edo beste izan dut partida nahiko ongi eraman eta azken momentuan galdu izan dudana. Xalaren kontra eta Urrutiren kontra galdutakoak datozkit burura. Binakako finalean, Atanon, Mendizabalekin, Irujo eta Goñi III.aren kontra, hogeita bana berdin eta Goñiren eskapada batekin galdu genueneko ere gogoan dut. **Agurra iragarri duzunean, pilota munduko jendeak zure ezaugarriak goraipatu ditu... Zuk nola definituko zenuke zure ibilbidea 23 urte hauetan?**

Polita da jendeak horrelakoak esatea. Niretzat inportanteena, halere, zera da, denbora honetan guztian dena eman dudala kantxan, dudan guztia eman diot pilotari. Ez zait gustatzen nire buruaz aritzea, baina nahiko pilotari konpletua izan naizela esango nuke. Nik baino kolpe gehiagoko pilotariak izan dira, baina gauza asko ongi egiten duen pilotaria naizela uste dut.

Atzera begira, zerk harrotzen zaitu bereziki pilotan egin duzun ibilbideaz? Eta, ahal bazenu, zer aldatuko zenuke?

Jende gehienak palmaresari ematen dio garrantzia, baina nire ustez palmaresa, tituluak eta txapelak baino gauza garrantzitsuagoak eta politagoak badaude pilota munduan. Niretzat pilota ia bizitza guztia izan da, jende pilo bat eza-gutu dut, gauza pilo bat erakutsi dizkit...

Pilotaren eraldaketa ere bizitu duzu... botez jokatzetik airez jokatzera buruz burukoan... Aldaketa horretara ongi egokitu zaren pilotaria izan zarela diote... Ni hasi nintzenean lehengo joku tradizionala egiten nuen... Titin, Irujo eta pilotari hauek



Aimar Olaizola eskua goiti, 2013ko buruz buruko txapela, laugarrena eta azkena, irabazi ondotik.

egiten zuten jokoarekin, nerek ere aldatu beharra izan nuen, eta horrek pilotari hobea izatera eraman ninduen. Ongi egokitu nintzen aldaketa horretara, jokatzeko bi modu horiek ezagutu ditut. Oraingoa lehengo baino askoz azkarragoa da, baina bitara ongi moldatu naiz. Lehenago hasi banintz joku horrekin igual txapelen bat gehiago izanen nuke, hori esaten dit Asier anaiak, baina ez dago jakiterik.

Irujorekin izandako ribalidatea ere azpimarratu da... Zure kontrariorik gogorrena izan da? Birkote egin duzunen artean, berriz, zein izan da zure gustukoena?

Nire ibilbidean pilotari bat esanen nuke, Irujo esan behar da dudarik gabe. Pilotari gehiago ere izan ditut kontra partida garrantzitsuetan, baina hogeitik hamabostetan elkarren kontra jokatzeko suertatzen zitzaigun. Nire ustez, pilotarentzat oso ona izan da lehia

hori. Partiden aurretik bien jarraitzaileen artean saltsa berezi bat sortzen zen, deklarazioak, pilotengatik kexak... baina gero frontoian oso maila ona ematen genuen biok, frontoira jende asko eramaten genuen. Biek esaten dugu elkarrengatik gauza asko ikasi ditugula eta pilotarentzat oso ona izan dela. Gaur egun ere pilotari ikaragarri onak daude, baina ez dago jendearen arteko pikea sortzen duten bi pilotariren arteko lehiarik. Hori sortuz gero jendeak oraindik gehiago hitzegingo luke pilotaz. Hortik kanpo inolako arazorik ez dugu izan elkarrekin harremanean.

Etorkizunera begira oraindik ez duzu deus erabaki? Pilotaren inguruan segitzea gustatuko litzazuke?

Gustatuko litzaidake biharko egunean pilota munduan segitzea, baina momentu honetan, bi hilabete hauetan gelditzen zaizkidan partidak jokatu, azkeneko partida jokatu ondotik emaztearekin eta familiarekin hitzegin pixko bat... baina ez dut problema-rik, enpresarekin harreman oso ona dut, nirekin oso ongi portatu dira eta nik daukadan guztia eman diet, niretzat bigarren familia da.

Ttapi-Ttapi "deskubritu" zuen Aimar

Zenbat zientio elkarrizketa egin ote ditu Aimar Olaizola? Bada, horien artean lehenbizikoa TTAPI-TTAPI eskaini zion 1991n, duela 30 urte. Hamabi urte bete berriak zituela dagoeneko 25 txapel jantziak zituela ageri zen solasaldian. Orduan ere egunero aritzen zen pilotan Aimar mutikoa, «edozein momentu aprobatxatzen dut hortarako, errekreoak, ilunabarrek, oporrak edo asteburuak». Bere adineko gehienek bezala Aimarrek bere ido-



loak bazituen: «Beloki ikaragarri gustatzen zait eta Eugi ere bai. Futbolzalea eta Osasunaren aldekoa naizenez Urban ere nire idoloetako bat da, eta nola ez, Joxe Mari Bakero».



Maika Airtzegi txapeldun, lehiakide izan zituenarekin batera. UTZITAKOAK

Maika Ariztegik ingude altxatzen hamaikagarrena

Nafarroako txapelketa irabazi zuen irailaren 11n Beran eta Iosu Marturetek bigarren aldiz lortu zuen gizonezkoena

TTIPI-TTAPA | BERA

Nafarroako ingude-altxatze txapelketak jokatu zituzten irailaren 11n Berako Eztegarra pilotalekuan. Emakumezkoen artean Maika Ariztegi iturendarra nagusitu zen eta hamaikagarren txapela lortu zuen. Gizonezkoetan, Josetxo Urrutia leitzarrak ezin izan zuen bere hamargarren txapela jantzi eta bigarren izan zen Antsoaingo Iosu Martureten gibeletik. Hirugarren mailako aizkora txapelketan, berriz, Iker Gorriti nagusitu zen.

Emakumeak bederatzi kiloko ingudearekin arituz iren lanean, minutu eta erdiko txandan. Maika Ariztegi iturendarra izan zen indartsuena, 94 jasoaldi eman baitzituen. Esti Gastearena sunbildarra bigarren izan zen (85 jasoaldi) eta Antsoaingo Irune Biurrun hirugarren (84 jasoaldi). Podiotik altxaldi bakarrera gelditu zen Xanta Sousa lesakarra (83 jasoaldi) eta bosgarren izan zen Nerea Sorondo beratarra (81).

Maika Ariztegik hamaikagarren aldiz jantzi du Nafarroako ingude-altxatze txapelketa.

Duela hamazazpi urte jantzi zuen lehenbizikoa, 2004an, eta geroztik 2009, 2012, 2013, 2014, 2015, 2016, 2017, 2018, 2019 eta 2021ekoa irabazi ditu. Nafarroako errekorra ere Iturrengo kirolariak dauka, 2014ko txapelketan 99 altxaldi egin baitzituen. Euskadiko txapelketa ere lau aldiz irabazi du (2014, 2016, 2017 eta 2018). Euskadiko errekorra Karmele Gisasola bizkaitarrak jarri zuen 2020ko txapelketan (97 altxaldi, baina kontuan hartu behar da Euskaldiko txapelketan hamar kiloko ingudea erabiltzen dela eta Nafarroakoan bederatzi kilokoa).

Gizonezkoetan Iosu Marturek txapeldun bigarren urtez segidan

Gizonezkoen ingude-altxatze txapelketan Leitzako Josetxo Urrutia zen eskualdeko ordezkari bakarra. Ezin izan zuen bere hamargarren txapela lortu eta bigarren izan zen, joan den urtean ere txapeldun izan zen Antsoaingo Iosu Martureten gibeletik. Marturetek 87 altxaldi eman zizkion 18



Gizonezkoen artean Iosu Marturetek lortu zuen txapela bigarren urtez.



Gorriti txapelduna, Santamaria eta Suarezekin, aizkorako podioan.

kiloko ingudeari minutu eta erdian, eta Urrutiak 83. Hirugarren postua Berriozarko Imanol Martinentzat izan zen (79 altxaldi) eta laugarrena Guadalajarako Angel Albarrentzat (73 altxaldi).

Nafarroako hirugarren mailako aizkora txapelketan Iker Gorriti txapeldun

Nafarroako hirugarren mailako aizkora txapelketaren finala ere jokatu zuten Beran. Uharte Arakilgo Iker Gorriti izan zen txapelduna eta berekin batera, Iturgioingo Josu Santamaria igoko da bigarren mailara. Bi 45 ontzako eta bi kanaerdiko mozteko 10 minutu eta 29 segundo behar izan zituen txapeldunak eta 10 minutu eta 47 segundo txapeldunordeak.

Hirugarren posturako lehian, Victor Suarez madrildarra hamaika segundogatik nagusitu zitzaion Endika Goia beratarri. Finaleko beteranoena, Beintza-Labaiengo Jacinto Etxekonanea bosgarren izan zen.

SAILKAPENAK

INGUDE ALTATZEA EMAKUMEAK

1. Maika ARIZTEGI	94
2. Esti GASTEARENA	85
3. Irune BIURRUN	84
4. Xanta SOUSA	83
5. Nerea SORONDO	81

INGUDE ALTATZEA GIZONEZKOAK

1. Iosu MARTURET	87
2. Josetxo URRUTIA	83
3. Imanol MARTIN	79
4. Angel ALBARRAN	73

3. MAILAKO AIZKORA TXAPELKETA

1. Iker GORRITI	10.29
2. Josu SANTAMARIA	10.47
3. Victor SUAREZ	12.07
4. Endika GOIA	12.18
5. Jacinto ETXEKONANEA	13.20



Maika Ariztegi jardunean Beran.



Uterga eta Otano txapeldunak eta Otxandorena eta Azpiroz txapeldunordeak sari-emale eta omendutako atletekin.

Utergak eta Otanok irabazi dute Nafarroako txapela

Irailaren 11n Zubirin jokaturako finalean erraz irabazi zieten Otxandorena eta Azpirozi (35-20)

TTIPI-TTAPA

Nafarroako hamaseigarren erremonte txapelketako finala jokatu zuten irailaren 11n Zubirin. Xanti Uterga doneztebarra eta Otano nagusitasunez gailendu ziren, 35-20 irabazi baitzieten Eloi Otxandorena doneztebarrari eta Azpirozi.

Partida bikaina jokatu zuten Utergak eta Otanok eta hasieratik abantaila hartu zuten (17-9). Alde horri eutsi ez ezik handitu ere egin zuten (24-10) eta partida erabat hautsi zuten. Urdinek ez zuten buelta emateko zirrikiturik ikusi, beti menpean egon baitziren. Uter-

ga izan zen partidako onena, baina Otanoren partida bikainak ere lagundu zion. Urdinek ez zuten partida txarra jokatu, baina gorriak gehiago izan ziren.

Omenaldia

Txapelak eta sariak eman aitzinetik, Erremonte Fundazioak errekonozimendua egin zion Nafarroako atletismoari. Pamplona Atlético taldeko Nerea Bermejo, Jaione Mikeo, Maitane Melero, Iker Alfonso, Manu Quijera eta Ruben Pascual izan ziren ekitaldian. Tokioko Joko Olinpikoetan eta Paraolimpikoetan finalista izandako Asier Martinezek eta Izaskun Osese, aldiz, ezin izan zuten ekitaldian izan.

Urdazubiko Kontrabandisten Lasterketa urriaren 9-10ean

TTIPI-TTAPA

Duela bi urteko edizioaren oinarria segituz, aurtén Kontrabandisten Lasterketa bi egunez egingen dute Urdazubín (Gaueko Lanak eta Maratoi Erdia). Izen-ematea dagoeneko zabalik dago, www.herri-krosa.eus web orriaren bidez egin daiteke inskripzioa bi lasterketetan. Bietan parte hartzeagatik 35 euro ordaindu beharko da, bakarrik Gaueko Lanak lasterketan ateratzeagatik 15 euro eta maratoi erdian bakarrik eginez gero, 25 euro. **Urriaren 9an**, larunbatean, Gaueko Lanak lasterketa izanen da, 19:15ean abiatuko da eta 9,5 kilometroko eta 600 metroko desnibeleko ibilbidea egingen dute. Bigarren egunean, igandean, **urriaren 10ean**, Maratoi Erdia egingen dute 10:00etan. 22 kilometro eta 1.200 metroko desnibela izanen ditu ibilbideak. Urdazubiko gazteroiak, udalak eta Azkar Kirol Taldeak antolatuko dute ekitaldia.



UTZITAKOA

Nafarroako I. DiscGolf Irekia Igantzín

Irrisarri Landen jokatu zen Nafarroako I. DiscGolf Irekia irailaren 11n. Bortz kategoriatan banaturako 63 kirolari lehiatu ziren. Nathan Lanneluc (MPO), Dani Aguilar (MA1), Loralie Lanneluc (FA1), Manuel Angel Almeida (MA40) eta Daniel Cipriano (MJ18) izan ziren irabazleak.



UTZITAKO ARGAZKIA

Agirre eta Retegi Bi txapeldun Tiebasen

Irailaren 18an Tiebasen jokaturako pilota txapelketan, Iera Agirre leitzarrak eta Naroa Agirrek 22-14 irabazi zieten Aldaregiari eta Olatz Ruiz de Larramendiri. Gizonezkoetan, Julen Retegi Bi eratsundarrak eta Alduntzinek 22-19 irabazi zieten Arretxe II.ari eta Santxezi.

IRAILAK 30 - URRIAK 14

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus



ARMONIAS PARA DESPUES DE LA GUERRA DOKUMENTALEKO IRUDIA

DONAMARIA Dorrealdia jaialdia

Kontzertuak, dokumentalak, dantza ikuskizunak, eskultura erakusketa... Sarrerak: www.papeleriatamayo.com
Urriaren 1ean, 2an eta 3an, Jauregian eta frontoian. Bildutako dirua Kurdistango Mirzo Musik Fundaziorako.

IKUSKIZUNAK

ZUBIETA

Ekiñeren kontzertua

Afaria eta kontzertua
Errandonea ostatuan, urriaren 1ean, 21:00etan

BERA

'Jantzari: Tradizioa eta parekidetasuna' dokumentala

Proiektzioaren ondotik lurretako dantzarien solasaldia.
Kultur Etxean, urriaren 1ean, 19:00etan.

'Losers' antzerkia

Kultur Etxean, urriaren 2an, 18:30ean. Sarrerak Agara prentsari 7 eurotan.

LEITZA

Erraldoi berrien aurkezpena

Leitzako erraldioen konpartsa
Plazan, urriaren 2an, 18:00etan.

LESAKA

'Kirola' dantza ikuskizuna

Harriondoan, urriaren 16an, 19:00etan. Prezioa: 6 euro

AZOKAK

ELIZONDO

Artisautza azoka

Plazan, urriaren 2an eta 9an, 10:00etatik 14:00etara.

BERA

Azoka Eguna

Arratsaldean kontzertua eta muxikoak.
Altzateko plazan eta Merkatu plazan, urriaren 16an, 10:00etatik 14:00etara.

TAILERRAK

ELIZONDO

Antzerki jolasa

14-15 urtetik goitik.
Arizkunenean, urriaren 5etik aurrera, asteartetan 19:00etatik 21:00etara.

Musikoterapia haurdunentzat

Arizkunenean, urriaren 8tik abenduaren 17ra, ortziraletan 10:00etatik 11:30era. Izen-ematea: haizealoiara@gmail.com

Artearen esperimentazioa

Arizkunenean, urriaren 8tik aurrera, ortzegunetan 16:30-18:00 haurdunentzat eta 18:00-19:30 helduentzat.

IKASTAROAK

ELIZONDO

'Landa herrien bizi-iraunkortasuna' ikastaroa

EHUK eta Baztango Udalak antolatua.
Urriaren 1ean, 09:30etik 18:15era. Izen-ematea: www.uik.eus

Gaita eta atabal ikastaroa

Arizkunenean, urriaren 2tik aurrera, larunbatetan 09:00etatik 10:30era. Prezioa: 90 euro erroldatuek, 120 euro erroldatu gabekoek.

BERA

Gaita eta atabal ikastaroa

Isidoro Fagoaga musika eskolan, urriaren 2tik ekainera, larunbatetan 12:00etatik 13:00etara. Prezioa: 100 euro.

ZUBIETA

Oinarrizko gaitasun digitalak

Udaletxean, urriaren 18tik 22ra, 09:00etatik 14:00etara.

DONEZTEBE

Zerbitzu anitzetarako langile

Enplegu agentzian, urriaren 18tik 27ra, 08:30etik 14:00etara.

JARDUNALDIAK

URDAZUBI

Ondarearen Europako Jardunaldiak

Monasterioa, Alkerdiko lezeak eta errota bisitatzeko aukera
Urriaren 1ean, 2an eta 3an, tokiak erreserbatzeko: turismo@urdax.es

DONAMARIA

Dorrealdia jaialdia

Kontzertuak, dokumentala, ikuskizuna eta erakusketa.
Jauregian eta frontoian, urriaren 1ean, 2an eta 3an. Sarrerak: www.papeleriatamayo.com

BAZTAN

Euskal Herriko Dantzarien Eguna

Euskal dantza taldeen topaketa
Amaiurren, Anizen, Arizkunen Elizondon eta Iruritan urriaren 2an.

Euskal Herriko Neska* Gazteen Baterajotzea

Euskal talde feministen topaketa
Elizondon, urriaren 9an eta 10ean. Sarrerak: www.ehkoneskagazteak.eus

BERTSOAK

DONEZTEBE


Nafarroako Bertsolari Txapelketa

Zineman, urriaren 16an, 15:30ean. Sarrerak: www.bertsosarrerak.eus

Nire aukera

«Disfrutatzeko egiten dut lasterka eta horretan segitu nahiko nuke»

ANE ELZAURDIA MENTABERRI BERAÑO MENDI LASTERKARIA



Mugimendua behar duen neska da Ane Elzaurdia Mentaberri (Bera, 1996), «gauza aunitzetan parte hartzea gustatzen zait», eta bistakoa da. Mendi lasterketetan ibiltzen da, Tantarumairu ikastolan irakaslea da eta haurrentzako Manttale ttiki atletismo eskolan ere sartua dago.

Ttikitatik pausoka

«Betitik» ibili da lasterka Elzaurdia, «*atta* lasterkaria izana da eta beti eraman gaitu lasterketetara. Zortzi urterekin ia igandero joaten ginen lasterketaren bat egitera». Zaletasun bihurtu zuen ondotik, eta duela sei urte, 19 urterekin, «fundamentuz entrenatzen» hasi zen.

Kirol bat baino gehiago da mendi lasterketa berarentzako, «nire eguneko momentua da, gauza guztiez deskonek-

tatzeko balio dit eta primeran sentiarazten nau».

Lasterka bizitzen

Irailaren 4an Beran egin zen VII. Gau Krosa izan da Elzaurdiaren azken garaipena, baina podiora aunitzetan igo da. «Konstantzia da sekretua, entrenatzeari ez uztea. Batzuetan kostatzen da, eguraldiagatik, nekatuak gaudelako edo dena delakoa, baina forma mantentzeko konstantea izatea ezinbertzekoa da».

Astean sei egunetan entrenatzen du, «normalean lau saio lasterka eta bi bizikletaz,

«KONSTANTZIA DA SEKRETUA, ENTRENATZEARI EZ UZTEA»

eta hauei gimnasioko saioak gehitzen dizkiot». Entrenatzailer bat dauka eta «berak agintzen duena egiten saiatzen naiz». Mendia du entrenamenduetarako lekuri gustukoena; «Manttale ingurua, dudarik gabe, aunitz gustatzen zait bertara igo eta ikuspegiuz disfrutatzea».

Momentu txarrak bizi izan ditu kirolarekin, «Behobia-Donostia egiten ari nintzela erretiratu behar izan nuen ahul nengoelako. Gero, anemia neukala jakin nuen». Baina onurak kalteak baino aunitzez ere gehiago dira; «zaila da gauza bakarra aukeratzea, baina honen bidez ezagututako jendearekin gelditzen naiz».

Lasterkari aunitzek bezala, «nik ere noizbait Zegama-Aizkorri parte hartu nahiko nuke». Hori da bere helburua, «baina oraindik gehiegixko iruditzen zaizkit 42 kilometro». Kanpoan lasterketaren batean parte hartzea ere «gustatuko litzaidake, Italian, errate baterako».

Kirola eta irakaskuntza

Haurrak ere gustuko ditu Elzaurdiak eta Lesakako Tantarumairu ikastolan irakaslea da, «hagitz gustura nago, etxetik bertan, eta gure artean ere primeran moldatzen gara».

Haurrak eta kirola uztartzen ditu Manttale Ttiki haurrentzako mendi lasterketa taldean; «hurrei lasterka egiteko oinarriak erakusten dizkiegu, teknika lantzen dugu, baita abiadura, erresistentzia eta bere neurrian indarra ere. Hau dena jolasen bidez». Ateraldiak ere egiten dituzte, «hurrek bertako mendiak ezagutu eta

naturarekin disfruta dezaten». Ikasleek «mugitzeko eta kirola egiteko gogoia dute eta ederki moldatzen dira haien artean, bakoitza bere erritmoan».

Iaz ezin izan zen egitasmoa aitzinera atera, «baina aurten egitea gustatuko litzauguke, eta nola egin aztertzen ari gara». Haur aunitz elkartzen dira atletismo eskolan, «bi talde egiten ditugu, 6-8 urtekoak alde batetik eta 9-12 urtekoak bertetik, eta 30-40 haur inguru ditu talde bakoitzak. Egoera honekin ez da erraza hau dena aitzinera ateratzea, baina ziur aurkituko dugula egiteko modua!».

Irakaskuntzan, «mugimendua behar-beharrezkoa da beraien garapenerako, disfrutatzen dute eta harreman sozialetarako ere ezinbertzekoa da. Haurrak askeago daude mugimenduan gelan eserita baino». Gainera, jarduera fisikoarekin «bizipenen bidez ikasten dute, egoera bakoitza disfrutatzen dute normalean eta disfrutatzeko dugunean errazago ikasten dugu».

Honetaz gain, 'negulekuetan' ere ibili da Elzaurdia, Eguberrietako oporretan haurrentzako egindako ikastaroan. «Esperientzia positiboa izan zen, gustura ibili ginen. Goizetan eskulanak egiten genituen eta gosaldia ondotik jokoak eta jolasak». Egoerak uzten badu, aurten «berri ere egiteko prest gaude».

Etorkizunera begira

Irakaskuntzan lanean segitzeko asmoa du Ane Elzaurdiak, «aunitz gustatzen zait eta hurrekin disfrutatzen dut».

Kirolari dagokionez, «lasterka segituko dut, gauzak ongi eginez eta hobetuz. Lasterka eginez leku berriak ezagutu nahiko nituzke, Pirineo aldean lasterka ibiltzea, adibidez. Batez ere, disfrutatzeko egiten dut lasterka eta horretan segitu nahiko nuke».

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

SALGAI



ARANTZA. Zumarrendi baserria salgai. Bidea du etxe atariraino, baita ura eta argia ere. ☎606 96 02 37.

NARBARTE. 90 m²ko pisua salgai. Bizitzera sartzeko prest. Aukerakoa. ☎627 73 51 13.



ELIZONDO. Etxea salgai, biltegia itsatsia (230 bat m²) eta gutienez hiru ibilgailurendako tokia duen etxabearekin. 2 logelako etxebizitza eroso, bista zoragarriak, herriatik minutu batera, menditik minutu batera... Kokapen egokia. ☎680 91 19 12.

LESAKA. Etxe tradizional batean 65 m²ko pisua eta 52 m²ko bajera salgai, 85.000 eurotan. ☎609 70 87 97.

EROSI

Bikote gaztea etxebizitza bila. Pisua baino nahiago etxea, bizigarria izatea, baita eraberritzeren bat behar badu ere. ☎666 13 18 54 (Andoni)

ERRENTAN EMATEKO

IRUÑEA. Emakume gazte batek gela bat errentan eman nahi dio ikasten ari den neska bati. Lanerako giro lasaia, pisu oso argitsua (atikoa) eta ederki zaindua, unibertsitateetatik gertu, bainugela propioa. Prezio negoziagarria. ☎635 95 64 79.

ERRENTAN HARTZEKO

IRUN. Lagun batek pisu bat aurkitu nahi du beste zonaldeko ikasle batekin konpartitzeko. Irailetik ekainera. ☎948 45 07 08.

LESAKA. Errentan hartzeko pisu baten bila ari dira. Egoera onean dagoen pisu bat, 3 logela eta berogailuarekin eta luzerako kontratua nahi dute. ☎615 71 76 79.

LESAKA. Pertsona batentzako logela errentan emateko. Urte osorako. Erretzailea ez dena eta animaliarik ez. ☎948 63 78 62 / 678 85 50 56.

IRAGARKIA JARTZEKO:



948 63 54 58



www.erran.eus



744 48 43 61



info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 €** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 €** iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan **Bizum** bidez (744 48 43 61)

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeen erantzukizunik

Eskari handiagatik, alokairuko etxebizitzak behar ditugu. Jabearentzat kosturik gabe. Kontratua eta kudeaketa barne. ☎620 02 86 25 / 948 63 05 52.

KONPARTITUAK

DONOSTIA. Bortzirietako gizonezko batek pisu konpartitu batean gela bat hartu nahi du. Lasaia, txukuna eta erretzailea ez dena. ☎609 47 72 77.

ELIZONDO. Gela bat errentan hartzeko norbait behar dute. ☎622 40 21 95.

LANA

ESKARIAK

Pertsona helduekin eta etxeetan zaintza-lanetan aritzeko emakumea prest. Autoarekin. Berehala hasteko. ☎666 37 53 72.

Neska bat adinekoak zaintzen ariko litzateke, asteburuetan edo interna moduan. ☎632 75 93 48.

ESKAINITZAK

SUNBILLA. Ariztigail kanpinean zerbitzaria eta sukalde laguntzailea behar dituzte. ☎948 45 05 40.

Frantses pixka bat dakiena behar dute Larhongo benta batean lanean segituan hasteko. ☎607 56 60 22.

URDAZUBI. Montxo ostatuan sukaldean eta zerbitzatzen aritzeko langileak behar dituzte. ☎848 85 00 21.

LEITZA. Goizez 07:30etik 09:00etara 2 eta 5 urteko haurrak zaintzeko norbaiten bila. ☎658 75 93 34.

BERA. Zalain jatetxean zerbitzaria behar dute. ☎948 63 11 06.

IRUN. Jatetxe batean zerbitzaria behar dute. Esperientzia izatea kontuan hartuko dute. ☎650 17 30 31.

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 4,15
- 1.koa 4,03
- 2.koa 3,88

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 4,26
- 1.koa 4,12
- 2.koa 3,98

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze tikiak

- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 125,00
- Idixkoak 150,00

Aretze nabarrak

- Urruxak: 120,00
- Idixkoak 140,00

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 4,20/4,30
- Zaldi-behorrak 1,87/2,04

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 8,60/9,40
- 8-10 kilokoak: 7,60/8,20

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 34 €

Zerri gizona 1,173 €

Zerramak 0,420€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua irailaren 10etik 17ra bitarteko prezioak)

LEITZALDEAN emakume euskalduna lan bila, garbiketarako egiteko edo haurrak zaintzeko. ☎617 80 88 48.

ARRAIOZ. Simply supermerkatuan kutxazain aritzeko langile bila, goizez edo arratsaldean lanean aritzeko lanaldi osoan. ☎948 45 26 56.

Zerbitzaria behar dute Botxo ostatuan. ☎617 72 34 75.

ETXALARKO bentan lanaldi osoan aritzeko zerbitzari bat eta asteburu-eratarako zerbitzariak behar dituzte, esperientziadunak baldin badira hobe. ☎948 63 50 00.

DANTXARINEA. La Jambonerie ostatuan frantsesa dakien emakume zerbitzaria behar dute egun osoko lanaldirako. ☎659 73 27 73. ibericosdevegaseca@hotmail.com.

ANIMALIAK

OPARITZEKO

Katakumeak opari. Whatsappez edo mugikorretik. ☎626 43 71 26.

Setter ingeles arrazako zakurra oparitzeko, oraingo jabeak osasunarengatik zaintzeko zailtasunak dituelako. Oilagor ehizan hagitz ongi aritzen da. ☎697 34 75 73.

SALGAI



Baserrian jaiotako oilandak eta oilaskoak salgai, kanpoan ibilitakoak. ☎671 75 90 52.

DENETARIK

SALGAI



Etxeko **su egurra** salgai. Garraio zerbitzuarekin, etxeraino eramanez dizugu egurra. ☎629 45 14 26.



744 484 361

ttipi-ttapa

Berriki erosi dugun **koltxoia** salgai. 160 x 180 neurrikoa, gutti erabilia eta ongi zaindua. ☎676 38 94 81.



Egur trinkoko **arasa eta mahaia** salgai, azken hori 6 pertsonentzat egokia eta 8 pertsonentzat luzatzeko aukerarekin. 6 aulki ere mahaia-rekin bat datoz. ☎681 22 59 17 / 699 91 21 59.



Invacare Leo markako **moto elektrikoa** salgai, 800 eurotan. ☎652 72 30 84.



90 cmko **bi ohe artikulatu** salgai, bakoitza 400 eurotan. Biak elkarrekin edo banaka. ☎652 72 30 84.

Mendaur Motor
Leitzako bidea • DONEZTEBE
T. 948 450 333

Kotxe salmenta | Marka guztiak

Kotxe berriak

NISSAN QASHQAI 150 CV.

SUZUKI GRAND VITARA 1.9 DDIS - 5 ATE

www.mendaurmotor.es

GALDU-AURKITUAK



BERA. Toki Ona institutuko aparkalekuan barrio bat galdu dute. ☎679 29 57 29 / 608 73 73 46.

MOTORRAK

SALGAI

Mitsubishi Montero autoa salgai. Prezio negoziagarria. Gasolina. ☎690 05 09 03.

TAILERRAK

SANTESTEBAN TAILERRAK

RENAULT

DACIA DUSTER TCE 130 CV 4X2
16.700 €

www.talleressantesteban.com

DONEZTEBE - T. 948 450 282 - info@talleressantesteban.com

BERAKO UDALA

ALKATEAREN EBAZPENAK - HIRIGINTZA-

256/2021 Ebazpena, irailaren 3koa, Berako Udaleko Alkateak, emana; honen bitartez SK-2 sektoreko UE-8ko birpartzelazio proiektuaren zuzenketa onetsi zuen hasiera batez eta espedientea jendaurrean jartzea hogeitaz lanegunez, iragarkia N.A.O.n argitaratu denetik.

257/2021 Ebazpena, irailaren 6koa, Berako Udaleko Alkateak, emana; honen bitartez 9. poligonoko 403. partzelaren (SK-2 sektoreko UE-8a) Xehetasun Azterlana onetsi zuen hasiera batez eta espedientea jendaurrean jartzea hogeitaz lanegunez, dagokion iragarkia N.A.O.n argitaratu denetik. Dagozkion iragarkiak 2021eko irailaren 16ko 218. N.A.O.n argitaratu dira.

Bera, 2021-09-16 | ALKATEA, Aitor Elexpuru Egaña

BERRIA



WEB ORRIAK

Enpresa, elkarte eta erakundeentzako web orriak gailu guztietara egokituak.

- Landetxeak
- Komertzioak
- Gremioak...

Ordenagailu, tablet eta mوبiletara egokitua

Testu eta argazki galeriak

Kontaktu formularioa

Lokalizazio-mapa

Hizkuntzak aukeran



KULTURKARI
Diseinu grafikoa | Publizitatea

Info +:
Tel: 948 63 54 58
kulturkari@tupi.eus
www.kulturkari.com

ESKATU
AURRE
KONTUA

OROIGARRIA

**Martxelo
JORAJURIA LASTIRI**

Arantzán, 2021eko irailaren 7an, 59 urte zituela

Joan zaren arren
zure irria eta umorea,
auzolanerako gogoa,
eta bizitzeko indarra
gurekin geldituko dira.



URTEURRENA

**Maite
ARBURUA JIMENEZ**

2016ko irailaren 22an
V. urteurrena

Ama lurraren alaba
Zureak dira argia ta indarra
Zu zara maite dugun izarra.



ZURE FAMILIA

URTEURRENA

**Beñat
ETCHART VERDU**

Urdazubín, 2011ko urriaren 6an
X. urteurrena



Zenbat aldiz erranen nizuke
bertzerik gabe maite zaitudala
egunak hobeak baitira
zurekin batera.
Beti gure bihotzetan.

AITA, AMA, JOKIN ETA FAMILIA GUZTIA

URTEURRENA

Xabier MARTINIKORENA "XAGU"

Leitza, 2020ko irailaren 17a

Urte bat pasatu da jada,
baina zure besarkadaren zain jarraitzen dugu.
Denbora igaro ahala,
elkar ikusteko gogoa areagotuz doa
eta zure irribarrea ez ikustea gogorregia da.
Noizbait elkar ikusiko dugu.

EMAZTEA eta ALABAK

HILBERRIAK

- **Jose Antonio Arraiago Hernandorena**, Aresokoa, irailaren 9an, 91 urte zituela.
- **Josefina Linazasoro Igoa**, Berakoa, irailaren 10ean, 101 urte zituela.
- **Milagros Alzuguren Esteberena**, Berakoa, irailaren 11n, 87 urte zituela.
- **Consolacion Elizalde Arriada**, Elizondokoa, irailaren 16an, 90 urte zituela.
- **Agustin Olaziregi Mitxelena**, Berakoa, irailaren 17an, 56 urte zituela.
- **Margarita Otxoa Jimenez**, Doneztebekoa, irailaren 18an, 90 urte zituela.
- **Julia Istilart Arraztoa**, Elbetekoa, irailaren 19an, 82 urte zituela.

ESKELAK JARTZEKO edo OROIGARRIAK EGITEKO:
948 63 54 58, 744 48 43 61 edo info@ttipi.eus

948 05 90 90
ENPATIA, HURBILTASUNA
ETA BEGIRUNEA
www.izarratanatorio.com

BEILATOKIAK: Elizondo,
Arantzaz, Bera, Igantzi
Doneztebe

IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUI, A TU LADO



BAZTAN: **ELIZONDO**n Santiago kalea, 79
BORTZIRIAK: **BERA**n San Jose Beilatokia
MALERREKA: **DONEZTEBE**n Aparan ind. 1-3

web: funerariabaztanbidasoa.com

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA
ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

**24 ORDU
365 EGUN**

948 48 95 50
info@funerariabaztanbidasoa.com

Betiko taldea zu laguntzeka

IRACHE
tanatorioak

Nafarroako familien zerbitzura 1976tik

BERA | DONEZTEBE | ELIZONDO | LESAKA | LEITZA

ETXEETAKO ZERBITZUA
Trasladoak Iruñea, Donostia eta Iruñgo ospitaleetatik edozein herritara



948 63 74 04 / 948 19 70 70
www.tanatoriosirache.es

URTEBETETZEAK



Urdazubiko **Ekhi Jaurena Eizagirrek** 7 urte beteko ditu urriaren 1ean. Zorionak eta aunitz urtez aitaren eta amaren partetik! 7 muxu handi, maitea!



Aunitz urtez **Ruben!** Gure lankide gazteenak 23 urte beteko ditu urriaren 4an. Ongi-ongi pasa zure eguna!



Amaiurko **Goren Mujika Elizalde** 4 urte beteko ditu urriaren 6an! Aunitz urtez eta egun eder bat pasa txirindulari!!



Aunitz urtez **Usao!** Urriaren 9an urteak beteko dituzulako muxu eta besarkada handi-handi bat Lesakatik!



Jare Maia Arotzena lesakarrak 10 urte beteko ditu urriaren 5ean. Aunitz urtez eta muxu handi bat lehengusu eta lehengusina guzien partetik.

Aunitz urtez!

Zoriondu lagunak eta senitartekoak!

Internetez <http://erran.eus/zorionagurrak> helbidean sartuta.

Bulegoan eta postaz ^{TTPI}-TTAPAREN bulegora edo bidali argazkia eta testua gutun-azal

batean: Koskontako bidea, 7-1-31770 LESAKA.

Whatsappez 744 48 43 61 telefonora idatzita.

Ordaintzeko: Bulegoan, dirutan (5 edo 10 €) edo [ERRAN.EUS](http://erran.eus)en bitartez.

SORTZEAK

- **Adur Oronoz Irigoien**, Lesakakoa, abuztuaren 24an.
- **Xumai Zelaieta Urriza**, Lesakakoa, irailaren 6an.

EZKONTZAK

- **Jean Amestoi** eta **Aurelie Ameztoui**, irailaren 4an, Saran.

SORTZEAK ETA EZKONTZAK

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 63 54 58ra deitu edo 744 48 43 61era edo info@ttipi.eus helbidera idatzi beharko du.

KONTATU KONTUAK



Pentsionistak pentsio duina eskatuz. *Pentsio duina eta bizi duina* lelopean Baztan-Bidasoaldeko Pentsionisten Mugimenduak hilabeteroko hitzorduei ekin die, bertzeak bertze, «pentsioen sistema publikoa eta duina eta 1.080 euroko guttieneko pentsioa» eskatzeko. Irailaren 20an Elizondoko plazan egin zuten elkarretaratzea, eta ohiko eskariez gain, «kalitatezko lehen mailako osasun sistema» eskatu zuten. Hemendik aitzinera hilabeteroko hirugarren astelehenetan biltzeko asmoa dute. Hurrengoa, urriaren 18an, eginen dute, Beran.



Aimar Orbegoza Espainiako Parkour Txapelketan. Irailaren 17tik 19ra Espainiako Parkour Txapelketa jokatu zen Nafarroa Arenan, eta hantxe ibili zen Elizondoko Aimar Orbegoza. Gimnasia ikasten ari da Orbegoza, eta probatzeko parte hartu zuen aipatutako txapelketan. Baina hori baino gehiago egin zuen, emaitza bikaina lortu baitzuen. Estilo librean, hasierako proban lehenbiziko geldituta finalera sailkatu zen eta finalean, 17 urtez azpikoetan, bigarren gelditu zen, baina txapeldunaren puntuazio berdina lortuta. Zorionak, Aimar!




Ate irekien jardunaldia Bertizen. Joan den urteko geldialdiaren ondotik, irailaren 18an ate irekien jardunaldia egin zuten Bertizen. Bisitari aunitz hurbildu zen natur parkeko altxorak ezagutzera eta horrez gain, *Anderea* dokumentala ikusteko edo Amaiurko Gaztelu Taldea abesbatzaren saioaz gozatzeko aukera izan zuten.

PLAZAN BAZAN



SUDOKUA

Jose Luis Zumeta gure margolari maitatuenetako bat da, eta hain zuzen horregatik, bere deiturarekin osatu beharko duzu sudokua, alegia Z, U, M, E, T eta A hizkiekin. Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.



HAMARREKOA

Aurki itzazu goiko Zumetaren eta honokoaren arteko aldeak. Hamar dira guztira.



ZEEEEEER??

Zumetak koadro ugari margotu zituen. Beste margolari ezagun baten artelan bat ere izan zuen gogoan, eta artelan horrek eta gertaerak inspiratuta, obra bat sortu zuen.

Zein zen margolari ezagun horren artelana? Maripurtzilek badaki, eta erraten ari zaigu, baina konturatzen ote da ez diogula putzik ulertzen? Lasai, ez da-eta larria. Ezaba itzazu B, F, L U, M eta V guztiak eta hortxe agertuko zaizu.



BOTA DADOA!

Zazpi dado hauetatik lau bat datoz irudi zabalduarekin, eta beste hirurak ez. Zeintzuk dira onak? Asmatzea zaila baldin bazaizu, irudi zabaldua paper batean marraztu eta dadoa muntatu. Aise konturatuko zara zeintzuk diren txarrak eta zeintzuk onak.



INTERNETEN ERE BAI !
<http://plazanbazan.eus/>

Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak



Ttipi Txartela rekin
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA

MUSU-TRUK

-%80ko DESGRABAZIOA

ERRENTA AITORPENEAN

Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Koskontako bidea, 7 LESAKA

T. 948 63 54 58 | M. 744 48 43 61

info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipitxartela.info

790 zenbakiko
irabazleak >

ttipi txartela

Josune Sorondo Odriozola
72673152-A
apemuga 2023/04
ZK. 372

ttipi-ttapa

ZOZKETAK

Donostiako aquariuma - Bi sarrera
Sagrario Lasarte Baraibar | LEITZA
Buatxabal - Kamiseta bat
M^a Jose Arribillaga Garaikoetxea | AMAIUR
Salting Iruñea - Bi sarrera
Gregoria Maria Jauregi Iñarrea | ALMANDOZ
Zugarramurdiko lezeak - Sarrera bat
Miguel Telletxea Etxeberria | EZKURRA
BKZ abentura - Sarrera bat
Felix Alzate Sarratea | BERA
Manuela Ariztela - Euskal produktuak
Lourdes Elizalde Loiarde | ZUBIETA
Wow park- Bi sarrera bikoitz
Isabel Etxeberria Tapia | LESAKA
Joxe Bidal Ibarra Iriarte | SUNBILLA
Ikaselkar - Liburu bat
Iñaki Alustiza Navarro | ARANTZA
Ikaselkar - Liburu bat
Nerea Meoki Iturria | ELIZONDO

DONOSTIAKO AQUARIUMA

www.aquariumss.com



Bi sarrera

ONDDO TA PUNTO

www.onddotapunto.com



Kamiseta bat

SALTING IRUÑEA

www.saltingcenters.com



Bi sarrera

TABERNA EDARIAK

www.tabernaedariak.eus



Lote bat

IRRISARRI LAND

www.irisariland.com



Sarrera bat

Galaxy Park

www.galaxypark.eus



Bi sarrera

WOW PARK

www.wowpark.fr



Bi sarrera bikoitz

**LI
BU
RU
AK**

• Revolta Permanent
• Amak

• Modus Operandi
• Kalakan



Wowpark
Votre Parc Aventure

baga-biga

www.baga-biga.eus

**LA
GUN
TZAI
LEAK**

ikaselkar

www.ikaselkar.eus

KIMETZ
Belardenda

www.kimetzbelardenda.com